



GEHIENGOAREN NAHIA ERRESPETATZEKO ALDARRIA

Eskolako jardunaldia aukeratzeko prozesuak eztabaida sortu du. Amaiurko, Etxalarko eta Lesakako eskoletan, adibidez, familia gehienek jarraitua aukeratu dute, baina ez dira legeak eskatutako % 60ra ailegatu. Prozesua «injustua» izan dela salatu dute, eta egoera berean dauden Nafarroako bertze eskolekin elkarlanean, ate joka ari dira. / 10

Narbarteko kontzejua arriskuan

Azken bi hauteskundeetan zerrendarik aurkeztu ez denez, kontzejua desagertzeko espedienteari hasiera eman dio gobernuak. / 46

SINADURAK



ZOKKETA / 76



Ezkurra-Mutuberria familia: desgaitasuna dutenendako babes gehiago eskatuz / 8



Joseba Larratxerekin komikigintza ikastaroa Beran / 18



BKT taldearen ibilbidearen errepasoa egin du Belen Urrutiak / 54

BERA LESACA

Agenda 2024

MAIATZA

www.berakoagenda.eus
www.lesaca.eus

MAIATZA 3 ORTZIRALEA BERA	LIBURU AURKEZPENA "DEJA DE ESCRIBIR AL TIEMPO" GIOSA DECS-URREGUIARAZO 18:00 Herri Liburutegia
5 IGANDEA BERA	TXIRRINDULARITZA FELIX ERANDONEA MEMORIALA BERA
9 ORTZEGUNA BERA	BERAKO KOMIKIALDIA LIBURU AURKEZPENA NI EZ NAIZ MIKEL LABOA (JOSBA LABATXO) 18:30 Berakodeta
10,11,17,18 BERA	ERAKUSKETA EUSKAL IRUDIGILEAK 20 URTE Kultur Etxea Ortziralea 10, 17 16:30-18:30 Larunbata 11, 18 11:00-13:00
9 ORTZEGUNA LESACA	HITZALDIA GATTASUN HANDIAK 18:30 Lesakako Liburutegia
10 ORTZIRALEA LESACA	HITZALDIA GENOZIDIOA PALESTINAN 18:30 Udal Plazo Aretoa
11,12 LABURBATA LESACA	II. BIZIBIDE ENDURO LASTERKETA II. SUSTRANS OPEN ENDURO BTT LESACA
18 LABURBATA LESACA	UDALERRI EUSKALDUNEN EGUNA LESACA
19 IGANDEA BERA	KONTZERTUA RAPHAEL ROGINSKI GITARRISTA (POLONIA) 18:30 Kultur Etxea
19 IGANDEA LESACA	DOKUMENTALA BIDASOA 2018-2023 18:30 Herriondoa Kultur Etxea ABESBATZEN TOPAKETA GILTZARRI ABESBATZA 13:00 Herriondoa Kultur Etxea - Komentuan SALVADOR YANCI OROIMENEZKO VII. MARTXA ZIKLOTURISTA
24 ORTZIRALEA BERA	SARI BANAKETA BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER LEHIAKETA 17:00 Kultur Etxea
25 LABURBATA LESACA	MERKATU TTIKIA 10:00-14:30 Beheko Plaza ANTZERKIA "FUERA DE MI CASA" BAKASTI TEATRE 19:00 Herriondoa Kultur Etxea Sarrerak www.lesaca.eus
25 LABURBATA BERA	EMANALDIA LEGAZPIKO SANTI KUTZ ABESBATZA 20:00 Herriondoa Kultur Etxea-Komentuan HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUN BESTA Ant. Bertzaritako euskara musik.
26 IGANDEA LESACA	KONTZERTUA ORGANO ETA SAXOFOI KONTZERTUA 18:30 Tourneko San Martin Parrokia
30 ORTZEGUNA LESACA	LIBURU AURKEZPENA; ERREZITALDI MUSIKATUA "LARROSA BAT GROENLANDIAN" IBAN GARRO ETX OLATZ BOJO 18:30 Lesakako Liburutegia

donbosco
Lanbide Heziketa

CIFP DON BOSCO LH II
 S. Marcos Erp. z.g. P. ku. 101 - 20100 ERREENTERIA
 T. 943 51 04 50 - F. 943 52 92 20
donbosco@donbosco.eus
www.donbosco.eus

ikasLAN LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

AURREMATRIKULA:
maiatzaren 6tik 24ra

HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILA

AUTOMOZIOA
 • Ibilgailu automobilien elektromekanika. LOE zikloa (A eta D)
 • Karrera. LOE zikloa (A eta D)

FABRIKAZIO MEKANIKOA
 • Soldadura eta galdaragintza. LOE zikloa (A eta D)

FAMILIA: ELEKTRONIKA
 • Telekomunikazioen instalazioak. LOE zikloa (A eta D)

INSTALAZIOAK ETA MANTENTZE LANAK
 • Bero ekoizpenen instalazioak. LOE (A eta D)
 • Klimatizazio eta hotz instalazioak. LOE (A eta D)

KIMIKA
 • Kimikagintza. LOE zikloa (A eta D). ERREENTERIAN

Lortu bi titulak 3 urtetan!!!

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

Ibilgailuen mantentze lana

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA

AUTOMOZIOA
 • Automozioa. LOE zikloa (A eta D)

FABRIKAZIO MEKANIKOA
 • Metal eraikitzaile. LOE zikloa (A eta D)

INSTALAZIOAK ETA MANTENTZE LANAK
 • Instalazio termiko eta fluidodunen mantentze lanak. LOE (A eta D)
 • Mekatronika industriala. LOE zikloa (A eta D)

ELEKTRONIKA
 • Elektronika mantentze lanak. LOE zikloa (A eta D)

KIMIKA
 • Farmazia produktuen, bioteknologioren eta antzekeen fabrikazioa. (LOE, A eta D)
 • Analisisen eta kalitate kontrolerako laborategia. LOE zikloa (A eta D)
 • Kimika industriala. LOE zikloa (A eta D). TOLOSAko egoitzan

ELIKAGAIEN INDUSTRIA
 • Prozesu eta kalitate elikagaien industrian.

GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK
 • Mugikortasun seguru eta jasangarriko prestakuntzako goi-mailako teknikaria.

INFORMATIKA
 • Sareko informatika sistemen administrazioa.



NIRE TXANDA

JOSEBIÑE AGIRRE SOTO

Asper gaitzen pitta bat

Maiz presaka ikusten dut jendea eta niri presa ematen dit jendea harat-honat ikusteak. Nik ere harat-honat ibili behar dudala eta ezin gelditu noa ni ere. Igual hiriko erritmoa da, baina herrietan ere bada harat-honat ibilki den jende nekaezina. Presaz mintzo naiz, bat-batean gauzak egiteagatik egiten direlako eta ez gauza horiek egin nahi direlako. Edo bai, baina badira bertze hamaika gauza egin nahi direnak eta plaut, denak juntatzen ditu batek eguneko ordu soilen barnean. Ezin kabituz. Kasik ezta norbere gorputzaren beharrak patxadaz egiteko astirik ere. Eta asperdura? Aspertzeak ez du tokirik halako demanda duten eguneko orduen tartean! Ez asperdurak ez honen lagunek: isiltasuna, frustrazioa, itxarona, egotea. Sinpleki egonean egotea. Etengabeki bata bertzearen ondotik sortzen doazen momentuekin egotea, hauek eginbeharrekin bete gabe. Produktibitateari muzin egin gabe ere, deus berezirik egiteko gogo sobera gabe, hodei baten agerpenaren lilurak inbaditzea, asperterat jostatzea.

«ASPERTZEAK EZ DU TOKIRIK EGUNEKO ORDUEN TARTEAN»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Kirol errezeta, erreza da eta!

Pastilla guttiago, zapatilla gehiago haren pare abiatu dute *Kirol errezeta* Lesakako Udalak eta osasun zentroak. Kirolari gisara (igande arratsalde berean ikus ditzaket pilota, tenis eta saskibaloi partidak sofatik mugitu gabe) eta kirol aditu legez (oraindik buruz erreztatzen dut 1980-81eko liga irabazi zuen Realaren hamaikakoa), nire bedeinkazioa du. Osasuna!

NABARMENTZEKOAK



AIMAR JABALERA
ERREMONTISTA




IBAI AZURMENDI
TXIRRINDULARIA

Berria txapelketa irabazi du Aimar Jabalera erremontista doneztebarrak. Goikoetxea VI. lagun, bikoteak ez du partida bakar bat ere galdu txapelketa osoan eta Jabalera nagusitasunez aritu da.

Bihotzean aurkitutako arritmia batzuk tarteko, ibilbide profesional eten behar izan Ibai Azurmendi txirrindulari leitzarrek. 27 urte dituela utzi du txirrindularitza.

GIBELERA BEGIRA



2014-05-01 · TTIPI-TTAPA · 613 zk.

Matxus Perugorriarekin ikerkuntzaz

Matxus Perugorria Berako ikertzailea izan zen duela 10 urte 613. aldizkariko protagonistetako bat. Biologia eta biokimika ikasketak egin ondotik, gibelesko gaitz kronikoen inguruan doktoretza osatua zuen, eta Ingalaterran ibili zen hiru urtez ikerketan. Ikerbasque Fundazioaren beka bati esker itzuli zen Euskal Herrira lanera, eta gibelesko gaixotasun kronikoak iker-tzen aritzen zen lanean. «Positiboki pentsatu nahi nuke eta datozen urteetan ikerkuntzak aitzinera jarraituko duela sinetsi. Ikerketa garrantzitsua da, edozein arlotan ezagutza berria sortzea beharrezkoa da, hala nola, sendabide berriak lortzeko, biomaterial berriak garatzeko... Azken finean gizartearen onura eskuratzeko».

Argitaratzailea

Tiipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Berriemaileak

Arkaiz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Iruñe Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberriagarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerrekako	47€
Leitza	40€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	110€
Amerika eta Australia	155€



KOLABORAZIOAK

MIXEL GEREKA ZELAIA

K... Kaos

Kletraren txanda iritsi eta dugu egoera ikusirik, *Kaos* hitza izan da lehenetsitakoa, nahiz eta beste batzuk ere dantzan ibili.

«Mundu ordenatua, unibertsoa edo kosmosa sortu aurretik zegoen ezereza edo nahasmendua; erabateko nahasmendua edo antolaketa eza». Hor hitzaren definizioa eta egungo munduaren argazkia. KLIK! Ordena versus desordena. Mundua sortu geroztik gizadiak lorturiko nolabaiteko ordena gaiztotzen ari da eta ez dakit hasierako ezereza goazen edo betiko nahasmenduaren olatu haundi baten gainean surfean ari garen, hurrengo barealdia harrapatu arte. KONTUZ! Desordena versus ordena. Gure gizarte txuri, aberats eta kapitalistaren ongizate-estatuan bizitzeak antolamendua eta ordenaren ilusioa ematen digu, baina mundu zabalean kaosak irabazten du, zentzugabekeriak: Gazako sarraskia lehen planoan eta beste hainbat ahanzturaren planoan, Saharar Herriaren amesgaiztoa, Haiti, Siria, Etiopia eta Itsas Gorria Tigray eremuan, Sudan, Ukraina eta Iran. Gerra hotsak ate joka. KASU EMAN esaten diguten bitartean, gure gobernuak sustatu eta babesturiko armen industria asetzen, etengabe ekoiztu eta aberasten, hildakoak gordinki pilatuz, kaosari jaten ematen. KAOSAREN ERASOAK!

«MUNDU ZABALEAN KAOSAK IRABAZTEN DU, ZENTZUGABEKERIAK»

Kaos omen zen pertsona izena Grezia eta Erromatarren inperioan ere eta, xelebrea baldin bada ere, bururatzen zaizkit pertsonaia batzuk izen horri elegante eutsiko ziotenik, Kaos Netanyahu, Kaos Biden edo Kaos Nuñez

Feijoo... gertuago etorri gabe. Eta hizkuntzetan? Ba al dago kaosa –desordena versus ordena– euskarari txertaturik? Kaosa hizkuntza jolasa izan daiteke eta horren lekuko 2024ko otsailean Euskal Herrian egindako palindromo lehiaketa. Palindromoa ezkerretik eskuinera zein eskuinetik ezkerrean irakurrita esanahi berbera duen testua da eta makina bat sortu zituzten aipaturiko lehiaketan. Hari horri helduz eta kaosaren inguruko burutazioan nabilela nire eskutara iritsi zitzaidan palindromo bikaina: KAOSAREN ERASOAK (Zakilixut, Olariaga, Palindromihi 6490). Egin froga, ezker eskuin, eskuin ezker. KAOSAREN ERASOAK.

Jolasa bai, baina erraza ez da, eta bestela, saia zaitezte baten bat asmatzen.

KAOSen palindromoa SOAK ingelesez... Alegia, beratzen utzi.

KAOSarekin hasi eta Aguraingo Kaotiko taldearekin bukatuko dut Adrenalina diskoaren *Paradisus taberna* kantaren zatitxoarekin: *Paradisus tabernan gaude, elkartuz paradisus galdutan. Paradisu tabernan sutan, badakizu... badakizu noiz, badakizu nor, badakizu non, badakizu... paradisun beste bat.*

SOAK... beratzen utzi irakurritakoa!



LOREA FLORES COMPAINS

Elkarrekin eta adostasunarekin ez bada zail dugu trantsizioa

Klima larrialdi eta biodibertsitate krisi larrian gauden honetan, badirudi Euskal Herrian ingurumenari lotutako arazo handiena edo ia bakarra energia berriztagarriak direla. Ados nago, oraintxe bertan berriztagarrien garapen eredu ez dela egokia eta oligopolioen onura ekonomikoak pisu gehiago daukela energia sistema berriztagarri, demokratiko eta justu batera ailegatzeak baino.

Erronka handiak ditugu aitzinean eta argi dago egungo egoerara sistema kapitalista eta kontsumistak ekarri gaituela. Ados, egungo ekoizpen eta kontsumo eredu erabat aldatu behar dugu. Argi dago, trantsizio ekologiko % 100 berriztagarri baterako bidean, kontsumoa murriztu beharko dugula, eta badira eredu batzuk bizi duinak mantenduz, % 50eko murrizketa posibleko litzakeela diotenak. Kontsumoa murriztu gabe, ezin izanen dugu trantsiziorik egin. Argi dagoelako, egungo mailetan ezin dugula segitu. Planetaren bederatzi mugetatik dagoeneko sei gaintitu baititugu. Kontua da, berriztagarri handirik gabe, kontsumo energetikoaren % 80ko murriztapenera joan beharko genukeela segur aski. Eta ez dakit gizartea prest ote dagoen kontsumo murrizketa hori asumitze-ko, edota kontsumo maila horrekin, pertsona guztien oinarritzko

«HAS DEZAGUN EZTABAIDA ZINTZOA, AURREIRITZIRIK GABEA»

beharrak asetzen dituen gizarte justu bat eraikitzeko gai izanen ote ginatekeen. Izan ere, trantsizioak justua izan behar badu, trantsizio horretan pertsona guztientzako bizi duina bermatzen dela segurtatu

beharko genuke. Pertsona guztien oinarritzko beharrak estalita daudela ziurtatu (ipar zein hego globalean), planetaren mugak errespetatzen ditugun bitartean. Eta hori, ahal dela, bana bertzeko tenperatura 1,5°C baino gehiago igo baino lehen.

Pena handia ematen dit, itxuraz bidelagun izan beharko genituzkeen artean, eztabaida hagitz gaiztoa izaten ari dela ikusteak. Gainera, segur aski oinarrian % 90eko adostasuna dugunean. Okerrena da, gu eztabaidan korapilatuta gauden bitartean oligopolio energetikoak, eta batez ere erregai fosilei lotutako enpresak, lasai ederrean daudela inoizko onura ekonomikorik handienak lortuz eta trantsizioa euren modura moldatuz. Ezin dugu ahantzi CO₂ emisioek eta etxeetako energia faktorek goiti egiten duten bezala, goiti egiten dutela Repsol, Naturgy eta antzekoen irabaziek. Eta gainera, diru publiko hornitutako dirulaguntza ikaragarriak hartzen dituztela.

Momentu zailean gaude, zeinetan eraldaketa handi eta azkarrak behar ditugun. Eta zentzu horretan, aldaketak trantsizio ekologiko justura joan dadin, askitasunean oinarritua izanen dena eta ez gehiegizko kontsumoan, herri bezala adostasunetara ailegatzea komeni zaigula.

Has dezagun eztabaida zintzo bat, aurreiritzirik gabea. Lehenets dezagun bizi duinak mantentzeko aski diren behar horiek, kalkulatu dezagun modu zintzoan zenbat murriztu beharko genuen kontsumoa. Eta egin dezagun bidea elkarrekin.

11 GALDERA LABUR

ARITZ LEKUONA SARAKO PILOTARIA

«Ttikitatik ikusi dut pilota telebistan»

Nola definituko zenuke zeure burua?

23 urteko saratarra naiz, baratzezaina nire aitarekin batera.

Zein dira zure zaletasunak?

Kirol guziak maite ditut, pilota eta errugbia partikularki. Mendian ibiltzea ere gustuko dut.

Nondik heldu zaizu pilotarekiko zaletasuna?

Ttikitatik ezker paretako pilota partidak ikusten nituen euskal telebistan, igande arratsaldetan, familiarekin. Eskolan ere pilotan aritzen ginen, beraz, naturalki hasi nintzen jokatzeko.

Noiz hasi zinen?

Zortzi urte nituenean hasi nintzen eskupilotan, Sarako Izarra taldean.

Zein modalitatetan aritu izan zara?

Trinketan, ezker paretan eta plazan aritu naiz. Orain trinketan bakarrik ari naiz, baina luzez ezker paretan nuen gehienik maite. Beran eta Lesakan txapelketa batzuk egin ditut gaztetan. 16 urtetan urte bat ezker paretan entrenatzen egin nuen Panpi Ladutxekin baina gero utzi nuen.

Gaur egun lehen mailan ari zara, ezta?

Bai, aurtun lehenaldikotz lehen mailara igo naiz. Lehenik binazkako txapelketan ibili nintzen Unai Iribarrenekin, eta duela gutti buruz buruko txapelketan.

Alde handia ikusi duzu mailan?

Niretzat alde haundiena fisikoa da, tantoak zailagoak dira egiteko.



LAUGARREN BEGIA

Prestaketa ere exijenteagoa da?

Txapelketa edo partidarik ez dugularik, astean bi edo hiru entrenamendu fisiko egiten ditut eta bat edo bi tekniko, eskuen arabera. Txapelketa denboran, bi entrenamendu orotara egiten ditut, freskotasuna atxikitzeko.

Esku Huskako banakako finalean txapeldunorde izan zinen. Zein sentsazioarekin gelditu zinen?

Sentsazio txarrak izan nituen partidatan, urduri nintzen. Elkarrekin ginen 10 arte, baina

gero bero kolpe bat hartuta, ezin nuen Asierren erritmoa segitu. Asierrek bere titulua merezi du, txapelketa bikaina jokatu zuen. Eskerrak eman nahi diet lagunei egun hortako giro politarengatik.

Zure asmoak epe motzera?

Momentuz zauritua naiz, espero dut ongi sendatzea eta partida onak egitea uda honetan.

Eta epe luzera?


Goi mailan jokatzeko egun batez.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toallak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Nafarroarentzako lotsa

JOXE FERMIN LIZARRAGA LAZKANO

Maria Camino Oskoz maistra ezkertiarra izateagatik 1936ko abuztuaren 10ean bortxatua izan ondoren eraila. Maravillas Lamberto, 14 urte zituela, Maria Camino baino bost egun beranduago bere aitaren aurrean behin eta berriz bortxatua izan ondoren harekin batera eraila. Iturengo Pedro Maria Gorostidi medikua eta Juan Bautista Iriarte, biak 1936ko irailaren 28an, Lesaka inguruan, abertzale euskaldunak izateagatik erailak. Valcaldera, Eloko teileria... 1936ko altxamenduaren ondoren Nafarroan izandako eraildakoen zerrenda bukatzina da, hiru mila ederki luzeak; fronteetatik urrun, armagabeak, harrapakin errazak. Haiei fronteetan hildakoak gehitu behar zaizkie, baita altxatuen bandoan hildako hainbat ere; asko eta asko behartuta eraman baitzituzten. Isilduak eta luzaroz ahaztuak izatera kondenatuak guztiak.

Armada espainiarrak Falangisten, elizaren eta batez ere Karlisten laguntza ezinbestekoarekin Nafarroan egin zutena adjektibatzea zaila zait benetan, baina laudatu, behintzat, nik ez nuke eginen.

Iruñera joan izan naizen askotan, Karlos III.a etorbidearen garai alderantz begirada altxatu, eta kalea ixten duen eraikin handi, goibel eta beldurgarri bat ikusten dut, altxamenduaren arduradunak eta haien gurutzada laudatzeko eraikia. Ez da kalea eraikinak ixten duen gauza bakarria, askeak izan beharko luketen gure pentsamenduei galga jartzea izan baita haren eginbehar nagusia; beldurraren bitartez, noski. Egindakoa ongi egon zela argi uzteko ezarria baitago hura Nafarroako hiriburuaren erdigunean, ikusten dudana aldiro «berriz ere eginen genuke», mehatxari bat susmatzen dut airean.

Iruñeko Udalaren osaera berria dela eta, dirudienez berpizten ari da Erorien Monumentuaren inguruko eztabaida.

Eraitsi ala nolabaiteko itxuraldaketa batekin beste esanahi bat eman?

Horren helburu zehatzarekin diseinatu eta eraikitako zerbaiti beste esanahi bat ematea ezinezkoa izan da; svastika nazi bati beste esanahi bat eman nahi izatearen parekoa. Espainia aldean oilartzen ari da, berriro ere, beti eskuinaren babespean egon den eskuin muturra; aukera ederra dauka Iruñeko Udalak haiei muga jartzeko eraikin itxuragabe eta mingarri hori botata. Batzuk lehen bezain harro, zauri zaharrak ezin itxi besteak, lotsatuta eta baita beldurrik ere hainbat; orain arte ikusi duguna ikusten segituko dugu denek eraikin anker horren harri bat bestearen gainean dirauen bitartean.

Legez Iruñeko Udalari dagokio ardurak, baina, Nafarroako luze-zabal guztian sentitzen dugu lotsa.

Beintza-Labaiengo bizilagun batzuen babesgabetasuna

JON ANDONI ETXEGARAI IRIGOIEN

Duela bi urte baino gehiagotik Beintza-Orbelako aterpetxearen inguruan dagoen arazoaren benetako bertsio murriztua. Auzokideen arteko desadostasun bat izaten hasi zena, orain, Orbel Haizearen presioagatik, arazo tekniko, legal, sozial eta mediatikoa da.

Gai nagusia intentsitatea izan da, musikaren bolumena, iraupena eta Beintzako aterpetxearen inguruan jolas saioen kontzentrazioa. Inor ez da kexatzen haur batzuen barre eta jolasengatik (Gure kexen adibide batzuk: *Youtube Beintza Bullicioso*). Ibiza dirudi, Nafarroako mendialdeko herri baten ordez.

Guk eskatu duguna da: pilotalekuko zalaparta murriztea, batez ere afalostean, pilotalekuko musikaren bolumena eta gaualdiarena jaiste; jarduera herri osoan banatzea (beste frontoi bat dago Labaienen).

Hiru aldiz saiatu gara Orbel Haizearekin konponbide adiskidetsu bat bilatzen. Udala ere bai. Erantzunak: «Gure

ordutegiak eta zarata mailak arrazoizkoak baino gehiago dira. Ez dugu ezer egingo egokitzen saiatzeko. Hemen ez dago araurik. Gure jarrera aldatzeko modu bakarra egiten duguna legez kanpokoa dela frogatzea da».

Orbel Haizeko arduraduna izan zen bide legalari ekitera behartu gintuena (2002ko martxoa). Beintza-Labaiengo Udalarari eskatu dioguna legeak betetzea izan da. Urtebetez baino gehiagoz irregulartasun arrasto asko aurkitu genituen. Orbel Haizeak ez zuen keinu bakar bat ere egin bizikidetzaren hobetzeko, eta udaletxeko hall-a baimenik gabeko jardueretarako erabiltzen jarraitu zuen, ohartarazia izan bazen ere (2002ko ekaina). 2003ko ekainean, aurkitutako irregulartasunak salatu behar izan genituen. Udalak esku hartu behar izan du, Turismo Departamentuak gure salaketak helarazi zizkiolako. Orbel Haizeak 2020ko uztailetik daki hori.

Bi urtez sufritu dugu: auto baten eta baratze baten txikiztoa, mota guztietako irainak, laidoak, eraso fisikoak, zirikatzeak eta seinatlatze soziala. Orbel Haizearen agresibitatea eta jarrera desafiatailea ere pairatu ditugu, edozein gardentasun ariketaren aurrean edo legea betetzeko eskatzen zaionean. Larriki leporatu digu Hezkuntza Departamentuaren programa bat geldiarazten saiatzea. (Departamentu horrek idatziz ukatu ditu salaketa horiek). Badirudi Orbel Haizeak zailtasunak dituela Beintza-Labaienek egitura jasangarria eta legea errespetatzen duen aterpetxe bat izan dezan.

Desinformazio eta desprestigio kanpainarekin, egoera hori estali nahi du, haren bertsioa soilik entzun dadin eta elkarrizketa bidezko konponbidea eragotzi dadin. Otsaileko batzarra lintxamendu publiko hutsa izan zen. Ekitaldi horretan egia manipulatu zen, ez ziguten lasai hitz egiten utzi, kalumniatu egin gintuzten eta herritik alde egiteko eskatu!

Hala ere, zentzugabekeria horri irtenbidea aurkitzen laguntzeko eskatu diogu Nafarroako Arartekoari.

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

Ezin dut edo ezin naiz?

Euskaltzaindiak ez du berariazko araurik eman 'ezina' adierazten duen *ezin izan* aditzari buruz. Tradizioan, ordea, badira ongi finkaturiko moldeak eta komeni da horiei buruzko zenbait zertzelada aipatzea.

Laguntzen duen aditzaren ezkerrean doa eta haren erregimenaren arabera jokutzen da *ezin izan*:

Etorri, adibidez, *da* aditza denez: Ezin *da* etorri (**ezin du etorri*).

Nolanahi ere, aditz nagusia isilpean gordetzen denean, *du* hartzen du beti (esaldia inpersonala ez bada behintzat: (*Ezin da*). —Joan zaitezke? —Ez, ezin dut. (*—Ez, ezin naiz).

Hauek baliokideak dira denak esanahiz, eta zuzenak formaz: **ezin naiz joan** / ezin joan naiz / **ez(in) naiteke joan** / ezin joan naiteke / (ez daukat joaterik); **ezin dut erosi** / ezin erosi dut / **ez(in) dezaket erosi** / ezin erosi dezaket / (ez daukat erosterik). Letra lodiz ageri dira molde erabilienak eta neutroenak.

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Osatu bikoteak

BOTO	ZALU
OHITU	BOZKETA
MIHI	POTIKOKA
BOZKA	JARRI
MALGU	MINGAIN
KATUKA	GORDE
OTAMEN	BOZ
ALTXATU	GOSARI

Zein da zuzena?

Gaibehera ≠ gain behera

Biak zuzenak dira. *Gainbehera* izena da, eta malda behera doan bidea edo egoera adierazten du:

- Gainbehera luze batek bertze herri batera garamatza.
- Erromatar Inperioaren gainbehera.
- Gainbehera latza egin du euskarak han azken urteotan.

Gain behera, berriz, adizlaguna da, eta *goitik behera* esapidearen sinonimoa da:


- Plazak zola gain behera dauka.
- Sabela gain behera urraturik.
- Opera gain behera doala uste al duzu?



Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

Oharra:

Asmatu al zenuen 852. aldizkariko hieroglifikoa? Erantzuna orantza da, toki batzuetan legamia, baina eskualdeko herri aunitzetan orantza.

«Desgaitasuna dutenek aunitzez babes gehiago behar dute»

ITXASO MUTUBERRIA ETA IBAN EZKURRA EUNATE ETA PEQUEÑA GUERRERA ELKARTEAK

Kardiopatia bat eta entzumen arazoak dituen lau urteko alaba dute Mutuberriak eta Ezkurrak. Bertzeak bertze, bidelagun dituzten Eunate eta Pequeña Guerrera elkarteak aurkeztu dituzte

G. PIKABEA DONEZTEBE

Etxean «bi altxor» dituztela diote Itxaso Mutuberria Anzizarrek eta Iban Ezkurra Salaberrik. Izaro eta Uxuri Mirari alabez mintzo dira. Zazpi urte ditu zaharrenak eta lau gazteenak eta Doneztebe dute bizileku. Hain zuzen, Uxuri da erreportaje honetako protagonista, etxeko ttikiena. Sortzetiko kardiopatia eta entzumen arazoak ditu Uxurik, gurasoek kontatu dutenez, «haurdunaldian harrapatutako zitomegalobirusaren ondorioz». Geroztik egin duten bidez, gaur egun duten mar txaz eta izan dituzten bidelagunez aritu dira Mutuberria eta Ezkurra TTPI-TTAParekin. Bertzeak bertze, Eunate Nafarroako Gorren Familien Elkarte eta Pequeña Guerrera kardiopatia duten haurren familien Nafarroako elkarte aipatu dituzte, eta nola ez, familia. Haiendako izan dituzte esker oneko hitzak eta «eman diguten laguntzagatik, bihotz-bihotzez, eskerrik asko» erran nahi izan diete.

Uxurik sortzetiko kardiopatia eta entzumen arazoak ditu. Azalduko zenigukete?

Bai, Uxuri kardiopatia batekin jaio zen. Bradikardia du, bere bentrakuluak etengabe maiztasun kardiako motelarekin lan egiten du. Jaio zenean jakin genuen haurdunaldian harrapatutako birus baten ondorioz izan zela: zitomegalobirusaren ondorioz. Horrek

entzumenean ere eragin zion, eta gorreria bilaterala du.

Noiz hasi zen dena?

Haurdunaldiko laugarren hilabetean bihotzeko arazoak detektatu zizkieten eta jaio zenean, hainbat proba egin ondotik, entzumen arazoak zituela ikusi zuten.

Gogorra izan zen?

Bai, hagitz gogorra. Hasteko, haurdunaldia bera gogorra izan zen, ez baitziguten aitzinera aterako zen inongo itxaropenik eman, eta jaio ondotik, arazoak bata bertzearen gibeletik etorri ziren. Horrez gain, hau guziaz pandemia hasieran pasatu zen, eta horrek oraindik gehiago zaildu zuen

dena. Bartzelonara joan behar izan genuen, eta bakarrik eta haurraren biziarekin zer gertatuko zen jakin gabe hagitz ikaratuak sentitu ginen.

Geroztik zer bide egin duzue?

Bartzelonako eta Iruñeko ospitaleetan bi hilabete pasatu zituen, eta lau hilabeterekin bihotzeko ebakuntza egin behar izan zioten. Bihotza egonkortu zitzaionean, ospitalera joan-etorriak hasi ziren. Denboraldi batez, aldi berean, bederatzi espezialistekin ibili ginen. Arreta Goiztiarrean segimendua egiten ere hasi ginen, eta fisioterapia, osteopatia eta logopedia zerbitzua hartzen ere bai. Itxura guzien

kontra, oztopoak gaintzen hasi zen Uxuri, txapeldun bat balitz bezala. Urtea eginda koan, eskuineko belarrian kokleako inplantea paratzeko ebakuntza egin zioten, eta ezkerreko belarrian audifonoa paratu zioten. Bere entzumen birgaitzeko terapia zehatzekin hasi ginen eta gaur egun, horretan segitzen dugu.

Gaur egun, egunerokoan, zer martxa duzue?

Gaur-gaurkoz, bi alabak Doneztebeko eskolara joaten dira. Uxuri ikaragarri kontent joaten da, batez ere, Itziar eta Sara irakasleekin egoteko; aunitz maite ditu. Eskolan logopedia saioak hartzen ditu eta aunitz laguntzen diote. Hortik aparte, astean bi aldiz Iruñera joan behar izaten dugu, Eunate elkartera, bere inplantea birgaitzeko. Tarteka osteopatekin ere segitzen dugu eta behar dituen azterketak egitera ospitalera joaten gara.

Eunate eta Pequeña Guerrera elkarteak kideak zarete. Aurkeztuko zenituzkete elkarteak?

Bai, bi elkarteetako bazkideak gara. Eunate Nafarroako Gorren Familien Elkarte da, eta entzumen desgaitasunak dituzten familien laguntza, aholkularitza eta zerbitzuak ematen dizkie. Pequeña Guerrera elkarte, berriz, kardiopatiaren bat duten haurren familiei laguntzen dien Nafarroako elkarte da. Nahiko berria da, eta patologia hori dutenen familiei babes eta aholkularitza ematen die. Adibidez, kideren bat ospitalera baldin badago, babes eta animoak eta halako egoeratan hain garrantzitsua den informazioa ematen die familiei.

Eunateren helburuetako bat bizitzeko arlo guzietan pertsona gorren inklusioa lortzea omen da. Zein gabezia ikusten dituzue?

Batez ere gorrei laguntzeko, haiei gauzak errazteko edo haiekin komunikatzeko informazioa falta da. Eunatek, familiei aholkuak eta zerbitzuak ematez gain, ezintasun honi buruzko kontzientzia sortzen



Donezteben Eunate eta Pequeña Guerrera elkarteendako diru bilketa egin izan dute.



Iban Ezkurra eta Itxaso Mutuberria Izaro –7 urte– eta Uxuri –4 urte– alabekin. Donezteben bizi dira.

du. Oraindik lan aunitz dago egiteko.

Bertze helburuetako bat familiei babesa ematea dela aipatu duzu. Zer ematen dizue zuei elkarteak?

Zalantzak argitzeko aholkuak eta arrazoizkoagoa den prezioan logopedia zerbitzua ematen dizkigu. Eta horrez gain, pazienteei buruz solas egiteko eta sortzen ahal diren arazoak konpontzeko Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko eta Nafarroako Unibertsitatea klinikako kideekin tarteka bilerak izaten ditu.

Pequeña Guerrera elkartearen arabera, bizirik jaiotzen den ehun haurretatik bat kardiopatiaren batekin jaiotzen da, eta hori ikusaraztea eta kontzientzia hartzea beharrezkoa da...

Bai, kardiopatiak jendeak uste duena baino ohikoagoak dira gizartean. Badira segidan detektatzen dituzten kardiopatiak, eta hori da Uxuriren kasua, baina badira adinean aitzinera egin ahala detektatzen

edo agertzen diren bertze kardiopatia aunitz. Gaur egur, badira denok egiten ahal ditugun probak, denondako gomendagarriak dira, eta batez ere kirola egiten duen jendearendako.

Administrazio publikoak halako arazoaren kontra nahikoa bideratzen duela uste duzue?

Ez du nahikoa egiten, ez. Gure kasuan, Uxurik denbora eta lan aunitz eskatzen du etxean eta etxetik kanpo aitzinera egin ahal izateko. Ospitalean medikuekin hitzorduak, logopedia saioak, eta bertze hainbertze terapia. Horretarako, astero-astero hainbat egunez Iruñera joan behar izaten dugu, eta ardua hori amaren –Itxaso– gain gelditzen da. Admi-

nistrazioak ez du ez baliabide ekonomikorik ematen saio eta kontsulta pribatuarako, ez menpekotasunarekin laguntzeko deus ere. Kontuan izan behar dugu Itxasok ezin duela etxetik kanpo lanik egin haurraren egon behar duela. Laburbilduz, desgaitasuna duten pertsonak aunitzez babes gehiago behar dute.

Doneztebeko Erreka guraso elkarteak eta kirol elkarteak Eunate eta Pequeña Guerrera elkarteetara dirua bideratzeko jarduerak egin izan dituzte. Halako keinuen zenbateko garrantzia dute?

Halako keinu ttikiek jende aunitzi laguntzen diote eta gauzak errazten dituzte. Gure kasuan, gure familiarendako, keinu horiek ikaragarriak izan

ziren. Ez dugu inoiz atzendu-ko jendearen aldetik sentitu genuen maitasuna eta inplikazioa. Jende aunitzek ezagutu zituen Uxuriren eta bertze batzuen kasuak, eta ekitaldi horiei esker, Uxuriri buruz interesa agertu eta komunikazioa errazteko nola egin behar zuten galdetu ziguten. Uxurik enpatia gehiago lortu zuen eta gu harro sentitu ginen, eta elkartei laguntzeko egin zuten guziarekin eskertuak. Beti eskertuko dugu. Eta mintzatzeko aukera eman diguzuenez, urte hauetan guzietan familiak eman digun laguntza eskertzeko probestu nahi dugu. Zentzu guzietan eman digu laguntza. Amatxi Engraxiren eta Iruñeko osaba-izeben babesik gabe, Uxuri ez litzateke gaur egun dena izanen. Uxurik bihotz-ebatsi digu. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko. Lau urte hauek gogorak izan dira, baina bi altxor ditugu etxean, eta eginahal handiarekin gure altxor-rrak zaintzen segituko dugu.

«KARDIOPATIAK JENDEAK USTE DUENA BAINO OHIKOAGOAK DIRA»

«ADMINISTRAZIOAK EZ DU NAHIKOA EGITEN LAGUNTZEKO»

Gehiengoaren nahia errespetatzeko eskaria

Eskolako jardunaldi mota aukeratzeko prozesuak eztabaida sortu du. Amaiurko, Etxalarko eta Lesakako eskoletan, adibidez, familia gehienek jarraitua nahi izan dute, baina ez dute legeak ezarritako % 60 lortu. «Prozesua injustua» izan dela eta, egoera berean dauden bertze eskoletako familiekin bildu dira

G. PIKABEA

Hautsak harrotu ditu eskola jardunaldi motak arautzen dituen Nafarroako Gobernuaren azaroaren 9ko 106/2023 Foru Aginduak. Hautsak harrotu, eta zenbait kasutan, baita haserrea sortu ere. Konparazio batera, horixe da Amaiurko, Etxalarko eta Lesakako eskoletako familia aunitzengan eragin duena: «haserrea, frustrazioa eta inpotentzia». Horretaz aritu dira hiru eskola horietako zortzi guraso hauek TTIPI-TTAPAREKIN: Lesakako Irain eskolako Saioa Crespo eta Nerea Perez, Etxalarko Landagain eskolako Amaia Agirre, Ainhoa Etxeberria eta Mireia Malaxetxebarria eta Amaiurko eskolako Naroa Esteban, Bea Mujika eta Izaskun Zenoz.

Gehienek jarraitua

Nafarroako Gobernuak pandemia garaian ezarri zuen jardunaldi jarraitua, nahiz eta 2007-2008az geroztik ikastetxe batzuetan jardunaldi mota hori izan duten. Pandemiaren ondoko urteetan, legea prestatu bitartean, ikastetxe bakoitzak eta familiek jardunaldia behin-behinean aukeratu behar izan zuten eta joan den azaroan etorri zen legea, jardunaldi motak arautu dituen azaroaren 9ko 106/2023 Foru Agindua. Jardunaldi motak arautzetik haratago joan da, ordea, eta jardunaldi zatitua ezartzeko agindua ekarri du. Zatitua ez den bertzelako jardunaldia nahi izan duten ikastetxeetan botazio prozesu bat egin behar izan dute, eta prozesu hori da, hain zuzen, eztabaida sortu duena.

Izan ere, ikastetxe batzuen kasuan, familia gehienek jarraituaren aldeko botoa eman due, baina legeak exijitutako % 60ra ailegatu ez direnez, ondoko lau ikasturteetan jardunaldi zatitua izanen dute. Hori da foru agindu honen bertze puntua: prozesua hasi duten ikastetxeetan, lau ikasturtez ezin izanen dute jardunaldia aldatzeko eskatu.

Prozesuak hiru fase izan ditu: Lehenbizi, eskola kontseiluak ireki behar izan du % 25en baiezkorekin; ondotik, familien txanda izan da eta erroldatuen % 60k eman behar izan dute jarraituaren aldeko botoa; hirugarren pausuan, aitzineko biak gaudituta, eskola kontseiluan % 66k berretsi behar izan du.

Eskualdean dauden 31 ikastetxeetatik 21 dira jarraitua izanen dutenak. Eskola publi-

koak, berriz, 27 dira eta horien artean 20k jarraitua izanen dute ondoko ikasturteetan. Zatituarekin gelditu diren zazpi eskola horien artean, Arantzako, Berako eta Narbarteko eskolek aldaketarako prozesua ez hastea erabaki dute. Eta beraz, orain arte bezala, zatituarekin segituko dute. Gainerako eskola publiko guzietan hasi dute prozesua eta emaitzak honela gelditu dira: botazioa egin duten 24 ikastetxe publikoetatik 20k jardunaldi jarraitua izanen dute erroldatuen % 60 edo gehiago alde atera delako. Botazioa egin duten bertze lauk zatitua izanen dute: Igantzin gurasoen gehiengoak hala erabaki duelako, baina Amaiurren, Etxalarren eta Lesakan ez direlako erroldaren % 60ra ailegatu, nahiz eta hiru

kasuetan, erdiak baino gehiagok jarraitua aukeratu.

Amaiurren boto batengatik

Amaiurko eskolan, jarraituaren aldeko hamahiru boto izan dira eta bederatzi kontra. Bertzela erranda, % 59,09 jarraituaren alde agertu dira, ia-ia % 60, baina aldaketarako nahikoa ez. Amaiurko eskolako gurasoen hitzetan «hamalau boto behar genituen jarraitua izateko, eta boto bakarragatik zatitua izanen dugu».

Baina ordutegitik haratago, bada Amaiurko gurasoek nabarmendu duten bertze kontu bat, jardunaldi zatitua izateak ekarriko dizkien ondorioak, alegia: «Baztango herrietako eskola ttikiek elkarrekin lan egiten dute, proiektu pedagogiko bat dute elkarrekin, proiektu berdina dituzte, asteazketan Iruritan tailerrak egiten dituzte elkar ezagutzeko, irakasleak partekatzen dituzte, irteerak elkarrekin egiten dituzte...». Egoera ez dute arras arrotza: «Duela bi ikasturte, bi eskola bakarrik gelditu ginen zatituarekin, Arizkungoa eta Amaiurkoa, eta ordura arte bertze eskolekin egiten genituen hainbat jardura ezin eginez gelditu ginen. Hala ere, gutierrez, bi eskolak elkartu ziren».

Abian den ikasturte honi begira, berriz botazioa egin, eta jarraitua atera zen Amaiurren eta hala dabilta irailetik. Heldu diren ikasturteetan, ordea, berriz zatitua bueltatu beharko dute. Gurasoek aitortu dutenez, «orain dela bi urte pasatu zena ikusita, ez genuen espero. Baztango bertze eskola ttikien ordutegi diferentea dugunez, bakarrik gelditu gara. Ikusiko dugu zergertatzen den».

Etxalarren bi botorengatik

Etxalarko Landagain eskolan ere jarraitua izateko atarian gelditu dira: «34 boto jarraituaren aldekoak izan dira, eta 18 zatituaren aldekoak. Boto emaileen artean, % 65ek jarraituaren alde egin dugu, baina errolda kontuan hartzen denez



Marxo hondarrean Hezkuntza Departamentuaren aitzinean egindako elkarretaraztea.

«PROZESUA EZ DA BATERE JUSTUA IZAN, ILUNA IZAN DA»

«NAFARROAN ESKOLA PUBLIKOEN % 81EK JARRAITUA IZANEN DUTE»



Amaiurko, Etxalarko eta Lesakako gurasoak: Ainhoa Etxeberria, Saioa Crespo, Izaskun Zenoz, Bea Mujika, Amaia Agirre, Nerea Perez, Naroa Esteban eta Mireia Malaxetxebarria.

eta zazpi boto eman gabe gelditu direnez, gure portzentajea % 58ra jaitsi da, eta zatitua bueltatzera behartuak egonen gara, bi botorengatik». Gaineratu dutenez, «lau ikasturteren ondotik, berriz zatitua bueltatu beharko dugu».

Lesakan ere guttigatik

Lesakako Irain eskolan ere familia gehienak jarraituaren aldekoak izan dira; ez, ordea, aldaketa egiteko nahikoak: «Jarraituaren aldeko 55 eta kontrako 45 boto izan dira eta hiru zuri. Hau da, erroldatuen % 53,4k jarraitua nahi izan dute, baina zatitua pasatu beharko dugu». Antzeko egoeratik pasatuak dira lehen ere: «Duela bi ikasturte ere botazioa egin

genuen, eta gehienak jarraituaren aldekoak izanagatik, ez ginen % 60ra ailegatu. Badira botorik ematen ez duten familiak, eta horrek kalte egiten du».

«Prozesu iluna»

Hiru eskoletako gurasoek «prozesua ez dela justua» diote: «Nafarroan badira eskolabatzuk aspalditik, esperimendu moduan, jardunaldi jarraituan ari direnak eta % 60aren baldintza ordukoak da, orain dela 17-18 urte sortua. Ulertzekoa da zerbait berria denean eta esperientziarik ez dagoenean, babes handiagoa eskatzea. Baina geroztik egoera arrunt aldatu da. Badira 17 urtez jarraituan ari direnak, urtero aldeko txostenak eginez, gatazkak murriz-

tu direla, haurrak hobekiago daudela eta akademikoki batetik bertzerera aldaketarik ez dagoela ikusi dutenak. Eta azken lau urteotan aunitz gara jarraitua izan dugunak. Jarraituarena ez da kontu berria, eta portzentaje hori eskatzeak ez du zentzurik». Hortaz, gehiengo simplea nahikoa izatea aldarrikatzen dute, «gehiengoaren nahia errespetatzea». Erabakia lau urterako izanen dela ere kritikatu dute, «orain arte, urtero-urtero izan da aldaketa eskatzeko aukera».

Ez da hori bakarrik: «Foru Aginduan, zuzenean eskola guzietatik zatitua izatea agindu zuten, baina ordurako eskola publikoen % 84 jarraituan ari zela jakinda, ez da logikoa por-

tzentaje horrekin zatitua agintzea». Horrekin batera, «botorik eman ez dutenak zuzenean zatituaren alde kokatu» izana ez dute begi onez ikusten: «Ez dago inongo sistematik inon, ez udalean, ez gobernuan, ez inon, boto emaileen iritzia kontuan hartzen ez duenik. Eta hemen?».

Bertzelako «trabak» ere sumatutuzte bidean: «Botazioan egin zuten galdera hagitz aldrebesa izan zen, eta nahasmen horretan aunitzek ez zuten botorik eman. Horrek zatitua nahi zutela erran nahi du? Ez. Amaiurren, Etxalarren edo Lesakan elkar ezagutzen dugu, baina 300 ikasleko ikastetxeetan errealitatea hagitz diferentea da. Eskola haundi →

→ horietan kanpoko aunitz daude, hizkuntza kontrolatzen ez duten guraso aunitz eta ez-jakintasunagatik aunitzek ez dute botatu». Argi dute: «Prozesua iluna izan da eta portzentajea % 60ra ailegatzea zailteko traba aunitz paratu dituzte».

Nafarroako datuak

Edozein moduz, emaitzak jarraituaren aldekoak izan dira. «Gu gaizki gelditu gara, baina zorionez, traba guzieren gainetik, Nafarroan eskolen % 81ek jarraitua izanen dute, eurek uste baino gehiagok. Nafarroan 170 ikastetxe publiko daude, 158k eskatu genuen aldaketa, 138k mantendu dute jarraitua eta 20 zatituarekin gelditu gara. Baina lau bakarrik dira botoengatik zatitua nahi izan dutenak eta bitan erroldatuen % 40ekin lortu dute. Gainerakoak, jarraituaren aldeko gehiengoarekin, zatitua izatera behartuak gara».

Bertze datu bat ere eman dute: «Gimenok [Carlos Gimeno Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak ari dira] botazioaren harira egin zuen analisi bakarra Educak [Hezkuntza Departamentuak eskolako informazioa kudeatzeko erabiltzen duen sistema informatikoa] zein ongi funtzionatu zuen eta zenbat jendek eman zuen botoa izan da. Baina 32.559 boto posible izan dira eta 29.860k eman dute botoa (% 92). Horietatik 25.421 jardunaldi jarraituaren aldekoak izan dira, % 85,1. Errola kon-tuan hartuta, jarraituaren aldekoak % 78,08 izan dira. Datu hagit altua da. Gimeneri jorkaldia ez zaio ongi aterata».

«Bertze interesak»

Botaziorako baldintzak «bertze interesetara bideratu» izan direla ere salatu dute gurasoek, eta interes horiek zein diren galdetuta, honela erantzun dute: «Ez dira interes pedagogikoak behinik behin». Honela gaineratu dute: «Orain dela bi urte, foru agindua aterata aitzinetik, Gimeneri berak sindikatuekin eta bertze hainbat ordezkari-



Lesakako Irain eskolan egindako elkarretaratzea.

ekin bilera egin zuenean, jardunaldi jarraituaren aldeko aipuak egin zituen. Eta zer pasatu da bidean? Badakigu catering enpresa bat Hezkuntza Departamentura joan dela eta presioa sortu duela, eta badakigu garraio enpresek ere euren kexa egin dutela Hezkuntza Departamentuan. Garraioa, jangela eta haurrak balantzan paratu dituzte? Gimeneren tokian, kezkatuak egonen ginateke berak zatitua hobetsi arren, % 81ek jarraituaren segitzea erabaki dutelako. Haurren ongizate haratago doazen interesak daude».

Kontuak kontu, Gimeneri du foru agindua aldatzeko asmorik, eta halaxe berretsi zuen duela bizpahiru aste agerraldi batean, araudia «zorrotz» beteko duela erranez. Gurasoen hitzetan, «adierazpenak egitera aterata zen eta horrek erran nahi du gure protesta guziekin ezinegona behinik behin sortu diogula. Bada zerbait».

«Tentsioa» gurasoen artean

Gurasoek onartu dute gaiak «ezinegona eta tentsioa» sortu duela jardunaldi bateko eta bertze familien artean, baita «isiltasuna» ere. Amaiurkoek «haserrea» ere aipatu dute, «za-

tituaren aldeko aunitzek ondorioetan pentsatu gabe eman baitute botoa. Gure kasuan, ordutegia baino gehiago bertze eskolekin dugun proiektu pedagogikoa dago jokoan. Horretaz kontziente bazara, arrazongia, baina botoa eman ondorekin sustoa hartu dutenak ere izan dira, eta orain beranduegi da gibelera egiteko».

Horri lotuta, gobernuari «erantzukizunik hartu nahi ez

«JANGELA ETA JARDUNALDIA EZ DIRA NAHASI BEHAR»

«GAIK GURASOEN ARTEAN EZINEGONA ETA TENTSIOA SORTU DU»

«JARRAITUAK ZATITUAK BAINO ZAILTASUN GEIAGO ZERGATIK?»

izatea» leporatu diote zortzi ama hauek. «Gobernuak familiari botoa emateko aukera eman digu, baina erabakia, berak nahi dituen baldintzetan, guk hartzea nahi izan du, erantzukizunik hartu gabe. Eta honekin, gurasoek saltsa pasatu digu. Zertarako balio izan du gehiengoak jarraitua aukeratzea, hala ere, zatitua inposatu behar badigute? Injustua izan da».

Bide horretan «irakasleei hitza kendu» izana ere gaitzetsi dute: «Irakasleei edo zuzendaritzari gai honen inguruan ez posizionatzeko agindu zieten. Baina irakasleek dira gure hurrekin egoten direnak, eurek dira profesionalak. Gurasoek plataformak sortu behar izan ditugu informazioa biltzeko. Prozesuaren iluntasunaren bertze adibide bat da». Gisa berean, «eskolako organo gorena den eskola kontseilua ahotsik gabe utzi» izana ere kritikatu dute: «Ez da bidezkoa».

Zergatik jarraitua?

Hitzordura hurbildu diren zortzi gurasoak jardunaldi jarraituaren aldekoak dira, eta alde on aunitz ikusten dizkiote eredu horri: «Ordutegi aldetik haurrak eskolatik hartzeko malgutasuna; arratsaldeko orduak antolatzeko aukera handiagoa; goizago etxeratze-ko aukera; familian egoteko denbora gehiago; behar bereziak dituzten hurrek eskolan hutsik egin gabe terapiak egiteko aukera; deskantsu gehiago, gatazka guttiago...». Laburbilduz, «jarraituak haur eta familia bakoitzaren egoera pertsonalaren arabera, malgutasun gehiago» ematen duela adierazi dute, baita «arratsaldeko eskola orduak ez direla produktiboak» ere.

Gehiago ere bai: «Ez dakit eskola handi batean jardunaldi jarraitua nolako izan den, baina gure eskola titkietan jarraituaren kontra eman diren argudio aunitzek ez dute balio», aipatu dute Amaiurkoek: «Jarraituaren kontra erabilitako argudioetako bat haur titkien-



Amaiurko gurasoek eta ikasleek ere elkarretaratzea egin zuten.



Etxalarko Landagain eskolako atarian ere elkarretaratzea egin zuten.

dako sei ordu segidan egitea aunitz dela izan zen. Baina gure hurrek arras ordu guti pasatzen dituzte gelan sartuta. Ez dute inolako arazorik kanpora ateratzeko eta kanpoan buelta bat emateko, gai jakin batzuk kanpoan lantzeko, salto gela erabiltzeko... Herri ttikiak sei ordu horiek modu dinamikoan eta eramangarrian egiteko erraztasunak dituzte». Eskola handietan «diferentzia aunitzez handiagoa» dela gaineratu dute: «300 ikasleko eskoletan baz-

kaltzeko bi txanda daude, eta bazkaltzeko esperatzeko tarte horiek gatazka momentu handiak dira. Jarraituarekin gatazka pila saihesten dituzte».

Jardunaldia eta jangela «bereizi» Jangelaren gaia ere atera da mahai gainera, jarraituarekin jangela arriskuan izan daitekeenaren kontua zabaldu izan baita familien artean. Baina guraso hauen irudiko, «eskola jardunaldiarena eta jangelarena nahastu behar ez diren

bi gai dira. Nahasten saiatu dira, baina bereizi behar dira. Ezin dugu jangelaren egoeratik jardunaldia baldintzatu. Jardunaldi batek hainbetez alde ditu haurri begira, eta gai honekin irudi du atzentzen ari zaigula haurren interesak zein diren». Etxalarko kasuan, «hau gertatu edo ez, jangelaren errealitatea zaila» dela aitortu dute, eta «guraso guziak jangela mantentzeko urtero mila eta bat ekintza egiten» ari direla esplikatu dute.

Amaiurren ere «ekintza pila» egiten omen dituzte jangela mantentzeko. Eta datuak dira jangelaren harrera onaren erakusle: «bi haur baino ez dira jangelara joaten ez direnak, eta etorkizunean jangela mantenduko da, jardunaldia edozein izanda ere».

Ate joka

«Botazio justua eta demokratikoa» eskatzen dute, bertzerik ez, «zatitua edo jarraitua, bakoitza libre da zer jardunaldi nahi duen erabakitzeko, baina aukeraketa denek baldintza berdinetan egitea eskatzen dugu. Zergatik izan behar ditu jarraituak zatituak baino zailtasun gehiago?». Helburu horrekin, Nafarroako hainbat ikastetxetako familiekin biltzen hasi dira Amaiurko, Etxalarko eta Lesakako familiak: «Egoera honetan gelditu garen 18 eskoletatik 14 elkartu gara, ea zerbait mugitzen ahal den».

Dagoeneko elkarretaratzeak egin dituzte Hezkuntza Departamentuaren eta eskolen atarian, eta Maria Solana (Geroa Bai) eta Eneka Maiz (EH Bildu) parlamentariekin ere bildu dira: «Ados daude erraten dugun guziarekin». PSNko ordezkariekin ere bilera eskatu omen dute eta Arartekora ere jo dute eta «erantzunaren esperoan gaude». Sortzen Eskola Publiko Berriaren Aldeko Elkartearekin ere bildu dira eta «botazio justu bat eskatzeko idatzi bat eginen dugu elkarrekin».

Gimenoarekin bilera egiteko eskaria ere egin dute. Kontatu dutenez, «bertze bi eskoletako familiak Hezkuntza Departamentuko ordezkari batzuekin bildu dira eta jarrera aldetik izan duten erantzuna hagitz txarra izan da. Araua hori dela diote eta ez dute bertzerik aditu nahi». Gaineratu dutenez, «abokatu batekin harremanetan ere jarriak gara legalki zerbait egiten ahal dugun aztertzeko». Agerian gelditu da ez dutela geldirik egoteko asmorik; «ate joka segituko dugu injustizia hau salatuz».



**ZURE KIROL DENDA
GUSTUKOENA!**

Berrria



*Errugbia, Arte martzialak, Running, Eskalada, Txirrindularitza,
Kajak, Pilota, Futbola, Fitness eta askoz gehiago...*

BIOK ✨
OUTDOORS



DANTXARINEA - OTXONDO Jatetxearen azpian



[ventabiok.com](https://www.ventabiok.com)

KIROL MODA



‘Athleisure’: kirola eta moda bat eginda



90eko hamarkadako moda bueltatu zenetik, txandalak eguneroko arropetan nagusitu dira berriz. Dagoeneko ez da kirola egiteko bakarrik erabiltzen, lagunekin egoteko, familiarekin biltzeko eta baita lanera joateko ere erabiltzen du jendeak. Gaurko bizi estiloaren eta erritmoaren isla da txandala, egunerokoaren berehalakotasunari aurre egiteko jantzi paregabea. Baina horrek ez du erran nahi ez direnik azken joerak segitzen; *athleisure*a estiloa eta erosotasuna batzen dituen moda da.

Estilo berri hau ongi ulertzeko, kontuan hartu behar ditugu hainbat elementu. Lehenik eta behin, leggingsak edo txandal galtzak; edozein lekutara joateko aukerarik erosoena dira eta konbinatzeko errazak. Izerditzeko jertseak ere ezinbertzeko jantziak dira; kaputxarekin edo gabe, sakel haundiarekin erdian, kolore

eta estanpatu anitzekoak... denok ditugu etxean eta ezin ukatu arropa eroso eta goxoenak direnik. Kiroleko zapatilak ere egunerokora ekarri ditugu eta edozein jantzirekin erabil ditzakegu, erosotasuna eta praktikasuna nagusituz. Eta noski, hori guztia nahi ditugun gehigarriekin osatu dezakegu, baina batez ere bisera eta txanoak dira aukera popularrenak.

Oinarrizko elementuak ezagututa, gure esku dago nola konbinatu nahi dugun estilo propioa lortzeko. Izan ere, *athleisure*ak ez ditu azken joerak zorrotz segitzen. Baina kiroleko arropa erabiltzeko ez du erran nahi ezin garenik modu formalean bezituz; diseinu zainduak eta xehetasunak dituzten jantziek dotoretasuna emanen dute. Gainera, inportantea da egoera bakoltzerako arropa egokienak aukeratzen jakitea.

ALOAKIROLAK

aloakirolak@gmail.com

Altzate 22, Bera

848 85 00 26 - 615 26 28 98

301K

AITAREN HARRIAK
—
AMAREN HARRIAK

HARRI-JASOTZEKO JANTZIAK NEURRIRA

301K KAMISETAK, SUDADERAK, BIXERAK, BODIAK, POLTSAK...

ELOSEGUI

ELOSEGUI TXAPELAK

Orduetgia:
ostirak 10:00-13:30 | 17:00-20:00
larunbatak 10:30-14:00

www.301kilo.com

620 810 803

Online
Atzari

Elgoien, 2 behe 1 - LEITZA



Udako beroari aurre egiteko prest

Temperatura altuekin kirola egitea desatsegina izan daiteke; izerdia, urradurak, narritadurak... horregatik da hain garrantzitsua arropa egokiak erabiltzea. Zorionez, gure beharretara egokitzen diren oihalak aurkitzea geroz eta errazagoa da. Ezagutu nahi dituzu?

Kotoia material ona da egunerokoan jantzeko, organikoa eta leuna, baina kirola egiterakoan izerdia xurgatzen du eta blai eginda gelditzen da, pisu gehiagorekin. Hori dela eta, oihal sintetikoak aproposagoak dira; arinak dira eta larruari arnasten uzten diote, izerdia lurruntzen lagunduz. Gainera, erosoak eta iraunkorrak dira.

Poliesterra eta nylona dira oihalik erabilienak, eta material naturalak ez badira ere, geroz eta gehiago birziklatzen dira behin eta berriz erabiltzeko. Horretarako material bereko oihal zaharrak edo plastikozko botilak erabiltzen dituzte, adibidez.

Oinak ere eroso

Jantziak ez ezik, oinetako aproposak ere ezinbertzekoak dira jarduera fisikoa eroso egiteko. Kirol bakoitzak gehien egokitzen zaizkion oinetakoak ditu, baina orokorrean gomendagarriak dira zapatila transpiratzaileak, izerdia botatzeko eta hankak idorrek mantentzeko. Gainera, kirolaz harago, gaur egun egunerokoari erositasuna emateko ere erabiltzen dira zapatilak.

Eta oinetakoak bezala, galtzerdiak ere garrantzitsuak dira; oinak babestu behar dituzte edozein urraduratik, baina oinak arnasten utzi behar diote. Mendira joan behar badugu, gomendagarria da galtzerdi lodiagoak erabiltzea.

Azkenik, egun eguzkitsuetan inportantea da geure burua zaintzea eta babestea; eguzkitako betaurrekoak, biserak, krema... eta ez ahaztu beti hidratatua mantentzea!



Beola Etxea
VENTA

Ibardin gaina, 30 BERA · T. 948 630 709
www.beolaetxea.com



Udaberri-udako MODA BERRIA DAGOENEO ZURE ESKURA



ARROPA, OSAGARRI,
BITXI eta POLTSETAN
aukera zabala

LURRINDEGIAN
sekulako eskaintzak!

HAUREN ARROPA
5-16 urte bitarteko
neurriak



Vilanova
accessories

TIFFOSI

BLEND

SCORZZO




PEIO
MODE

Dantxarinean duzu surf eta hiri marken paradisu berria! Gure espazioa zabaldu dugu zure gustuko markei lekua egiteko

BILLABONG - ELEMENT - RUCA - DEUS EX MACHINA - RIP CURL - VANS - SANTA CRUZ - NEW ERA - DICKIES



www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)
Arnegui | Dantxarina | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin

VENTA PEIO
Zure arnasketa gure hoberenak
Euskal Herriko bihotzean

«Komikia bere lekua hartzen ari da gizartearen eta oso pozgarria da»

JOSEBA LARRATXE BERAZADI 'JOSEVISKY' KOMIKIGILEA

Komikialdiaren barrenean, herriko lau ikastetxeetan komikigintzari buruzko ikastaroa ematen ibili da Joseba Larratxe Berazadi. Hilaren 9an, 'Ni ez naiz Mikel Laboa' komikia aurkeztuko du

A. LARRETXE

Sortzez irundarra bada ere, harreman estua izan du betidanik Joseba Larratxe Berazadi *Josevisky* ilustratzaileak eta komikigileak Berarekin. Udalak antolatuta Komikialdia ospatzen ari dira herrian, eta eskolaz eskola aritu da hurrei eta nerabei komiki tailer bat ematen.

«Pozik» da izandako harrerarekin, eta gogoz da ikasleek egindako lanak ikusteko.

Nolakoak izan dira ikastetxeetarako bisitak?

90 minutuko saioak izan dira. Ikasleei erreminta batzuk eman dizkiet ulertu zezaten zein den komikiaren lengoia eta komikiak zein erreminta erabiltzen dituen istorioak kontatzeko. Gauza horiek esplikatuta, komikia hasten laguntzen nien. Haurrek egiten duten komikixoa kultur etxeko erakusketan erakutsiko denez, garrantzitsua zen denek formatu bera izatea. Horregatik nik eman nien haurrei hiru bineten plantilla bat eginda. Gaia libre utzi diet, eta erakusketan haurrek eta nerabeek duten imaginazioa ikusiko dugu. Oso interesgarria izango da hori.

Zergatik aukeratu duzu hori formatu hori?

Komikiak bere berezkoa daukana da sekuentzia. Komiki bat marraztearen eta sortzearen ariketan hiru binetako narrazio hori da sekuentzia baten ikuspuntutik istorio minimoa, hasiera bat, problema bat eta amaiera bat. Hiru kolpe horie-

tan sortu dezakezu istorio txiki bat, txiste bat... Askotarako ematen du, nahiz eta oso formatu txikia izan. Komikiak egiten hasteko modu bat da oso oinarritzkoa, baina era berean aukera handiak ematen dituena.

Nolakoak harrera izan dute ikastetxeetarako?

Esango nuke ona izan dela bai ikasleen aldetik, bai hezitzaileen aldetik ere. Beti saiatzen naiz horrelako tailerretan ez bakarrik gelditzen ariketa hutsean, gustatzen zait ikasleei eredu bat ematea. Tamalez, oraindik marrazkilari edo komikilariona Euskal Herrian nahiko lanbide ezeguzuna da. Gustatzen zait

esplikatzea zein izan den nire ibilbidea marrazkilari gisa ulertu dezaten profesio bat dela, ez dela afizio bat.

Harrera ona izan dutela aipatu duzu.

Harrera ona esaten nuen nire marrazkiak erakusten hasten naizelako, eta gauza arina delako. Nik egindako lanak erakustea gustatzen zait, horiek proiektatzea, eta baita zuzenean marraztea ere. Galdetzen diet ea ezagutzen duten komikirik. Hasieran ez zaie pertsonaiarik bururatzen, baina, Tintin edo Spider-man marraztu eta denek ezagutzen dituzte. Marrazkilari bat zuzenean marrazten ikustea magia gisakoa izaten

da haurrentzako eta helduentzako. Horrek engantxatzen ditu ikasleak eta irakasleak eta jokoan erraz sartzen dira.

Eskola bakoitzean komikiz betetako maleta bat ere utzi duzu. Zer harrera izan dute?

Idea polita izan da. Berako liburutegiarekin batera, komiki katalogo mardul bat osatu dute eta egin dute aukeraketa bat tailer bakoitza ematera joan naizen adin egokirako. Tailerra ematen nuen bitartean erabiltzen nituen maletako komikiak adibide bezala, esateko zer barietate dagoen, autore eta formatu aldetik. Beraien komikia egiten hastean mahai gainean izaten zituzten ereduak gisa erabiltzeko.

Haurrek komikigintzaren ezagutza badutela nabaritu duzu?

Ba, esango nuke nahiko urruti gelditzen zaiela orokorrean, nahiz eta denek irakurri duten baten bat. Ez da zaletasun bat oso orokortua. Hala ere, esango nuke azkeneko urteetan, nola gero eta euskal marrazkilari gehiago ateratzen ari garen badela interes bat geroz eta gehiago zabaltzen ari dena. Horren erakusgarri da Komikialdia bera, udala animatu izana komikiari espazio bat ematea bere egendan, eta hori

Ikasleek egindako lanak ikusteko aukera izanen da

Komikialdiaren barrenean, Joseba Larratxe Berazadi herriko ikastetxeetan komikigintzari buruzko ikastaroak egiten aritu da azken egunetan.

LH 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleekin elkartu da, eta talde bakoitzean 90 minutuko tailer bat eman du. Bertan, bere ibilbidea azaltzeaz gain, komiki bat egiten hasi dira ikasleak.

Larratxeren bisitaren ondotik, komikian lantzen aritu dira ikastetxeetan bertako irakasleekin, eta behin



Larratxe ikasleekin. UTZITAKOA

komikia bukatuta, herritarrek horiek ikusteko aukera izanen dute. Euskal Irudigileen Elkarteak paratuko erakusketarekin batera erakutsiko dituzte ikasleen marrazkiak.

Erakusketa Kultur Etxean paratu dute ikusgai, eta maiatzaren 10ean eta 17an 16:30etik 18:30era eta 11n eta 18an 11:00etatik 13:00etara ikusteko aukera izanen da, doan.

Maiatzaren 9an, gainera, *Ni ez naiz Mikel Laboa* komikia aurkeztuko du Larretxek herritarren aitzinean. 18:30ean Beralandeta aretoan egin dute hitzordua. Aurkezpenaren musikak doinuak ere aditzeko aukera izanen da; Petti eta Estitxu Pinatxo abeslari herritarrak ariko dira kantuan.

zerbaiten seinalea bada. Esango nuke ari dela komikia gure gizartean bere lekua hartzen eta hori oso pozgarria da.

Garrantzitsuak dira beraz Berakoa bezalako ekimenek?

Bai, dudarik gabe, niretzako eta sektore osoarentzako. Ez gara asko, baina bagara talde txo bat eta horrelako ekimenek ematen digute arnasa eta ematen digute tartea lan egiteko eta lana ezagutarazteko. Oso eskertuta nago alde horretatik.

Azken aldian indartzen ari den sektorea dela erranen zenuke?

Azkeneko bost urteetan gertatu da euskal komikigintzaren boom moduko bat. 80ko hamarkadaren bueltan euskal komikiak bizi izan zuen momentu nahiko on bat, *Ipurbeltz*, *Napartheid* eta horrelako fanzineek eta aldizkariak mugimendu handia sortzen zuten. Hurrengo hamarkadan, bolada txarrago bat egon zen ez dakit oso ondo zergatik, eta azkenengo 10-15 urteetan pixkanaka gorakada bat ikusi da. Atera ziren Xabiroi bezalako aldizkariak eta azken bost urteetan leherketa moduko bat gertatu da. Urtetik urtera euskaraz egindako komikien kopurua bikoiztu egin da. Duela urte batzuk urtean 10 komikitik, gaur egun, urtean euskaraz 100 komiki kaleratzera pasa gara.

Eztanda hori zeren ondorioz gertatu da?

Alde batetik Xabiroi komiki aldizkariaren urteetako lanari esker, eta bereziki Dani Fano koordinatzaileak egiten duen lanari esker. Horrek lagundu du sortzen inguruko marrazkilarien sektoretxo bat eta gure artean ezagutu eta saretzen lagundu duena. Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak komikiak argitaratzeko beka batzuk kaleratu ditu, eta horiek lagundu dute urteak tiraderan pasatu duten komiki pila bat tiraderatik atera eta marrazten. Loraldi gisako bat sortu da, eta jendeak gure komiki hauek oso esker onez hartu ditu.

Loraldiaren barrenean kokatzen ahal da Komikialdian aurkeztuko



Ikasleekin egindako saioetan komikigile gisa egindako bidez mintzatu da Larratxe. UTZITAKOIA

duzun 'Ni ez naiz Mikel Laboa' komikia. Euskadi Saria irabazteaz gain, gaztelaniara eta katalanera ere itzuli dute lana. Nola etorri ziztaizun proposamena?

Idazleeta batek, Unai Iturriagak, proposatu zidan komikia marrazteko. Berari enkargua egin zioten Mikel Laboa katedraoek, eta Harkaitz Cano eta ni proposatu gintuen berarekin lanean aritzeko. Niretzako izugarritzko poza izan zen.

Mikel Laboaren zalea zara.

Bai, oso zalea. Txikitangurasoek kotxean jartzen zituzten bere kaseteak, eta bizitza osoan aritu naiz entzuten, eta konturatzen nola niri gustatzen ziztaizkidan rock taldeek egiten zituzten bere bertsiok, eta berriro deskubritzen. Proposatu zidanean garbi nuen egin nahi nuela.

Nolako izan zen komikia marrazteko prozesua?

Katedrari bururatu ziztaionetik bukatu genuen arte 4 urte pasa ziren. Behin idazten hasi zirenean, nik marrazten pare

bat urte pasa nituen, ia esklusiboki lanean horretan.

Arraroa da bi urtez marrazteko aukera izatea ekonomikoki.

Bai, dudarik gabe. Gertatzen da sarritan komikilari batzuk izaten dutela pasio proiektu bat eta pasa ditzaketeeela bost urte komiki bat marrazten euren denbora librean. Baina hori ez da modua. Kasu honetan zorteko egon gara, lortu dugulako katedrak modu ekonomiko duinak jartzea, baita Jaurlaritzaren diru laguntzak lortzea, eta modu duin batean finantzatu ahal izan dugu. Nik uste dut euskaldunok merezi dugula horrelako figura bati buruz egindako komiki bat modu duin batean egin.

Zer eman dizu komikia egiteak?

«EUSKARAZKO 100 KOMIKI ARGITARATZEN DIRA URTEAN»

Hasteko, Harkaitzekin eta Unairekin lan egin ahal izatea. Berarekin lan egin ahal izatea oso aberasgarria izan da, pila bat ikasi dut, eta esan dezaket orain bilagun gehiago ditudala. Beste alde batetik eman dit aukera sentitzeko egin dudala lan bat euskal kulturari harri ttiki bat gehitu diona. Izan da aukera bat Laboaz berriro hitz egiteko, bere figura berriro jartzeko mahai gainean eta iruditzen zait horrelakoak behar ditugula. Memoria ariketa bat izan da, ez bakarrik Laboaz, Ez dok Amairuz... gauza askoz hitz egiten duen komikia da.

Nolako aurkezpena izanen da?

Ari gara begiratzen ea musika pixka batekin jantzi dezakegun. Horretaz gain, jendeak ikusten ahalko ditu komikiaren barrunbeak. Hori gustatzen zait erakustea aurkezpenean; erakusten ditut bozetoak, dokumentazioa, argazkiak... Normalean komikietan ikusten ez den alde da, pelikula baten *making off*-a ikustearen gisakoa.

'Berako Oihua' aldizkariaren azal lehiaketa martxan

Hilaren 31n bukatuko da azalak bidaltzeko epea. Aldizkarirako artikulua, aldiz, ekainaren 7rako bidali beharko dira

A. LARRETxea

Abuztuan izanen dira herriko bestak, eta Kultura Batzordeak *Berako Oihua* aldizkariaren azal lehiaketa antolatu du. Aurkeztutako lanek bestetako giroa islatu beharko dute, eta azalean *Berako Bestak 2024* testua bakarrik agertu beharko da nahitaez. Egile bakoitzak nahi adina lan aurkezten ahalko ditu.

Lanak maiatzaren 31ko 13:30ak baino lehen aurkeztu beharko dira herriko etxeko bulegoan. Aurkeztutako lanaren gibelean goitizen bat ba-



Dantzariak abuztuaren 3an.

karririk paratu beharko da eta aparteko gutun-azal batean erantsiko dira egilearen datuak, kanpoko aldean goitizena paratuz. Gutun-azalaren barrenean datu hauek agertu beharko dira derrigorrez: izen-abizenak, adina, helbidea (karrika, etorbidea, plaza, etab. zenbakia eta solairua; posta kodea, herria eta probintzia), telefonoa eta posta elektronikoa.

Aurkeztutako argazkiak edo irudiak kolorezkoak izanen dira. Lanak paperean aurkeztu beharko dira, eta 18x27 zentimetroko formatu bertikalean, euskarri gogor batean eta egoki paketatuta.

Estiloari dagokionez, teknika librea izanen da. Lanek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute, ezin dira izan bertze lehiaketetan aurkeztutako lanak ez eta bertze lan batzuen kopia edo plagioak, ezta bertze artista batenak ere.

Irabazlea Bera Hurbil aplikazioaren bidez egindako herri bozketaren bidez erabakiko da eta 400 euroko diru saria hartuko du.

'Berako Oihua' aldizkari lanen bidalketa

Programa *Berako Oihua* aldizkariarekin batera banatzen du udalak, eta bertara lanak aurkezteko epea ere ireki du. Ekainaren 7ra arte bidaltzen ahal dira artikulua kultura@bera.eus helbidera. Kultur Etxera eramateko aukera ere izanen da, baina, ahal dela, lanak formatu digitalean eramateko eskatu dute.

Aurkeztutako lanak Berari buruzkoak izan beharko dira eta gehienez ere DIN A4 formatuko bi orrialdeko luzera izaten ahal dute. Euskaraz zein gaztelaniaz bidaltzen ahal dira, nahiz eta euskarazkoek lehen-tasuna izanen duten. Antolatuzaileek euskaratzeko eskubidea izanen dute, gainera.

'Mejor muerto' liburua aurkeztu dute liburutegian

Susana Rodriguez Lezaun idazlea liburutegian izan zen apirilaren 21ean *Mejor muerto* liburua aurkezten. Ortzira-lean, berriz, Rosa Diez Urrastarazu bertaratuko da *Deja de escribir al tiempo* liburua aurkeztera. 18:00etan izanen da liburutegian.



Susana Rodriguez Lezaun. UTZITAKOAK

Ekoizleen merkatua eta mutxikoak hilaren 11n

Maiatzaren 11, larunbata, bertako ekoizleen merkatua egingen dute goizean Beralandeta kanpoaldean. 10:30ean hasi eta 13:30ak arte egonen dira ekoizleak beren produktuk saltzen. Arratsaldean, aldiz, mutxikoak dantzatzeko aukera izanen da Toki Ona estalpean 18:30ean.

Josette Dacostaren lanak Telletxean eta Areto Nagusian

Labiaga ikastolak Josette Dacosta artista garaztarraren erakusketa antolatu du. Lanak Areto Nagusian zein Telletxean etxean paratu dituzte. Areto Nagusia ekainaren 2ra arte irekiko dute asteburuetan, eta Telletxea hilaren 11n eta 12an. Biak 16:00etatik 20:00etara

Zelain JATETXEA RESTAURANTE
Eramateko janaria astelehenetik ortziralerara
Zelain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zelain.info

Alberto RETEGI
abokatuak
948 630 763 · Alizate, 17 · BERA

Ansona ostatu · jatetxea
T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 BERA

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

Mikel Tabernak pastoral bat idatzi du lehenengoz

'Julia Fernandez Zabaleta pastorala. Emakume antzindariak' izeneko pastorala idatzi du. Iruñean jokatu dute maiatzean

A. LARRETxea

Julia Fernandez Zabaleta maistrari buruzko pastorala jokatu dute Iruñean maiatzaren 4an eta 12an. Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak antolatu du, eta Iruñean bizi den Mikel Taberna idazle beratarra arduratu da testua idazteaz.

Lehen aldikoz aritu da Taberna langintza horretan, eta aurkezpenean kontatu zuenez, «idazten eta dokumentatzen» aritu dira aldi berean: «Bi urte eman ditugu murgilduak beste mundu batean; jauzi egin dugu beste garai batera, bila-

tzen eta biltzen». Lana sortzeko Fernandez Zabaleta ezagutu zuten zenbait lagunekin mintzatu dira antolatuzaileak, batik bat ikasle izan zituen batzuekin, eta, Tabernaren erranetan, «hungarria» izan da.

Pastorala Iruñeko Alde Zaharrean dagoen San Frantzisko eskolako patioan emanen dute, —han aritu zen lanean maistrari—, maiatzaren 4an 17:00etan eta 12an, 11:00etan. Zaldiko Maldikoko kideak ariko dira arizale eta musikari lanetan.

Euri uren eta ur beltzen sareak hobetzeko lanak Ibardinen

A. LARRETxea

Euri uren eta ur beltzen sareak hobetzeko eta birgaitzeko lanak hasi dituzte Ibardinen. Lan horiek bukatzean, zoladura berritzeko lanak egingen dituzte. Ibardingo Merkatarien Elkarteak sustatu ditu lanak, eta udala ari da zuzentze eta gainbegiratze lanak egiten.

Obrak egiteko epea hiru hilabetekoa izanen da, eta lanen kostua 531.441,64 eurokoa.

Egungo egoera ikusita, «ezinbertzekoa» zen ur beltzen eta euri-uren emariak modu eraginkorrean bereizteko lanak egitea. Sarearen egoera aztertzeko, kalkulu hidraulikoa egin dute, eta kolektoreak eta hartuneak bideo kamera bidez ikuskatu dituzte. Azterketa eginda,



Ibardingo lanak. UTZITAKOIA

hiru jarduketara egingen dituzte.

Alde batetik, egoera txarrean dauden kolektoreak berritu egingen dituzte; bertetik, egoera onean dauden, baina moldaketaren bat behar duten kolektoreak konponduko dituzte, eta azkenik, kolpe bereizgailuak berrituko dituzte. Gailu horiekin, ostalaritza instalazioetatik ur beltzen sarera doazen koipeak bereiziko dituzte.



A. LARRETxea

23 herritarrek bukatu dute Maratoi Erdia

Apirilaren 14an egin zuten Berako Mendi Maratoi Erdiko 18. edizioa. 464 lasterkari ailegatu ziren helmugara, horietatik 23 beratarrak. Lehenengoz herritar bat izan zen irabazle emakumezkoetan: Maddalen Jimenez Andres. Irudian, lasterketa egin zuten beratarretako batzuk. Xehetasunak 61. orrian.

Auzolanean aritu dira Zalaingo bizilagunak

Zalain auzoko bizilagunak auzolanean aritu dira Altun bordarako bideko kunetak eta ubideak garbitu, eta hormigoiz betetzeko. Auzotar talde «politita» bildu zen lanerako eta giro ederrean aritu ziren lanean, udalak emandako makineriarekin. Etorkizunean ere, udalak auzolan gehiago sustatzeko asmoa adierazi du.



UTZITAKOIA

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
 Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
 info@tabernaedariak.eus
 www.tabernaedariak.eus

Udal Plan Orokorra berritzeko hitzarmena sinatua

Apirilaren 22an sinatu zuten Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamentuko zuzendari nagusiak eta herriko alkateak

AITOR AROTZENA

Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamentuko zuzendari nagusia den José Antonio Marcén eta Ladis Satrustegi alkateak Lesakako Udal Plan Orokorra (UPO) berritzeko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten apirilaren 22an. Hirigintza plana 1999koa da, eta erabat zaharkituta gelditu dela kontuan harturik, egungo behar eta errealitateak egokitzeko araudia martxan paratuko da. Plan hau garatzean lurralde-okupazioaren estrategia eta eredu bat definitu nahi da, udalerrria modu jasangarrian garatzeko eta herritarren bizikidetasuna hobetzeko.

Kultur ondareari dagokionez, babes berezia behar duen ondare higiezina identifikatuko du, eta ondare horren inbentarioa eta katalogoa jasoko ditu: Bidasoko bide berdea eta Agiñako monumentu megalitikoak.

UPOan landa-lurzorutik igarotzen diren ibilbideak, bidexkak edo oinezkoentzako bideak sartuko dira, naturaren aldetik interesa badute edota irisgarritasuneko udal-sare bat osatzeko egokiak badira: Bidasoko bide berdea, Euro-Velo 1 ibilbidea, GR-11, Trekking Bidasoa GRa eta abar.

Onin errekararen uholde-arriskua aztertuko du, batez ere herrigunean, Landazelaian eta Otsangon eta erreka ertzeko pasealekuan egin daitezkeen hobekuntzak aztertuko ditu, Otsango eta Biurrana oinezkoentzako lotzeko helburuarekin. Landazelaiko eremua berrantolatuko beharko du, uholde-arriskua egokitzeko eta arrisku hori murrizteko asmoz.

Fabrikako pabiloiei eta saihebidari erantzuna

Arcelor-Mittal pabiloi industrialean jarduteko eta zati bat berreskuratu eta bertze erabilerak izateko aukerak aztertuko ditu. NA-4001 saihebidearen garapenari eta loturari (gaur egun fabrika bukatzen da) erantzuna emanen zaio, Biurrana aldean NA-4000 errepedarekin lotu eta Nabazerako sarbidea hobetzeko.

Hirigune historikoa mugatu beharko du, Intereseko Eraikinen Katalogoa berrikusi, eta lehenetsunez birgaitu beharreko area bat mugatu eta hari dagokion udal ordenantza onetsi, katalogatutako eraikinak birgaitzea sustatzeko. Merkataritza erakartzeko eta antolatzeke planaren irizpideak ere txertatu beharko ditu. Herrigunean aparkaleku-plazak ezartzeko beharrari erantzun beharko dio, eta aparkaleku-plaza publiko gehiago ezartzeko berrantolaketa eta aurreikuspena egingen ditu.

Alkaiagako Karrika Nagusiarren eta Erdiko Karrikaren bide-egoera konpondu beharko du, eta NA-4000 errepedea oinezkoentzako moldatu, Albistur, hirigunea eta Otsango oinezkoentzako espazioak berrantolatu eta Zambraren egoerari erantzuna emanen dio, baita osasun-etxea handitzeko beharrari ere.

OTSANGO ETA BIURRANA OINEZKOENDAKO LOTU NAHI DITU



AITOR AROTZENA

Ikastolaren 50. urteurreneko bigarrena

Tantirumairu ikastolak 50. urteurreneko bigarren ospakizun jendetsua egin zuen apirilaren 13an, *Eta elkartuko gara berrir* goiburupean. Otxogorrietik plazarako ibilbidea egin zuten, ikasle ohien protagonismo bereziarekin, bakoitza bere arlotik (musika, antzerkia, bertsoak, dantza...).



AITOR AROTZENA

Beti Gazte sokatira taldeari udal harrera

Munduko sokatira txapelketa irabazi zuenetik bi hilabetera, Beti Gazte sokatira taldeari harrera ofiziala egin zion Herriko Etxeak apirilaren 11n. Emakume kirolarien lana eta duela 25 urte lehen urrezko domina irabazi zutenetik gaur egun arteko zubi-lana egin duten tiralariak eskertu zituen udalak.

Palestinako genozidioa hizpide maiatzaren 10ean

Genozidioa Palestinan, gatazkaren gakoak hitzaldia emanen du Lidon Soriano ekintzaileak gaztelaniaz maiatzaren 10ean, ortziralean 18:30ean hasita, udal batzar aretoan. Yala Nafarroa Palestinarekin plataformak antolatu du, Udalaren laguntzarekin.

Salva Yanciren oroimenez martxa zikloturista

Salvador Yanci zenaren omenegiz zortzigarren martxa zikloturista antolatu du Beti Gazte maiatzaren 19an. Izena ematea online egin behar da (*kronoak.com*). Igandean 08:30ean abiatuko dira plazartik. 118,26 km luze eta 1.473 metroko desnibela duen ibilbidea da.

«Lesakako erdigunea Okurunbeko bidean dago, Zala auzoan»

JOSE IGNACIO MURUA ELIZONDO TOPOGRAFO ETA IRAKASLE ERRETIRATUA

Topografoa eta irakaslea izan da lanbidez, eta behin erretiratutakoan, herriz herri erdigune geografikoak kalkulatzeko. Lesakan bizi da orain eta hemen ere markatu du erdigunea

AITOR AROTZENA LESAKA

Jose Ignazio Murua Elizondo (Errenteria, 1947). Pasai San Pedron eta Sunbillan bizi ondok, Lesakan bizi da orain. Ongi laketu du herrian eta zahar etxean musika jotzen edo laguntzen ikus dezakegu noiznahi, baita zenbait boluntario lanetan ere. Topografo jubilatua Lesakako erdigune geografikoa non dagoen kalkulatu du, eta marka bat jarri du lurtean. Gipuzkoako herri guztietako erdiguneak non dauden ere zehaztua du, baita herrialdeetako hiriburu-erretakoak ere. Gure inguruan Baztan, Doneztebe, Sunbilla edo Arantzakoak ere markatuak ditu. Afizioa Felix Isasari zor diola aipatu digu Muruak. Hark kalkulatu omen zuen Euskal Herriko erdigune geografikoa (Andia mendilerroan), baita Gipuzkoakoa ere (Bidania). «Lagun-minak ginen, eta hil zenean, handik denbora batera pentsatu nuen neuk ere kalkulu horiek egitea, herriz herri eta horretan nabil. Inguru honetan herri gehiagotakoak ere kalkulatuak ditut, baina markatzea falta eta poliki-poliki osatzen joan nahi nuke. Norberak dakienaren zerbait utzi behar dio ondorengoei, joaten garenako eta hau da nire aportazio txikia».

Zertarako balio du Greenwich meridianoa edo Ekuatorea non dagoen zehazteak? Azken finean, mapa gaineko lerroak bertzerik ez dira, nolabait Lu-



Muruak erakutsi digu Lesakako erdigune geografikoa non dagoen. A. AROTZENA

rra neurtu, mugatu edo zatitzen dutenak paper gainean. Herri bateko erdigune geografikoa non dagoen zehazteak ere ez du balio praktikorik, baina Muruaren ustez, «erdigune geografikoan herri bateko indar guztiak elkartzen dira, herriaren ardatza da, herriaren bihotza. Niretzat badu garrantzia herri batek jakitea non dagoen bere benetako erdigunea, eta beti pentsatu izan dut idazlea banintz puntu horretara joango nintzatekeela idaztera, eta han aurkeztuko nukeela liburua ere. Izan ere, puntu horrek leku guztiak ditu konpentsatuak. Hau da herri baten errotazio-ardatza».

Hori bai, hainbat herri eta hirietako erdigune geografi-

koak kalkulatu, «bakar bat ere ez dut herrigunean kokatu», dio: «Arantzan, adibidez, Aientsa auzoan dago, Arantza hoteletik hurbil». Lesakan ere, ez pentsatu plaza inguruan dagoenik, «Zala auzoan dago, Otxotenea eta Otxuneko Borda baserrietatik hurbil, Okurunbeko bidean».

«Grabitate erdigunea»

Muruak azaldu digunez, erdigune geografikoa «grabitate

«ERDIGUNE GEOGRAFIKOA HERRIAREN ARDATZA DA»

erdigunea da, baina bolumenean izan beharrean, azaleran da, planimetrikoa da». Eta hori kalkulatzeko «herriaren mapa aurrean dugula, laukiak edo hirukiak bezalako figura erregularretan zatitzen da, eta ertz batean puntu zehatz bat markatzen da koordenatua eta guzti, hortik abiatzeko». Ondoren hainbat biderketa, batuketa eta zatiketa egiten ditu, eta emaitza, erdigunea adierazten duten koordenatuak dira. GPSa hartzen du gero, koordenatuak lurtean kokatzeko. «Askotan lursail partikularretan daude, edo irisgarriak ez diren lekuetan... orduan inguruan markatzen ditugu». Izan ere, helburua ez da zehazki adieraztea herri bakoitzeko erdigunea non dagoen, baizik eta gutti goiti-beheiti non dagoen jakinaraztea. Horixe gertatu da Lesakakoarekin, koordenatu zehatzak Okurunbeko bidearen behe-itiko aldean baitaude, toki malkartsu batean. Horregatik goitixeago mugitu du erdigunea adierazten duen seinalea (erdigune egokia), bide bazterrean, guztientzat irisgarria den leku batera. Izan ere, «Lesakak 55 km² ditu eta metro gutxi batzuen gorabeherak ez du garrantzirik».

Lesakako erdigune geografikoa latitudeko 43° 15' 29,67" N eta longitudeko 1° 44' 14,16" W koordenatuetan dago (Muruaren erranetan, «erabilia-goak» diren UTM koordenatuetan: 30. husoan, x=602.492, y= 4.790.267, z=230 m.) eta lurtean jarritako burdinezko hodi xume batek adierazten du leku zehatza. «Datu horiek jakinik, munduko edozein pertsona irits daiteke», dio.

Zenbait herritan, Oiartzunen edo Errenterian erraterako, berak jarritako hodi horretaz gain, udalek halako plaka edo oroitarriraparatu dute. Lesakan ere horrelako zerbait egitea gustatu litzaioke, «herritarrek jakin dezaten non dagoen, herritik oinez joateko ere txango polita da».



Osasun zentroko eta kiroldegiko ordezkariak, alkatearekin. UTZITAKOA

Kirol errejeta abian udalaren eta osasun zentroaren eskutik

Osasun zentroko medikuek kirol-errezeta agindu eta kiroldegian jarduera fisiko egokitua paratuko diete gaixoei

A. AROTZENA

Lesakako Udalak eta Lesakako Osasun Guneak hitzarmena sinatu dute maiatzaren 2tik aitzinera Lesakako udal kirol instalazioan Kirol Errezeta jarduera fisikoa eta osasuna agintzeko programa martxan jartzeko.

Bizi-ohiturak, fisikoaketa/edo elikadurakoak hobetu nahi dituzten gaixoei zuzenduta dago programa. Pertsona horiek kontsultara joan eta medikuak kirol-errezeta aginduko die. Pazientea udaleko kirol-instalaziora joanen da prestatzaile fisikoek astean

gutxienez bi egunetan eta hamar hilabetez egin beharreko jarduera fisikora bidal diezaion. Programaren helburua da pazienteak kirola egitera motibatzea, ohitura osasungarri gisa, gaixotasuna edo medikuarengana joateko patologia hobetzeko, edo osasun baldintzak hobetzeko, gaixotasunik izan ez arren.

Lesakako Udalaren programa komunitario bat da, bonu sozialeko prezioekin eta osasunaren sustapenaren eta prebentzioaren alde, baita zahartze aktiboaren sustapenaren alde ere.

Sanferminetako kartel eta programaren azal lehiaketarako lanak aurkez daitezke

Sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du udalak, herrian sortu edota bertan bizi direnentzat. Lanak udal bulegoetan aurkezteko epea maiatzaren 17ko 13:00etan bukatuko da, lehiaketa haue-

tan ohikoa den sistema erabiliz.

Aurten ere azalaren neurria 210x210 mm-koa izanen da osotara (3 mm-ko tartearekin). Kartela DINA2 neurrikoa (420x594 mm-koa) izanen da. Derrigorrez, *Lesaka 2024ko Sanferminak* agertu beharko



AMAIA LEIZA

Tantirumairuko helduen saio ikusgarria

Tantirumairu euskal folklore taldeko helduek dantza emanaldi ikusgarria eskaini zuten apirilaren 20an. Lehenik plazan erromeria giroko saio polita egin zuten, hiru taldetan banatuak eta gero dantza-poteoa egin zuten ostaturaz ostatu, dantzariak eta herritarrak, txistularien laguntzarekin.

du bietan. Kartel nahiz azal lehiaketen irabazleek 250 euroko saria izanen dute eta biak argitaratuko dira.

Bertze aldetik, programaren gibelesko azala aukeratzeko, Lesakan jaio edo bertan erroldatuak dauden 6 urtetik 12ra bitarteko haurrei zuzendutako portada lehiaketa ere deitu du udalak. Hauen lanak ere (210x210 mm-ko formatuan) maiatzaren 17rako aurkeztu

beharko dira udal bulegoetan. Irabazlearendako saria, Lesakako dendetan eskolako materiala erosteko 100 euroko balioa duen saria izanen da.

Herri bozketa

Aurkezten diren lan guztiekin erakusketa osatuko da eta, azken urteetako ohiturari eutsiz, egun horietan herritarrek ematen duten botoekin erabakiko dira irabazleak.

XXXI. gasna lehiaketa antolatu du Altxata elkarteak

Ekainaren 2an egingen da baina kezka puntua ere azaldu dute, urtetik urtera gasna gutiago aurkezten baitira

IRUNE ELIZAGOIEN

Ekainaren lehenengo asteburuan ospatuko da XXXI. Gasna feria, eta asteburuari izena ematen dion gasna lehiaketak ez du hutsik egingen aurten ere. Ekainaren 2an, igande goizean XXXI. Altxata gasna lehiaketa antolatuko da eta inguruko gasna egileek beraien gasna aurkezteko aukera izanen dute. Kezka puntua nabaria da antolatzaileen artean, urtetik urtera gasna gutiago aurkezten baitira lehiaketara.

Sari hobekak

Aurtengoan gasna egileak lehiaketara animatzeko ahalgin berezia egingen du Altxata kirol eta kultur elkarteak, banatuko diren sariak ere hobetuz. Parte hartu nahi duenarentzat hauek dira lehiaketaren oinarriak:

Bortzirriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Leitzaldean bizi diren artzain edo gasna egileak parte har dezakete. Ardi latxaren esne gordinarekin egindako gasna txapelketa da. Lehiaketarako gasnak gutienez 60 egunez onduak izan behar dute. Egile bakoitzak gasna bakarra aurkez dezake eta 20 euro ordainduko zaizkio horren truke. Gasnak ekainaren 2an, igandean 10:00etatik 11:00etara ekarri beharko dira Etxalarko frontoira eta sariak izanen dira gasna onenentzat. Gasnak, lehiaketa honen antolatzaileen eskutan geldituko dira.

Informazio gehiagorako posta elektronikoa idatz daiteke alxtata@gmail.com helbide elektronikora edo 688 73 04 38 telefonora deitu.



ARANTXA BIZENTE

San Migelen etorrera

Apirilaren 20an, bertze urte batez, Aralarko San Migelek bisita egin zuen Etxalarrera. Igande eguerdian egin beharrean, larunbat ilunabarrean egin zen asteburu horretako elizkizuna. Hurrengo urtera arte agurtu ondotik, bere ibilbidea segitu zuen San Migelek Lesakara.



Trikitilariak Iruñeko Herriko Etxeko plazan. EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA

Etxalarko trikitilariak Euskal Herriko Trikitixa Egunean parte hartu dute

I. ELIZAGOIEN

Apirilaren 13an ospatu zen Euskal Herriko Trikitixa eguna Iruñean. 600-700 trikitilari eta panderojoleen bilkura erraldoi honen parte izan ziren etxalartarrak ere, Arantza, Igantzi eta Lesakakoekin batera. Goizetik autobusean joan eta Txantreako kaleetan kalejiran ibili ondotik, bertako kontzertuaz gozatu eta bazkaldu egin zuten. Arratsaldean Tren geltoki zaharretik Udalteko plazaraino kalejira erraldoia izan zen eta taldeko argazkia aterata, 19:00ak aldean bukatu zen besta.



Etxalartarrak eta lesakarrak Iruñean.



VIAJAR

Apirilean bidaiatzeko herririk politena

Viajar aldizkariaren arabera, apirilean bidaiatzeko Nafarroako herririk politena Etxalar da. Gastronomía, historia eta naturaz gain, herriko arkitekturak eta etxeen zainketak edonoren arreta bereganatzen duela azaltzen da, baita hiru fasetan eraikitako Andre Mari elizak ere.



32 eta 25 kilometroko ibilbideak izanen dituzte aukeran. ARTXIBOKOA

Larunbateko Etxalarko hirugarren BTT ibilaldirako prest

170 txirrindulazalek baino gehiagok eman dute izena eta 32 eta 25 kilometroko ibilbideak izanen dituzte aukeran

IRUNE ELIZAGOIEN

Maiatzaren 3an, ortziralean 18:00etatik 20:00etara eta maiatzaren 4an, larunbatean 07:00etatik 08:30era dortsalak hartzeko aukera izanen dute Etxalarko III. BTT ibilaldian izena eman duten txirrindulariek. Lizentzien aurkezpena federatuen kasuan bakarrik egingen da.

Maiatzaren 4an, larunbatean 09:00etan emanen zaio hasiera probari. 170 txirrindularik baino gehiagok eman dute izena eta bi ibilbide izanen dituzte aukeran; 32 kilometrokoa 1.300 metroko desni-

belarekin edo 25 kilometrokoa 800 metroko desnibelarekin. Kirolariek ibilbideak bukatzen dituztenean, azkeneko mokadua egiteko aukera izanen dute plazan eta zozketak ere izanen dira.

2024ko ibilgailuen zerga

Etxalarko Udalak herriko bizilagunei adierazi die, datozen egunetan 2024ko ibilgailuen zerga kobratuko duela. Kontua helbideratua ez dutenek Etxalarko Udalak dituen kontuetan ordaintzen ahalko dute. Maiatzaren 3a arte izanen da ordaintzeko epea.



LAURA ELIZAGOIEN

Lagun ezkutuaren amaiera

58 lagunren parte hartzearekin, arrakastaz bukatu da herri mailako lagun ezkutua. Apirilaren 23an, Nazioarteko liburuaren Egunarekin batera, parte hartzaileak Kultur Etxera gerturatu dira, bakoitza bere liburua jasotzera. Haurrak izan dira parte-hartzaileen erdiak eta 25 lagun inguru helduak.

Usoa Kooperatiba 50. urteurrena prestatzen ari da

Apirilaren 13an egin zen Usoa kooperatibako urteko batzarra. Kooperatibaren 50. urteurrena da aurten eta maiatz aldean egingen den ospakizuneko prestatetekin hasiak dira. Junta berritzea ere tokatu zen. Hainbertze urtetan egondako Gabriel Errandonea eta Lesakako Esteban Etxepeteleku atera ziren eta orain sartu beharreko bien bila dabil elkarteak. Ez da erraza izaten. Arrunt aldatu da bizimodua eta baserri giroa eta behar berrietara egokitu beharra sumatzen da.

Larraburua elkarteak ere egin du urteko batzarra

Larraburua Elkarteak urteko batzarra egin zuen apirilaren 13an. Iazko kontuak eta aurtengo egitasmoak aurkezteaz gain, merienda egin zuten. Apirilaren 24an etiketak irakurtzen ikasteko ikastaroa izan zuten Ixiar Anduezenaren eskuetik. Maiatzaren 8an, 15ean, 22an eta 29an Mertxe Ibarak gidatutako tailerra izanen dute, ikusmena zaintzeko eta hobetzeko. Ordu eta erdiko saioak izanen dira eta izena eman behar da 623 15 34 38 telefonoan (bazkideek 45 euro, bazkide ez direnek 70 euro).

EDERKI tailerra

CITROËN ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

JASONE-GOXOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786 · Alizate, 21 · BERA

Arduro

arropa-denda
etxeko osagarriak | lantzeria

Alizate, 30 BERA T. 948 630 136

ELUTSA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENUAK

PINTXOAK - BOKATZARAZIOAK

Anduezteta, 13 - ETXALAR

T. 948 635 191



ATE IREKIAK

Maiatzak 8, 17:30ean
INFORMAZIO GEHIAGO



AURREMATRIKULA

Maiatzaren 6tik - 24ra (biak barne)

OHAR GARRANTZITSUA:

Izen-ematea ezinbestekoa da uztailean matrikulatu ahal izateko

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK
- INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK
- INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA
- MEKANIZAZIOA
- MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK
- MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA
- TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA-SISTEMAK
- DISEINU ETA ALTZARIGINTZA
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA

ESPEZIALIZAZIO-KURTSOAK

- 5G SAREEN INPLEMENTAZIOA (Erdi Mailakoa)
- DRONEAK-URRUNETIK GIDATUTAKO AIREONTZIAK (Goi Mailakoa)

Anddo mendiaren birlandaketa lanak bukatu ditu udalak

30.000 landare inguru landatu dituzte 33 hektareatan, osorik laguntzekin finantziatu den 164.062 euroko kostuarekin

ANA ETA ITZIAR

2018an intsinis pinuak pairatu zuen gaitzaren eraginez, Anddo mendiko landaketaren %50 bota behar izan zuen udalak. Hau da, landatuta zegoen intsinis pinudi osoa. 2019an berriz, oihanberritze-proiektu bat aurkeztu zuen eta, haren tamaina eta kostua ikusita, hiru fasetan banatu zen.

Lehen fase horretan (Anddo 1 izenekoa) 6,65 hektarea birlandatu ziren, 35.276,07 euroko kostuarekin. Nafarroako Gobernuak finantzatu zituen osorik, Next Generation funtsen bidez.

Bigarren fasean (Anddo 2) 16,50 hektarea birlandatu ziren, 75.628,09 euroko kostuarekin. Kasu honetan, Red Eléctrica de España SAUK finantzatu zuen, berotegi-efektua eragiten duten emisioak konpentsatzeko duten programaren barrenean.

Eta hirugarren fasean (Anddo 3) aurtengo martxoan bukatutzat eman dena, 8,93 hektarealandatu dira, 53.157,85 euroko kostua ekarri dutenak,

Nafarroako Gobernuak finantzatu du osorik, Next Generation europar funtsen bidez.

Hiru faseetan akordioa berdina izan da, %100eko finantzazioa, udala landaketen mantentzeaz eta garapen egokiaz arduratzearen truke. 33 hektarea baino gehiago, 30.000 landare inguru landatzeko. Haien artean koniferoak eta bertako espezieak, hala nola, itsas pinua, taeda pinua, pinaster pinua, edo haritza, urkia, pagoa eta gereziandoa. Sarbide zaileko eremuak landatu gabe gelditu dira, baina ia ez dira lurraren %5era aileztatzen.

Landareak berez ateri diren eremuak ere errespetatu dira.

Auzolan deialdia

Udalak auzolan deialdia luzatu du ondorengo egunetarako. Sarrolako ibilbidea herri irteeraraino garbitzeko dago. Bide bazterrak garbitu (desbrozatu) behar direla jakinarazi du. Interesa duenak aitzinetik herriko etxera deitu edo Jokinekin (zerbitzu anitzetako langilea) egon beharko du.



UTZITAKOIA

Herriko panderojoleak Iruñean

Herriko panderojole ttikienak Iruñean izan ziren apirilaren 13an, Euskal Herriko Trikitixa egunean Olaia Urdangarin Taberna irakaslearekin. Karrikaz karrika ibili ziren, Txantreatik Alde Zaharrera. Kontzertua eskaini eta bazkalondoa jokoak ere izan zituzten, egunpasa ederrean.

Baratzondokoak Corellara irteera larunbatean

Baratzondo elkartekoak Corellara irteera antolatu dute maiatzaren 4rako. Larunbatean 08:00etan aterako dira eta bidean atsedean ttiki bat eginda, 10:30 aldera ailegatuko dira Corellara. Camilo Castilla upategia eta alde zaharra bisitatu dute. Ondotik, Hostal Venecia-an ederki bazkaldu eta bazkalondoren dantza eta bingoa izanen dute. 18:00 aldera autobusa herrira itzuliko da, baina ez aitzinetik Mugairiko Urgainen bestari akabaila emateko merienda-afaria egon gabe.

'Bizkarsoro' filmaren emanaldi arrakastatsua

Joan den apirilaren 12an *Bizkarsoro* filmaren emanaldia izan zuten Baratzondoa. Hasiera batean Korrikaren ekitaldiren barruan aurreikusia bazegoen ere, atzerapenarekin baina ailegatu zitzaion bere momentua. Bildutako jendeak gustura ikusi zuen filma, eta ondotik filmaren egileetako batek eman zituen azalpen guziak ere (zergatik eta nola egin zen proiektua, sortutako zailtasunak, aurrekontua...) gustura aditu zituzten, hone-la gehiago ulertuz lan honen sakontasuna.



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es



Jaurena
Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa



BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDORAK
1988 - 2018

609 446 693 - 948 625 663
www.bidasoa.com

Gurpil eskeintze berezikiak
24h-ko eskeintzeak erregidoretan
187 euruko zerbitzu dohaiak
Gasolindorak 24h irekita

GASOLIOA ETXERA
eramanen dugu

Zakur azken dirulaguntza zuzeneko erregidoretan dirulaguntza lanak

Alkaga Industrialdia
Zibeli Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)

Noain-Eskiroz Industrialdia
Y Kalea 10
31118 Noain (Nafarroa)

Mendi itzulian izena emateko epea zabalik

Aurtengoa hamaikagarren edizioa izanen da eta mendizaleek betiko ibilbidea egin beharko dute

NEREA ALZURI

Izan dira eta izanen dira oraindik ere gure inguruko mendiak ezagutu bidenabar, ibilaldi ederrakegeteko aukerak. Data seinalatuak izan ohi dira eta herrian, bi urtetik behin egiten den mendi itzuliaren antolaketa lanetan buru-belarri ari da Ekaitza Elkartea.

Maiatzean sarturik, gainean dugu: maiatzaren 19an izanen da XI. Mendi Itzulia. 07:00etatik 07:30era herriko plazatik abiatuko den mendi bueltak ohiko bidea izanen du eta Arantzako mendiak tontorrez tontor igateko aukera izanen da, eguraldi garbia izanez gero, paraje ederrekin gozatu bidenabar. Mendizaleek Itsaszelaita (515 m), Izu (829 m), Ibintza (1.032 m), Ekaitza (1.042 m), Illurdi (1.075 m) eta Mai-rubaratzetik (750 m) pasatu beharko dute berriz plazara bueltatu aitzinetik. Itzuliak 1.600 metroko malda eta ia 28 kilometroko luzera du.

Izen ematea

Mendi itzulian parte hartu nahi duenak egunean bertan



Duela bi urteko itzuliko argazkia.

eta aitzinetik *mendizmendi.com* atarian izanen du izena emateko aukera.

Haurrak ere mendi itzulian

Duela bi urteko edizioan, herriko haurrek mendi itzuliaren zati bat egiteko aukera izan zuten, buelta laburragoa. Aurtentzen ere horretarako aukera izanen dutela jakinarazi du Ekaitza Elkartea. Xehetasun gehiago eguna hurbildu ahal emanen dituzte.



G. PIKABEA

Mutxikoen eta dantza herrikoien hitzordua

Baztango Fanfarrearen doinuen erritmora, Bortziriak Dantzan hitzordua egin zuten apirilaren 20an plazan. Batez ere mutxikoak dantzatu zituzten, baina baita bertzelako dantza herrikoiak ere. Eguraldi ederrarekin, aski tarte atsegina pasatu zuten.



DBHkoek joko topaketa egin zuten Erronkariko ikasleekin. ARANTZAKO HERRI ESKOLA

Kanpaldiak eskolan, ikasturte akabaila hurbiltzen ari den seinale

N. ALZURI

Ikasturte honetako azken txanpan sartuak dira eskolan, eta horrekin batera, kanpaldietan dabilta neska-mutxoak. Aurtentzen bosgarren eta seigarren mailakoak izan dira irteera egiten lehenbizikoak, eta martxoan eskiatzera joan ziren Izabara. Lehenbiziko zikloko ikasleek eta irakasleek, berriz, maiatzaren 2an eta 3an Hondarribian egonaldia egiten dute. Hirugarren eta laugarren mailakoak maiatzaren 8tik 10era Zarautzera joanen dira. Eta eskolako ttikienak, Haur Hezkuntzakoak, Irrisarri Lan-

den izanen dira kanpaldian. Hortaz aparte, bi urtetik behin egiten den ikasbidaia aurtentzen egiten dute eta DBHko hamalau ikasleak maiatzaren 13tik 17ra Bartzelonara joanen dira.

Erronkariko ikasleekin

Ikasturte hasieran, DBHko ikasleek Erronkariko ikastetxe-ko ikasleekin hartu-eman abiatu zuten. Eta duela aste batzuk, Erronkarikoek Aterpean egonaldia egitekoa zutela probestuz, elkar ezagutu eta joko topaketa egin zuten frontoian.

TXIMISTINDAR
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
 Zelaia Ind., 42 Bera.
 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 50 65

F. LANCHAS
 Akutxiladorea eta bernizatzailea
 Parket eta parket flotatzailea jartzea
 Mota guztietako zolak
 Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

«Bizi baldintza minimo batzuk exijitzea beharrezkoa da»

IHINTZA UDAETA ETA PATXI MARTIN ERNAIKO KIDEAK

Gazteen egoerarekin kezkatuta, *Bizi baldintza duinen alde*. *Gazteok alternatiba* lelopean hitzordua antolatu du Baztan-Bidasoko Ernaik maiatzaren 11n Elizondon. Hainbat ekitaldi prestatu dituzte

G. PIKABEA

Gazteak «arriskuan» daudela ikusita, «azken asteotan gizarteak eta batez ere gazteok ditugun problemak azalera-tzen» aritu da buru-belarri Baztan-Bidasoko Ernai ezker abertzaleko gazte antolakundea. Bide horretan ereiten segitu nahi du, eta hala, «alternatiba zein izanen den pentsatzeko eta aldarrikatzeko» hitzordua antolatu dute. *Bizi baldintza duinen alde*. *Gazteok alternatibalelopean* maiatzaren 11n Elizondon bilduko dira eta egun osoko egitaraua prestatu dute Baztango, Bortzirietako eta Malerrekako Ernaiko kideek. Egunari begira «animatzeko eta parte hartzeko» deia egin dute: «Gazteen egoerarekin kezkatua dagoen edozein ongi etorria izanen da». Maiatzaren 11ko hitzorduaren aitzakia-ekin, orain arteko bidez, momentuko egoeraz eta etorkizuneko erronkez mintzatu dira Ernaiko Ihintza Udaeta eta Patxi Martin TTIPI-TTAPA-rekin.

Zer martxa du Ernaik Baztanen, Bortzirietan eta Malerrek?

Hiru taldeen dinamika nahiko igualtsua da, kanpoko jarduerak dezente baldintzatzen baitute gure jarduna. Lehenbiziko lauhilekoa nahiko mugitua izan da guretzat, eta batez ere, mobilizazioz betea: Aitor eta Galderren auzia, greba feminista orokorra, Palestina, presoen ur-

tarrileko mobilizazioa... Bigarren lauhilekoa ere indartsu heldu da: Ernaik gazteak arriskuan gaudela salatzen eta alternatibak irudikatzen abiatutako kanpaina, Gazteon Eskutik gazte ekimena Lezon, Erdiz Biziriken aldarriak Elizondon, maiatzaren 11n LABek antolatutako mobilizazioa Iruñean... Modu batera edo bertzer, horietan

guzietan parte hartzen eta gure ekarpena egiten ibili gara, eta uste dugu ez dela gutti.

Beraz, orokorrean Ernai osasuntsu dago?

Bai. Covid garaiak, bertze eremuetan bezala, gazteon antolakuntzan eragina izan zuen. Baina urte batzuk pasatuta, nabari da loraldia heldu dela, talde berriak sortzen eta zeudenak indartzen ari baitira.



Ihintza Udaeta eta Patxi Martin Ernaiko kideak. UTZITAKO ARGAZKIA

Aipatzekoa da, belaunaldien errelebo aldaketa handia izan dela azken urteotan.

Gazteak arriskuan zaudetela erranez hasten da berriki Ernaik argitaratu duen *Gazteontzat proposamena*. Azalduko zenukete?

Bai, gaur egungo belaunaldia krisi egoeran hazi da eta krisi horien egoera nahiko nabarmena da: krisi ekologiko/klimatikoa, soziala, ekonomikoa... *Gazteontzat* proposamena alternatiba badela ikusarazteko aurkeztua da. Gaur egun egingarri diren pausoak eta exijentziak ageri dira, alternatibarako lehenbiziko pausoak horiek direla uste dugulako.

Zortzi eremu bildu dituzue proposamenean: osasun mentala, hezkuntza, bizi ereduak, etxebizitza, enplegua, zaintza, trantsizio ekosoziala, eskubide zibil eta politikoak. Zergatik aldarrikapen horiek?

Testuinguruaren irakurketa eginda, gehien zantzen gaituzten ildoak horiek direla ikusten dugu eta oro har, egoera nahiko eskasa da horietan guzietan. Adibidez, gure eskualdean, etxebizitzarekin dugun egoera nahiko larria da. Gazteak ezin gara emantzipatu, alde batetik, etxebizitzak duen prezioagatik, eta bertalde, eta batez ere, ez dagoelako alokairurako eskaintzarik. Osasun mentalean, gazteen egoera lehen baino okerragoa dela nabari da. Gainera, psikologoaren zerbitzua gehienbat pribatua da eta gazte batzuentzat ezinezkoa da 40, 60 edo 80 euro ordaintzea kontsulta bakoitzeko. Arazo horiek ikusita, soluzioak aldarrikatzen ditugu epe motzera.

Zein dira eskualdean zuen lehentasunak eta kezka nagusiak?

Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekant ditugun lehentasunak eta kezkak nahiko igualtsuak dira. Etxebizitzaren gaiak, adibidez, kezka handia sortzen digu, osasun mentala ere bai, nahiz eta aunitzetan ez den aipatzen duen

estigmatik. Orokorrean, Euskal Herri mailan gazteek dituzten kezka igualak ditugu eskualdean.

Gazteen bizi baldintza duinak bermatzeko bidea zein da?

Arazoa egiturazkoa dela garbi dago, hau da, sistema kapitalistak eramaten duela gizartea krisira. Hala ere, tesuingurua ikusita, bizi baldintza minimo batzuk exijitzea beharrezkoa da. Horretarako da *Gazteontzat* proposamena. **Eskualdeko gazteak nola ikusten dituzue?**

Gazteok uste baino kezkatuagoak gaude, gai batengatik zein bertzearengatik. Gehienok lan egin izan dugu baina baldintza kaskarretan, ez dugu etxebizitza bat lortzeko aukerarik...

Eta gazte mugimendua?

Arazoia arrazoi, gazte mugimenduak, Euskal Herrian bezala eskualdean ere, ez du momentu ona pasatu. Hala ere, azken urteotan berpizten

ari dela ikusten da. Horren adibide dira Baztango gazte-txea, Marrako Bortzirietako Neska* Gazte Taldea, Lapaitza Malerrekako eta Bertizaranako gazte asanblada...

Maiatzaren 11rako hitzordu garrrantzitsua antolatu duzue Ernairen Baztan-Bidasoko kideek elkarlanean. Zein helbururekin?

Azken asteotan, gizarteak eta batez ere gazteok ditugun problemak azaleratzen saiatu gara. Hori ikusita, alternatiba zein izanen den pentsatzeko eta aldarrikatzeko eguna antolatu dugu.

Zein izanen da egitaraua?

Eguna hasteko, eremuka gosaria eginen dugu eta ondotik, denak Elizondon elkartuko

«**DITUGUN ARAZOAK EZ DIRA EZ KASUALITATEAK, EZ GURE KULPA**»

gara. Poteoa eginen dugu eta lehen aipatu ditugun gaiak lantzeko hizlari batzuk izanen dira. Bazkari herrikoia ere eginen dugu, baita tailerra ere. Tailerrean eskualdeko gazteen exijentziak zein diren zehaztuko dugu eta gure bizi egoeraz hausnartu. 18:00etan bizi baldintza duinak aldarrikatzeko mobilizazioa eginen dugu eta bukatzeko, bertso afaria izanen dugu.

Nolako erantzuna espero duzue?

Aurreikuspenak egitea beti da zaila. Egunez zailagoa izaten da jendea mugitzea, baina jendea parte hartzera animatu nahi dugu.

Zein mezu zabalduko zeniekete eskualdeko gazteei?

«**ETXEBIZITZAK ETA OSASUN MENTALAK KEZKA SORTZEN DIGUTE**»

Gazteen egoerarekin kezkatua dagoen edozein ongi etorria izanen da. Ulertu behar dugu ditugun arazoak ez direla kasualitatea, eta guttiago gure kulpa. Horri soluzioa emateko antolatzea eta parte hartzea beharrezkoa da.

Aitzinera begira zein erronka dituzue?

Epe motzean eskualdean sortu dugun dinamika eta bizi baldintza duinen inguruko lanketekin segitu nahi dugu. Epe ertainera, berriz, alternatibatik eta independentziaz hurbilago kokatu nahi dugu. gure eskualdean horretarako dinamikak sortuz eta alternatiba diren gazte mugimenduak indartzuz.

Zerbait gaineratuko zenukete?

Bai, aunitzetan, «egoera horrelakoa da eta kito» filosofiarekin ikusten dugu gazteria eta garai ilunetan alternatiban sinestera eta bertan parte hartzera animatu nahi genituzke.

PLAIAUNDI



1973 - 2023

EMAN IZENA!

Plaiaundi z/g
20301 IRUN
943 899 214
info@plaiaundi.eus
www.plaiaundi.eus

Aurrematrikula:
Maiatzaren 6tik 24ra

ATE IREKIEN JARDUNALDIA

MAIATZAK 7 ERDI MAILA

- Administrazio-Kudeaketa
- Mikroinformatika-Sistemak eta Sareak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mendekotasun-Egoeran Dauden Pertsonen Arreta
- Farmazia eta parafarmazia
- Errepide Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea

MAIATZAK 8 GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Web aplikazioen Garapena
- Plataforma Anitzeko Aplikazioak Garatzea
- Garraio eta Logistika
- Nazioarteko Merkataritza
- Laborategi Kliniko eta Biomedikoa
- Dietetika
- Haur Hezkuntza
- Gizarteratzea
- Sareko Informatika-Sistemen Administrazioa





Haur Hezkuntzako ikasleek Anizko Jauregia ezagutu zuten. ESKOLAK UTZIA

Bertako ekoizleen lana ezagutu dute eskolako ikasleek

Apirilaren 16an Anizko Jauregira irteera egin zuten Haur Hezkuntzako ikasleek 'Lurretik ikasiz' proiektuaren barrenean

MAIDER PETRIRENA

Ikasturte hasieran Baztan-Bidasoko ekoizleek *Lurretik ikasiz* proiektua aurkeztu zieten ikasleei. Baztango, Bortziritako eta Xaretako zazpi ekoizle (Lesakako Agorleku, Elizondoko Autxitxia, Baztango Xurie, Berako Erlanki, Anizko Jauregia, Etxalarko Maira eta Zugarramurdiko Martinea) elkartu dira beraien etxaldeen tako lan egiteko moduak ikastetxeetako haurrei erakusteko asmoz. Sunbillako Haur Hezkuntzako ikasleak apirilaren 16an, Anizko Jauregira irteera egin zuten.



Uharteko irristaketa pistan.

Koxkorrek irristaketa

Apirilaren 11n eta 18an Sunbillako 2. zikloko ikasleak Uharteko irristaketa pistan ibili ziren, Ituren, Saldias eta Legasakoekin batera.

Nahia Bertiz txapeldun Adosen promozio mailan

Apirilaren 20an Antzuolako frontoian Adosek antolatutako eskuz binakako txapelketako finalak jokatu ziren. Promozio mailan, Nahia Bertiz Babaze herritarra eta Ibarrola txapeldun izan ziren, Aranbururi eta Arrastiari 22-18 irabazita.



Ibarrola eta Bertiz txapeldun.



UTZITAKOIA

Koldo Herrera garaile Igantzin

Koldo Herrera herritarra eta Dani Iparragirre aranztarra garaile izan ziren apirilaren 21ean Igantziko V. mendi duatloiko binakako txapelketan. Ane Petrirenak, Xabier Irazokik, Iñigo Arrietak, Igor Agestak eta Eneko Herrerak ere parte hartu zuten, batzuk erreleboka, bertzeak banaka.



JOXE MARI SAINZ

Migel aingeruaren bisita

Apirilaren 21ean urtero bezala Migel aingeruaren bisita izan genuen herrian. Aurtengoan zuzenean eliz atarian harrera egin zaio eta ez udaletxean. Hor bertan errezatu eta elizara kantuan sartu ziren. Normalean biharamumean egiten zaio agurra baina, aurtun ezin zenez, igande berean egin zioten.



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com



INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36

URDAZUBIKO BESTAK 2024

Faustino ETXÁBE tailerrak

Autoen konponketa

☎ 948 599 038

ZUGARRAMURDI

**Besta on
batzuk pasa!*

Egitaraua



Maiatzak 9, Ortzeguna

11:00etan meza nagusia. 12:00etan ezkila jotzea eta ondotik aperitifa txistulari eta dantzariekin. 16:30ean haurrendako jokoak. 18:00etan bertso poteoa Julio Soto eta Nerea Ibarzabalekin. 21:30ean paella jatea plazan eta ondotik Itzal erromeria taldearekin dantzaldia.

Maiatzak 10, Ortiziralea

11:30ean haurrendako *Conquis challenge*. 14:00etan Ugarana Emakume Elkarteko bazkaria eta gazteen bazkaria. 16:30ean haurren pilota partidak. 20:00etan pintxoak plazan denentzat. Ondotik kontzertuak: Herritarrak, Pangea Pop, Akaleia eta Ganix Djaren eskutik.

Maiatzak 8, Asteazkena

18:00etan, boteluzue partida frontoian. 20:00etan txupinazoa eta ezkila jotzea plazan aperitifa tiki batekin. 21:30ean herri afaria Montxo erretegian herriko musikariek alaituta.



Bazteretxea

JANARI-DENDA **benta**

Tel: 948 599048

Ongi pasa bestak!!

URDAZUBI



GURE BASERRIKO ARATXE HARAGIA SALTZEN DUGU

Dantxarinea - URDAZUBI

T. 948 599 045 | www.mikelenborda.com



**CONSTRUCCIONES
A. BENGOTXEA**



- Etxebizitzak egin
- Zahar-berritze lanak
- Saneamendu-lanak
- Obra publikoak
- Zeramika denda

ONGI PASA BESTAKI

URDAZUBI

Tel. 948 599 484

www.carrelagesbengotxea.com



IRIGOIENEA
 ☎ 948 599 267 • URDAZUBI
 www.irigoiena.com • reservas@irigoiena.com

ETXELEKUA *ongi pasa bestak!*
 ARDI LATXAREN GASNA

7AK MUNDUAN
 SALMENTA ZUZENA EGUNERO
 Zugarramurdiko korretara
 948 599 169 - Urdazubi
 www.etxelekua.com



IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN
 HORMIGOI ESTANPATUA
 ZOLADURAK

KURRINKA
 CONSTRUCCIONES, S.L.

Barrío Laofes, s/n - 30711 URDAX (Navarra)
 Tel. (0034)609 676 162 (Antonio) - e mail: antonio@kurrinka.com
 Tel. (0034)600 438 438 (Angi) - e mail: kurrinka@kurrinka.com
 www.kurrinka.com



**Maiatzak 11,
 Larunbata**

14:30ean zikiro jatea egingen dute Elutxa txarangak alaiturik. Bazkalondoan kalejira egingen dute herriko karriketan barna. 16:30ean haurrendako jokoak antolatu dituzte. 21:30ean indarberitzeko zingar jatea egingen dute eta giro onari eusteko Chuchin Ibañez y los Charros taldearekin dantzaldia izanen da. 23:30etik aitzinera kontzertua eskainiko du Gabezin taldeak eta ondotik Ventura Djarekin besta luzatuko da goizaldera arte.

**Maiatzak 12,
 Igandea**

17:30ean pilota partida izanen da frontoian: Gofii II.a eta Ladis Galarza, Xala eta Azanzaren aurka ariko dira. (Partidarako sarrerak bartz eurotan jarriko dituzte salgai). Partidaren ondotik, plazan nahi adina pintxo eta jateko izanen da. 20:00etan boletoen zozketa egingen dute. Zorte on!



ARRETXEAA
 ESTANKOA
 ZIGARRO PURUEN CAVA



ongi pasa bestak!

DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | estancoarrechea@yahoo.es

GORA URDAZUBIKO BESTAK!



Karta bikaina eta menuak prezio
desberdinetan kalitatezko produktuekin.

IKUSI
KARTAK
HEMEN



  [ventabiok.com](https://www.ventabiok.com)

Oihana Jatetxea +34 848 478 882
Lapitxuri Jatetxea +34 948 599 093
Otxondo Jatetxea +34 848 478 879

BIOK
RESTAURANT



**IRIARTEA
BENTA**

Autozerbitzua · Ostalua · Lantza...

DANTXARINEA · Urdazubi · T. 948 599 049 · ventariarte@hotmail.es



indianabaita
ostalua

barostatua apartamentorruales

Pasatu ongi. Salbatoreak!

PINTXOAK,
BOKATAK ETA
ERRAZIOAK

948 599 021
URDAZUBI

ongi pasa
bestak!

Patxi Jaurena

ZURGIN LANAK OROKORREAN
MENUISIER - CHARPENTIER

628 550 490 - URDAZUBI (Na)
ursunea@gmail.com



**JOXEMI
BENGOTXEA**
Zurgindegia

TEILATUAK | FATXADAK
ESKAILERAK | ATEAK | LEIHOAK
EGURREZKO ESTRUKTURAK
ZOLAK | ALTZARIAK
EGURREN SALMENTA

Tel. 660 501 584
URDAZUBI | IRURITA
joxemibengotxea@yahoo.es



FAGOA
ONGI PASA BESTAKI

Kirola, kultura eta gastronomia

625 925 371
fagoa.eus
info@fagoa.eus
31711 Urdazubi · Urdax

**Partekatu
esperientzia paregabea**

BIZIKLETA ETA PATINETE
ELEKTRIKOEN ALOKAIURUA
PATINETE JAITSIERAK
MAILA GUZTIETARAKO IBILBIDEAK
AUTONOMIAN EDO GURE
GIDARI BATEK LAGUNDUTA



«Emakumeen artean sare moduko bat osatzen joan gara»

ANAXTAXI BIDART ORGANBIDE UGARANA ELKARTEKO KIDEA



handikoa» dela nabarmendu du. Urdazubik kokapen geografiko berezia duela ere azaldu du: «mendi artean eta itsasotik hurbil. Mugan dago, nahiz eta guretzat mugarik ez izan». Herri bizi da eta horren erakusle da: «ostatu eta jatetxe aunitz badirela. Artisau eta tokiko produktuak saltzen dituzten dendak falta dira nire ustez». Nostalgia puntu batetik egin du, akaso, aipamen hau: herriguneko azken dendaria izan baita Anaxtaxi.

Hainbat afizio

Ugarana Emakume Elkarteko kidea da: «stretching eta yogako kurtsoetara aski kontent gaten naiz». Inoiz ez omen da berandu eta afizio berriei lotzeko aukera ere eman dio erretiroa hartu izanak: «pianoa jotzen ikasten ari naiz. Senperen. Laket dut, mendian eta bizikletan ibiltzea ere, baina niretzat afizio handiena jostea eta trikotatzea da. Denbora librean bilobei trikotak eta jantziak egiten dizkiet».

Bere afizioa besteei erakusten ere ibili izan da: «garai batean josteko klaseak eman nituen Urdazubin». Jostorraz eta hari artean, bestelako puntadak ere eman zituzten han bildutako emakumeek: «emakumeen artean sare moduko bat osatzen joan

Aski ezaguna da Anaxtaxi Urdazubin, baita inguruko herrietan ere. Dendako mostradore giblean pasatako orduak ez dira alferrik. 2016ko festetako hondar egunean hartu zuen erretiroa, baina horrek ez du erran nahi gelditik dagoenik: «orain jubilatua naiz, baina gazte sentitzen naiz». Esaldi horrekin argi utzi du gorputzak erantzuten dion bitartean, saltsan segitzeko asmoa duela.

Udal zinegotzia izandakoa da eta karguak alde batera utzi baditu ere: «ahal dudanean, jendea laguntzeko prest izaten naiz». Maite du bere herria eta «herri tikia, baina historia

ginen». Horregatik, duela 25 bat urte josteko klaseak uztea erabaki zuenean Ugarana elkartearen sortzaileetako bat izan zen. Urtez urte, taldea handitzen joan da eta gaur egun 72 kide dira elkartearen: «azken urte hauetan motibatuak diren gazte batzuk sartu dira eta aski pozgarria da».

Talde bizia

Elkartearen xedea honakoa da: «emakumeei zuzendutako jarduerak antolatzea». Hala, hainbat ikastaro antolatzen dituzte urtean zehar: «Pilates, yoga, stretching eta zumba». Emakumearen eguna ere ospatzen dute eta aurten giro bikainean ibili direla nabarmendu du: «herriko gazte trikitilariekin dantza pixka bat egin genuen, kalejira ere egin genuen herritik barna eta aperitifa hartu». Azaroaren 25ean elkarretaratze bat ere egin zuten emakumeen aurkako indarkeria salatzeko eta noizbehinka bertze jarduera batzuk antolatzen dituzte: «maiatzaren 24an, adibidez, Virginia Imaz etorriko zaigu bakarrizketa bat eskaintzera».

Bestetan, ortziralean, bazkari bat ere antolatzen dute elkarteko kideek eta huts egin gabe, bertan izaten da urtero Anaxtaxi. Hala aipatu du bestak nola bizi dituen azaldu duenean: «ortzegunean mezara joaten naiz eta, ondoren, plazan izaten den aperitifara. Ortziralean, emakumeen elkarrekin antolatutako bazkarian izaten naiz hutsik egin gabe eta larunbatean zikirora joaten naiz».

Herriko bestak bere horretan gustuko dituela aipatu du: «ez dut uste deus soberan edo faltan dutenik. Gazteek ahal dutena egiten dute, hoberena iruditzen zaiena eta esker-tzekoa da egiten dutena». Hori bai, aldaketa nabaritu du giroan: «lehen iparraldeko jende aunitz etortzen zen bestetara, batez ere Ainhoatik, Senperetik eta Saratik. Oroitzen naiz ostatuan izugarritzko giroa sortzen zutela beraien kantuekin. Orain izaten diren kontrolekin, uste dut ez dutela arriskurik hartu nahi». Bertakoek hasi beharko dute, orduan, kantuan. Horretarako ere gatza eta piperra ez du Anaxtaxik ez du faltan.



ZUBIONDOA
OSTATUA
AUTOZERBITZUA
OROIGARRIAK
Ongi pasa bestak!
(0034) 948 599 041
DANTXAR, INEX



SANTIAGO VILLARES S.L.
Ongi pasa bestak!

LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56

info@santogovillares.com
www.santogovillares.com

Ongi pasa
bestak!

Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA

Tradizioa, historia eta gastronomia

asadormontxo.com




Axular karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

LA KOSKA
JATETXEA

«ngi paza bestak!!»

948 599 042 · URDAX



Pinturas
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (No)

ONGI
PASA
BESTAK

**FATXADAK,
BARNEALDEAK
eta
PLADURRA**

www.pinturasalzuyet.com
pinturasalzuyet@gmail.com



**Urdazubiko Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
urdazubiar eta
bisitari guztiei !**



«Larunbateko zikiroan sortzen den giro berezia nabarmenduko nuke»

ANDONI CENOZ VERDU BESTETAKO KOMISIOKO KIDEA

Gauzak jakina da bestaz gozatu ahal izateko norbaitek aitzinetik lana egin behar duela. Aurtan, Andoniri egokitu zaio antolakuntza lanetan aritzea: «aurten sartu naiz bestetako komisiotan eta bertan bartz herritar gaude». Inauterietan egin zituzten beroketa lanak eta egun gutxiren buruan helduko zaie urteko lanik potoloena: «herrian egiten diren ekitaldi gehienetan lagundu eta parte hartzen dugu, baina gure ardura dira inauterietan eta besten antolakuntza».


Guztia tenorez prestatzeko, aspaldi hasi ziren lanean: «astero edo bi astetik behin elkartzeko gara komisioko kideak. Denen artean joaten gara egitaraua osatzen, xehetasunak adosten eta behar diren gauzak eskatzen...». Azken hitza, ordea, ez da beraiena bakarrik eta herriko bertze gazteekin elkarlanean aritzen dira: «gauzak pixka bat lotuak ditugularik bertze gazteekin elkartzeko gara. Hartu ditugun erabakien berri eman eta gauza batzuk denon artean aukeratzeko ditugu».

Bartz egunez besta

Bestak borobilak izateko, herritarren parte-hartzea da gakoa eta uste du Urdazubiko bestetan, giro ona eta besta gogoa ez direla falta izaten: «kanpotik jende gehiago hurbiltzea, hori da faltan botatzen dudana».

Bestetako egitaraua eskuetan hartuta, Andonik aitortu du ez duela ekitaldi bakar bat ere galtzen: «lehenengo egunean txupinazoa izaten da eta ezkila jotzea. Hor laguntzen egoten naiz, gero lagunekin pote batzuk hartzen ditugu eta gaua afori batekin bukatzen dugu». Biharamunean meza nagusia izaten dute herrian eta «ondotik aperitifak hartzen dugu herriko plazan». Mahaiaren bueltan biltzen dira gero eta «paella jatearen ondotik, herriko plazan egiten dugu besta».

Astebururako indarrak zertxobait gorde behar izaten ditu, elkarren segidan heldu direlako egunik bere-



zienak: «ortziralean kontzertu gaua izaten dugu eta bertan ibiltzen naiz lagunekin kantuan eta dantzan». Larunbatean zikiro jatea izaten dute eta hori da gehien maite duen ekitaldia: «ekitaldi guztien artean, larunbateko zikiro jatean sortzen den giro berezia nabarmenduko nuke. Txaranga batekin ibiltzen gara ostatur ostatu eta gaua kontzertu batekin bukatzen dugu herriko plazan». Igan-dean erretzen ditu azkeneko kartutxoak: «pilota partida izaten dugu herriko frontoian eta gero, beste bukaera emateko, herriko plazan egiten den zozketan parte hartu eta pintxoak jaten ditugu».

Maiatzaren 8an hasi eta 12an bukatzen dira Urdazubiko bestak eta bartz egunez luzatzen den maratoni batekin parekatuko lituzke norbaitek. Ez zaio gaizki etorriko, beraz, kirolerako duen afizioa: «korrika egitea, frontoiko kirolak, mendia... gustuko ditut». Datozen egunetan, mendi gailurrak eta lasterketak alde batera utzi eta goizaldeko ordu tikiak arte jokatuko ditu Andonik eguneko partidak. Kale edo bale, biharamunean neurtuko dute, gau horretan nor irten den garaile.

7/7 irekitakDantxarinea • Ibardin •
Behobia • Luzalde

Elikadura



Shopping



Jatetxeak

☎ ES. +33 972 10 40 20
www.venta-peio.com📱 @venta.peio
📌 peloventa

Ongi pasa bestak!



Zure merkataritza-guneak mugan

*Ongi pasa
bestak!***JOSENEA
ZONE AUTO****KALITATEZKO MANTENTZE-LANAK
ERREGAI BANAKETA
GARBIKETA ZENTROA****PREZIO
ONEAN** www.joseneo.es

☎ 948 599 090 - 948 599 236 📍 N-121-B erreidea • DANTXARINEA

OTEIZA
ARKITEKTOAK

665 71 54 96 - 943 42 52 43
www.oteizarquitectos.com

@oteizarquitectos

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

DOARQ
arkitekтура bulegoa
maite & idola danborrena daitezke
T 9 4 8 1 4 0 8 0 6

ONGI PASA BESTAK

IRURITA

RZG ROTULOS

Errotulazioan eta diseinuan aritzen gara. Egin nahi duzun proiekturako hainbat proposamen ditugu eskaintzeko, eta hori gauzatzen lagunduko dizugu.

- Kristalak tindatzea
- Autoak errotulatzea
- Inprimatze digitala
- 3Dko kartel argidunak
- Eranskailuak eta kartelak personalizatzea
- Lokalek errotulatzea
- Kanpo seinaleak
- Publizitate-olanak
- Bisita-bartelak, albaranak, etab.

948 58 09 77 647 00 63 36
Pol. Ind. Zaldubia, 1
31730 Irurita (Nafarroa)

Construcciones URBALLO, S.L.
hargin lanak orokorrean

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teiltatueta esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak: Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuluak...

Luis Gaztelu, 6 | 31730 IRURITA
T. 610 367 000 / 610 367 009
c.urballo@hotmail.com



IRURITAKO
BESTAK
2024

Egitaraua

Maiatzak 8, asteazkena

12:00etan txupinazoa eta herriari buelta Baztango Gaiteroekin eta erraldoiekin. 16:30ean haurren pilota finalerdi eta finala. Ondotik haurrendako merienda. 17:30ean gazteen herri kirol desafioa eta 18:30ean gazteen pilota finala. 18:30etik 20:30era dantzaldia plazan Beñat eta Fernandorekin. 20:00etan ezkila jotzea. 21:00etan baztan zopak eta ondotik dantzaldia plazan Beñat eta Fernandorekin.

Maiatzak 9, ortzeguna

09:00etan dianak. 11:00etan meza nagusia, 12:00etan Iruritako Dantzarien ikuskizuna eta ondotik lunch herrikoia izanen da. 17:45ean haurren pilota finaleko sari banaketa frontoian. 18:00etan pilota jaialdia eta erremontea frontoian. 20:00etatik 21:30era dantzaldia plazan Joselu Anaiak taldearekin. 21:30etik 22:30era mutil dantzak. 00:00etatik 03:00etara Joselu Anaiak plazan.

Maiatzak 10, ortziralea

09:00etan dianak baserrietan eta herriko txistulariak herritik barna. 11:30etik 13:00etara haurrendako puzgarriak frontoian, ondotik haurren bazkaria karpan. 14:00etan gazteen bazkaria Jauregiarteetan eta jubilatuen bazkaria Olarin. 14:30etik 18:00etara haurrendako puzgarriak frontoian. 18:30ean kalejira erraldoiekin. 20:00etan guraso elkartearen bokatak. 20:30etik 21:30era dantzaldia Gabezin taldearekin. 21:30ean mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. 22:00etatik 01:00etara Matraka elektrotzaranga. 00:00etatik 03:30era Gabezin plazan eta 01:30etik 03:00etara DJ Endara karpan.

Maiatzak 11, larunbata

10:00etan diana. 10:30etik 12:30era street boulder eta 12:00etan kalejira erraldoiekin. 14:00etan zikiroa, ondotik herriari buelta Jaiak txarangarekin. 20:00etan guraso elkartearen bokatak. 20:00etatik 21:00etara dantzaldia Biziraun taldearekin. 21:30ean mutil dantzak. 22:00etatik 00:00etara Sukena taldea plazan. 00:00etatik 04:00etara Biziraun plazan eta DJ J&J karpan. 04:00etatik 07:00etara DJ Aimar trinketeetan.

Maiatzak 12, igandea

Golzean kalejira erraldoiekin. 16:30etik 17:30era haurrendako ekitaldia. 17:30ean motozerra erakustaldia Kañamaresen eskutik. 19:00etan Los Txingones mariatxiak plazan. Ondotik afaria eta beste akabaila emateko Gaixoak gu.



«Egitarauaren gibelean herri osoaren lana dago»

NAROA ELIZAINZIN ETA LOREA EUGI IRURITAKO GAZTEAK



Iruritan bizi diren «20 urteko neska gazte eta alaiak» dira Lorea Eugi eta Naroa Elizainzin. Eta doike, bestazaleak ere badira; «aunitz gustatzen zaigu eta ia astebururo inguruko herrietako bestetan ibiltzen gara». Hala ere, herriko bestak dira berezianak: «Baztango eta inguruko lehenbiziko bestak dira, beraz, jende aunitzek gogoz hartzen ditu. Gainera, adin guzietako herritarrak elkartzen gara eta giro berezia sortzen da».

Ttikitatik parte hartu izan dute Iruritako bestetan dantzari bezala. «Gogoan dugu emanaldiaren aitzinetik izaten genuen urduritasuna, dantza ongi ateratzea nahi genuelako, baina aldi berean lotsa izaten genuelako, familiako kideak guri

begira zeuden eta». Horrez gain, «oroitzapen politak ekartzen dizkigute ere *barrakek* eta haurren eguneko joko eta koltxonetek».

Gaur egun, berriz, «besten lehenbiziko eguna» dute gustukoan. «Urte osoan egun hau ailegatzeko irrikitan egoten gara eta giro polita sortzen da bai txupinazoan eta baita zopetan ere». Ortziralea ere gustuko eguna dute, «gazteen eguna delako. Egun horretako bazkaria eta elektrotxaranga dira gehien motibatzen gaituztenak».

Antolaketa lanetan

Besta egiteko, lehenik dena antolatu behar da, eta horretan ari dira aurten bi neskek. «Joan den urtekoek, bi urteak beteta, kargua utzi zuten eta jendea sartzeko beharra zegoenez, boluntario gisa animatu ginen». Baina ez dira bakarrak, izan ere, «zortzi *dominausietatik* (dantolin nagusi) zazpi aurten hasi gara. Ardurak denon artean hartzen ditugu, ez dugu arlo bakoitzeko pertsona bat egokitzen. Poliki-poliki aitzinera goaz, gustura, gogotsu eta ilusio haundiarekin».

Aitortu dutenez, «uste genuena baino lan gehiago du. Ez da bakarrik egitaraua sortzea, horren gibelean herri osoaren lana dago: zopak eta zikiroa prestatzea, karpa eta kioskoa muntatzea...». Hala ere, «talde berriarekin gustura gaude, parte →



Maderas
GOMEN
Maderas Legate S.L.

Ateak
Parketak
Tableroak
Egur mota guztiak
Bigak eta Soliboak
Etab.

Zaldubia Industrialdea - IRURITA
T. 948580645 -
M. 609436686 / 606442143 / 608 744 675
maderaslegate@gmail.com
www.maderaslegate.com

Gureaut
TAILERRAK

Mekanika, elektrizitatea,
mantentze lanak...

Zaldubia Ind. IRURITA | T. 948 580 225
M. 619 328 145 | gureauto2@gmail.com


MIGUELENE
OBRAS Y CONSTRUCCIONES - ERAIKUNTZAK

Ongi pasa bestak!

IRURITA | T. 677 225 | 12


ARKUPE
Txokolataak
-1984-

IRURITA
Dukea plaza
T. 948580359
T. 948452021
(Obradorea)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T. 948452393

www.arkupegozotegia.com

J.P. AGERREBERE

Karrozeria • Aroztegi Metalikoa



Zaldubi ind. IRURITA • Tel.: 948 530 538 | 630 184 847

ongi pasa bestak!

Carpinteria

Lizasoain, S.L.

Erreformak • Leihok • Ateak • Eskailerak • Armairvak • Sokaldeak

948452077 • Zaldubia ind. • 31730 IRURITA

BAZTAN MOTOR S.L.

TXAPA ETA PINTURA | MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA



ONGI PASA BESTAK!

Zaldubia Industrialdea 31730 IRURITA
T. 948 45 21 19 • 948 58 06 55

Besta onak pasat!

Olari
RESTAURANTE



- info@restauranteolari.es
- ☎ 948 45 22 54
- @olari_restaurante
- @restauranteolari



hartze aktiboa dugu denok eta horrek lanak errazten dizkigu».

Egitaruari dagokionez, «joan den urteko formatu bera segituko dugu, ez da berrikuntza haundirik egonen. Kontuan hartu behar da berriki sartu garela, oraindik ez dugu dinamika behar bezala barneratu, beraz, pasa den urtekoei begira antolatuko ditugu bestak. Ea hurrengo urtean horri buelta ematea lortzen dugun!».

Piazara dantzara

Iruritan zerbait nabarmentzen bada, hori dantza da. Eta noski, Elizainzin eta Eugi ere dantzariak dira: «lau urterekin hasi ginen eta 12 urte ginituenean utzi genion bestetan dantzazeari. Baina ez genuen dantza utzi, bertze dantza batzuk egitera pasatu ginen, bertze irakasle batekin. Eta gaur egun horretan segitzen dugu».

Hala ere, bestetan dantzatzea atzenuko ez duten esperientzia izan zen. «Lehen erran bezala, urduri ateratzen ginen, ikasitakoa erakusteko irrikitan. Erranen genuke esperientzia xar-manta dela Salvatore egunean herriko haurrek emanaldia egitea. Gibeletik prestakuntza haundia du, asteen behin ordu bat eskaintzen diotelakoz dantzari, eskolaz kanpo-ko jarduera gisa».

Azkenik, «eskerrak eman nahi dizkiegu bestak aitzinera egiteko laguntzen diguten herritar guziei, baita bestetan laguntzen egoten direnei ere; karpa garbitzen, bazkaria prestatzen... denon arteko laguntza hau gabe, bestek ez lukete aitzinera egiten». Horrez gain, «jendea etortzera animatu nahi dugu, lehenbiziko bestak direnez, motorrak berotzen hasteko udari begira!».



Arotxa



Aroztegia 1890az gerotik

M. 650 53 20 73 • T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | **HORMANN** banatzaile ofiziala



TOLDOAK - ESTOREAK | Etxea-merkataritza-ostalaritza



Eguzkiak
babestu
toldo batekin

Eskolaren urteurren besta ekainaren 8an egingen dute

Eskolaren 50. urteurrena ospatzeko egun osoko besta antolatu dute eskolan ekainaren 8an

TTIPI-TTAPA

50 urte beteko ditu aurten Doneztebeko San Miguel eskolak eta ospatzeko besta antolatu dute. Ekainaren 8an izanen da eta egun osorako egitaraua antolatu dute.

10:30ean eskolan hasita kalejira egingen dute herriko erraldoiek eta dultzaineroek alaituta. Ondotik, 11:30ean, *Lekukoa pasaz hamarkadaz hamarkada* ekitaldia egingen dute. Hainbat belaunalditako ikasleak eta ikasle ohiak hamarkaden arabera banatuta herriko etxetik hasita eskolaraino lekukoa eramaten dute. Izan ere, gaur egungo eraikinaren aitzinetik, eskualdeko eskola herriko etxean zegoen.

Ondotik, 12:00etan omenaldia egingen diete, 1974ko lehenengo promozioako 40

ikasle ohi, eta baita 1986ko euskarazko lehenengo promozioako 24 ikasle ohi ere. Aurrekoa dantzatuko diete txistularien eta Erreka Dantza Taldeko kideen laguntzarekin.

13:00etan batukada izanen da eta ondotik bazkaria eskolan. Txartelek 28 euroko prezioa dute helduentzat eta 14koa haurrentzat, eta eskolan eta Ostizen erosten ahalko dira maiatzaren 22ra arte.

Bazkalondoan, 16:30ean hasita, mutxikoak izanen dira eta baita haurrentzako zirku tailerra ere. Ondotik DJ Jalisko ariko da.

Egun osoko bestaz gain, ekainean, eskolan garai bateko ikasgela bat prestatu dute eta ikasleek zein ikasle ohiak bisitan joateko aukera izanen dute.



Ahari txapelketara aurkeztutako hainbat buru iazko edizioan. ALICIA DEL CASTILLO

Maiatzaren 10ean ospatuko dute udaberriko feria eta XV. Ahari Lehiaketa

OIER ZULAIKA

Heldu den ortziralean, maiatzaren 10ean ospatuko dute udaberriko feria. Urtero bezala ahariak izanen dira protagonista, Doneztebeko XV. Ahari Lehiaketa egingen baitute.

Malerrekako abeltzainek parte hartzen ahalko dute eta artzain bakoitzak nahi adina ahari aurkezten ahalko ditu. Lehiaketarako ahariak 10:00etarako egon beharko dira Merkatuko plazan, garbitasun egoera onean eta txartelarekin.

Sei sari emanen dituzte, hiru ahari mutur gorriendako eta

bertze hiru mutur beltzendako. Lehenengo saria 120 eurokoa izanen da, bigarrena 70 eurokoa eta hirugarrena 50 eurokoa. Sari banaketa 13:00etan egingen dute Merkatu plazan berean.

Ahariez gain, artisauak ere izanen dira, eta bertaratutakoek hainbat produktu erosteko aukera izanen dute.

Udaberriko feria aprobetxatuz, udalak bestetako kartel lehiaketan parte hartu duten kartelen erakusketa paratuko du Herrigunean. Kartelak as-teburu osoan egonen dira ikusgai.

Trapatan dantza ikasteko aukera izanen da aurten

San Pedro egunean, ekainaren 29an Trapatan dantza egiten dute hainbat dantzarik txistularien laguntzaz.

Aurten Trapatan dantza ikasteko aukera emanen diete herritarrei, eta ortzegunero elkartuko dira maiatzaren 2tik aitzinera dantza ikasteko eskolako gimnasioan 21:00etan.



ALICIA DEL CASTILLO

Osasunak futbol campusa antolatu du ekainaren 24tik 27ra

TTIPI-TTAPA

Aste Sainduan egin bezala, udan ere futbol campusa antolatu du Osasunak Donezteben. Lau eta hamalau urte arteko haurrek hartzen ahalko dute parte, eta hiru taldetan banatuta ariko dira: 2020 eta 2018 artean sortutakoak alde batetik, 2017 eta 2014 artekoak bertzetik, eta azkenik 2013 eta 2010 urte artekoak.

08:45etik 14:00etara elkartuko dira eta 130 euroko prezioa du haur bakoitzeko. Jangelan gelditzeak, aldiz, 40 euroko kostua izanen du.



Iazko parte hartzaileetako batzuk.

Campusean hezkuntza eta kirolean formatutako begira-leak izanen dituzte, eta arropa ere emanen diete. Izen ematea Osasuna Fundazioaren web orrian egin behar da.



Erakusketaren irekiera ekitaldira gonbidatu zuten Yamileden familia. UTZITAKOIA

Yamiled Giraldo gogoan erakusketa ireki dute ganbaran

Ivan Benitezen 'Nieva ceniza' argazki erakusketan duela hamabortz urte erahildako herriko emakumea ere ageri da

ARKAITZ MINDEGIA

Herriko etxeko ganbaran Ivan Benitez kazetariaren liburuan oinarritua dagoen erakusketa ikusgai da. *Nieva Ceniza, crónicas del olvido* izenak dioen bezala, Bizkaiko kazetari honen 25 urteko bidaien inguruko argazkiak daude. Hainbat herrialdetan ibili da (Guatemala, Sahara, Sudan, Siria, Kolonbia...) eta lehen pertsonan bizituriko egoerak islatzen dituzten argazkiak agertzen dira. Apirilaren 20an egin zen erakusketaren irekiera, polita bezain hunkigarria izan zen. Duela 15 urte hil zuten Yami-

led Giraldo herritarrari omenaldi bat egiten dio Benitezek erakusketa honetan, emakumearen kontrako tratu txarren egoera islatzen baita. Familiari gonbidapena egin zion eta gerturatu ziren. Kazetariak eta bere taldeak, udalarekin batera, omenaldi xume bat eskaini zien, «ez baitugu ahazten Yami». Akitzeko, kazetariak bisita gidatu bat eskaini zuen, bideo batzurekin, amaiera luntx batekin emanez. Maiztaren 5a arte zabalik da erakusketa eta hilaren 3an, bertze bisita gidatua emanen du Benitezek (19:00).

Estefi Etxebeste Euskal Telebistako 'Harri Herri' saioan

ETBko *Harri herri* saioaren bigarren edizioan parte hartu du Estefi Etxebestek. Ibiur taldean, herriko harrijasotzailerekin batera, Aroa Sanchez, Lierni Osa eta Naroa Arruti aritu ziren, baina lehenengoan kanporatu zituen Mollarri taldeak.

Bi herritar Berroetako Mendi Maratoi Erdian

Berroetako Mendi Maratoi Erdiaren bosgarren edizioa jokatu zen apirilaren 21ean. Oier Mikelarena eta Aritz Fagoaga herritarrek parte hartu zuten ibilbide laburrean (15 km). Bosgarren (1.21.28) eta hemezortzigarren (1.33.26) akitu zuten, hurrenez hurren.



Pulunpa eskolako ikasleak Uharteko izotz-pistan. ESKOLAK UTZIA

Pulunpa eskolako ikasleak azken hiruhilekoan murgilduak dabilta

Pulunpa eskolako irakasle eta ikasleek indartsu hasi dute azken txanpa. Gelaz kanpoko hainbat ekitalditan ere badabilta. Hasteko, Apirilaren 12an ospatu zuten Zuhaitzaren Eguna. LHko ikasleak Amezti Josuren granjatik lur eremuraino oinez joan ziren, HHkoak, berriz, autoan. Guraso elkartekoek gosari ederra prestatu zuten, taldeka landaketa egiteko indarrak hartzeko. Eguraldi ederra zegoenez, denak eskolako buelta oinez egin zuten. Lehen eta bigarren mailako ikasleak astelehenero Lesakako igerile-

kura joaten dira igeriketa klaseak hartzera; hirugarren eta laugarren mailako ikasleak Malerrekako eskola ttiketako ikasleekin batera, bi ortzegunez Uharteko izotz-jauregira joan dira patinetan ibiltzera. Ederki moldatu ziren, baina bat baino gehiagok ipurdiko ederrak hartu zituen. Akitzeko, apirilaren 22an Amalurraren Nazioarteko egunarekin lotuta, eskola guztiak bi abesti kantatu eta dantzatu zituzten. Hain polita den Zaldiboboren *Lurra* abestia abestu zuten eta Kantu koloreren *Esna zaitze* abestia dantzatu.

BRIKO BAZTAN, SL
 Drogeria · Garbiketa produktuak
 Ferreraria · Sukaldeko tresnak
 Mozorroak · Papertegia
 Kiroleko eta mendiko jantziak
 Moda · Oinetakoak
 Laneko arropa · Bitxiak
 Lurrin-denda
 Kosmetika, Elektronika
 Telefonoak · Poltsak eta mailetak
 Etab.
 T. 608 016 052
 San Andres, 66 - NARBARTE
 (Sarrera Legasatik)

ORBELA
 SENEKORROA
 BEINTZAKO OSTATUA
 Idola - Mikel
 Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
 info@orbela-beintza.com
 www.orbela-beintza.com

Ainhoa Altzuguren Mitxelena
 Abokatutza orokorrean · Herentziak
 Alokairuak · Arazo administratiboak
 Zerbitzua euskaraz ematen dut. Delitu hitzordua hartzeko
 Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

 facebook
 www.facebook.com/ttipi.ttapa



Gabenara taldeko kideak, joaldunekin eta dantzariekin, plazan. MAIALEN OROZ ETA JONE IZAGIRRE

Agur gozoa egin diote Gabenara musika taldeari

Herriko joaldunek, dantzariak eta herri kirolariak parte hartu zuten apirilaren 20ko azken emanaldiaren aurreko ekitaldian

FERMIN ETXEKOLONEA

Hasitako oholtza berean, Zubietan, eman zuen Gabenara taldeak bere ibilbideko azkeneko kontzertua apirilaren 20an. Hamabi urtez musikaz alaitu dituzte bateko eta bes-teko txokoak eta apirilaren 20an eskaini zuten azkeneko emanaldia. Bukaerak, hasierak bezalaxe, gozoak izan daitezkeela erakutsiz egun osoko ospakizuna izan zuten: joaldunak, dantzariak, herri kirol saioa, poteoa, bazkaria... eta musikariak bueltan lagun, senide eta zale ugari bildu ziren. Joaldunek egindako

pasabidetik igo ziren musika-riak oholtzara eta dantzarien aureskua ere izan zuten. Herriarren arteko herri kirol saioak ere ez zuten hutsik egin.

Herriarekin harreman berezia izan du beti Gabenara taldeak. Urtean Mattin Arbelaitz zubietarrak jo du taldean. Taldearen izena ere, hasieran Xaguxarrak izatekoa omen zen, baina Zubietan hegazti ugaztun horri gabenara deitzen zaionez, izen horrekin *bataiatu* zuten taldea ere.

Egunak argitu eta txoriak kantuan hasi arte festan ibili ziren gabenarak.



Herri kirol saio polita izan zen.



Joaldunen artetik igo ziren oholtzara.



Gabenara azken aldiz oholtzan.

Lehen jaunartzea eta maiatzeko aingeruak

Herriko hiru neskek, Inma Castrok, Enea Hualdek eta Naroa Elizaldek, lehen jaunartzea egingen dute maiatzaren 5ean, hileko igande hone-tako mezan. Zorionak hiruei. Ondotik, urtetako ohiturari eutsiz, maiatzeko igandetako mezetan amabirjinari lore eskaintzak egingen dizkiete maiatzeko aingeruek, igandero igandero. Sei neska ariko dira zeregin horretan: Noa Bendoiro, Elaia Santesteban, Enea Hualde, Intza Iribarren, Inma Castro eta Naroa Elizalde.

Malerrekako Egunerako mus txapelketa herrian

Hamaikagarren Malerrekako Eguna Saldiasen egingen dute aurten, maiatzaren 25ean. Egun horretako ikur den zurrezko armarrin hamaigarren irudia egin du Migel Arregi herritarrek, Saldiasko armarrin. Horrez gain taloak, paella, joaldunak, eskulangileak... joaten dira Zubietatik. Egun horretan jokatzeko den bailarako mus txapelketarako sailkatzeko herriko mus txapelketa maiatzaren 11n jokatu dute, larunbatean 16:30ean Herriko Ostatuan. Txapeldu-nak ordezkatuko du herria.

 **MINIESKABAZIOAK**
MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat
Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

 **DESINERA**
DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK • HEGAZTIEN KONTROLA
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

 **MÁRMOLES AMEZTI**
Desde 1994
SUKALDEKO ETA KOMUNEN EGITEN DITUGU
info@marmolesamezti.com • www.marmolesamezti.com
Iruñea Iruñe errepidea, z/g.
ORONOZ-MUGAIRI
T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295

Narbarteko kontzejua desagertzeaz

Azken bi hauteskundeetan zerrendarik aurkeztu ez dela ikusita, gobernuak desagertzeko espedienteari hasiera eman dio

TTIPI-TTAPA

309 biztanlerekin, desagertze-ko bidean dauden Nafarroako bederatzi kontzejuen artean, handiena da Narbartekoa. Azken bi hauteskunde prozesuetan zerrendarik aurkeztu ez delako ailegatu da egoera horretara.

Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak Narbarteko kontzejua desagertzeko espedienteari ofizioz hasiera ematea erabaki du eta hala argitaratu zuten apirilaren 18ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Espedientea jende aitzinean argitaratuta, kontzejua desagertzeari buruzko alegazioak aurkezteko aukera zabalik dago geroztik eta hilabeteko epea izanen da horretarako. Egoitz Gamio egungo alkateak TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, «badugu alegazioak aurkezteko asmoa».

Hauteskunde deialdiak hutsik

Hauteskundeetan zerrendarik ez aurkeztearena ez da kontu berria Narbarten. 2015eko hauteskundeetan hasi zuen

Gamioren alkatetza taldeak agintaldia. Orduan ere ez zen zerrendarik atera lehenbiziko deialdian, eta bigarrenean aurkeztu ziren. Lau urteren buruan, ez zen hautagairik aurkeztu hauteskundeetan, ez lehenbiziko deialdian, ez bigarrenean. Horren ondotik, Gamiok eta bere taldeak kudeaketa batzordea osatu zuten. 2023ko hauteskundeetan ere, ez zen zerrendarik atera, ez lehenbiziko deialdian, ez bigarrenean. Eta hala, bi hauteskundeetan segidan inor aurkeztu ez denez, kontzejua desagertzeko espedienteari hasiera ematea erabaki du gobernuak, legeak hala ezarria baitu.

Desagertzeko hiru arrazoi

Legearen arabera, hiru arrazoi egon daitezke kontzejua desagertzeko: errolatutako herritar gehienek idatziz hala eskatuta; kontzejuko gobernu organoak hala eskatuta, kideen legezko kopuruaren bi herenen gehien-goarekin; edo azken bi hauteskunde prozesuetan segidan hautagairik aurkeztu ez bada.

Narbarteko I. Mendi Martxa maiatzaren 18an egingen dute

MAITE BERTIZ

Herriko gazteek antolatuta, maiatzaren 18an, Narbarteko lehenbiziko mendi martxa egingen dute. 09:00etan plazatik aterako dira eta herriko kaskora igoko dira, gaur egun Oteixon (694 m) deiturikora, baina herrian betitik Harrondoko *peña*

edo haitza deitu izan dena. 9,03 kilometro mendi buelta izanen da eta martxaren ondotik, bazkaria egingen dute. Arratsaldean musean aritzeko aukera izanen da eta poteoa ere egingen dute. Antolatzaileek erran dutenez, ez dira gertatzen ahal diren ezbeharren erantzule egingen.



Joana Estanga eta Sonia Elizondo nagusitu ziren musean. ARANTXA ITURRALDE

Itur-Ondo elkartearen 25. urteurrena giro ederrean ospatu dute

ARANTXA ITURRALDE

Bazkideen eguna ospatu dute aurten ere Beintza-Labaiengo Itur-ondo elkartearen. Aurtengoa, gainera, berezia izan da, 25. urteurrena ospatu baitute. Apirilaren 20an egin zuten: goizean aizkora erakustaldia izan zuten eta batetik, Dolareko Jesus eta Otxoneko Jacinto, eta bestetik,

Kañamares aita-emeak aritu ziren; eguerdian bertso bazkaria egin zuten Mendiluze eta Illarregirekin eta ondotik, mus txapelketa. Sonia Elizondo eta Joana Estanga izan ziren txapeldun eta Ainhoa Andueza eta Maria Legazkue txapeldunorde. Irabazleak Malerrekako Egunean herriko ordezkari izanen dira.



Urradiko etxolak itxura penagarria hartu zuen. A. ITURRALDE

Beintza-Labaiengo Urradi mendiko etxolan kalteak

ARANTXA ITURRALDE

Duela aste pare bat erabat xehatua agertu zen Beintza-Labaiengo Urradi mendiko etxola.

80ko hamarkadan eraiki zuten ehiztariek eta bere garaian, 2,6 kilometrotara dagoen Ezkurrako errekatik ura ere eramane zuten auzolanean txabo-

lara. Gaur egun, herritarrek noiznahi erabiltzen duten lekua da, mendi buelta baten ondotik, bertan elkartu eta gosaltzeko edo bazkaltzeko leku aproposa baita. Betitik izan da herritarrendako gus-tuko tokia, inguru ederraz gozatzeko aukera paregabea ematen baitu.



Eguraldi euritsua zenez, xirak eta guardasolak lagun egin zuten itzulia.

Arkupeak elkarteko mendizaleak Leitzan izan dira apirilean

65 mendizale elkartu ziren Leitzan mendira joateko. Maiatzeko 16tean Baztanen barna egingen dute itzulia

TTIPI-TTAPA

Ohiturari jarraituz, hilabeteko hirugarren asteartean, apirilaren 16an, elkarteko 65 mendizale elkartu ziren mendira joateko. Asmoa Basakabitik abiatzea bazen ere, eguraldi txarra eta euria tarteko, Leitzako plazatik abiatu ziren guardasola eta xira jantzita. Herria lasai-lasai ikusi ondotik, San Kruz basilizara igo ziren. Han gosaldtu, eta Kornietara igo ziren.

Berueteko haize errotak hurbiletik ikusi eta gero, Basakabira jaitsi ziren, eta handik Labardinen barna Leitzara



Mendizaleak Leitzan barna. UTZITAKOIA

itzuli ziren. Azken kilometroak Plazaolako bide berdean egin zituzten. Lau orduz ibili ondotik, Lopenean bazkaldtu zuten.

Maiatzean, Baztanen elkartuko dira.



Santiagorainoko bidea osatzen ari diren elkarteko lau bazkideak. UTZITAKOIA

Donejakue bidearen Zilarrezko ibilbidea osatzen ari dira elkarteko lau bazkide

TTIPI-TTAPA

Elkarteko bazkide diren Maite Esnaola, Maria Claire Murua, Maria Isabel Ansa eta Luixa Elizalde Donejakue bideko Zilarrezko ibilbidea osatzen ari dira.

Iaz hasi zuten abentura eta aurten Puebla de Sanabriatik atera (Zamora), eta Santiago

de Compostelarako bidea osatu nahi dute.

Puebla de Sanabriarainoko bidea trenez egin zuten, eta ondotik hasi zuten oinezko zatia. Bidean paisaia eta herrixka politak ikusi dituzte, eta lerro hauekidazterakoan, oraindik ere azken egunak falta zituzten Santiagoa iristeko.

Oronoz-Mugairin eta Oieregin delegatu berria dute

Urte saila eman ditu Rosa Bertizek Oronoz-Mugairiko eta Oieregin delegatu gisa. Atsedeen hartzea erabaki du orain, eta dagoeneko zehaztu dute zein izanen den ordezkia: Tere Arretxea. Mila esker Rosari egindako lanagatik, eta ongi etorri Tere!

Benidormera joanen dira elkarteko hainbat bazkide

Azken aldizkarian aipatu genuen bezala, elkarteko bazkideak Benidormera joatekoak dira maiatzean. Igandean, hilaren 5ean abiatuko dira autobusez eta hamar egun oporretan egon ondotik, hilaren 15ean itzuliko dira. Ongi pasa!



KULTURKARI
Docena grafika | Publizitatea
www.kulturkari.com

Biniloak

Pareta eta erakusleihoetarako

Neurrira eginak, azido efektua, elektrostatiakoak, gardenak, jartzeko errazak...






Bizikleten salmenta eta konponketa.

-  Kanttonberri, 1 | BERA
-  T. 948 631 218
-  joxemi@kateabike.com
-  www.kateabike.com











Udal ordezkariak proiektuen gaineko kezka helarazi zioten Aierdi kontseilariari.

Zelena enpresak ate joka segitzen du

Zelena enpresak Azkua eta Irakurri proiektuen hasierako txostena aurkeztu du Ingurumen Departamentuan

TTIPI-TTAPA

Zelena Renewable enpresak Azkua eta Irakurri proiektuen hasierako txostena aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamentuan –ez da proiektua–, eta horren bidez, Ingurumen Inpaktuaren Azterketen irismena zehazteko eskatu dio Ingurumen Departamentuari, hau da, ingurumen aldetik Azkua eta Irakurri proiektuek izanen luketen eragina zenbaterainokoa izanen litzatekeen zehazteko.

Atariko fase honetan, «balizko eraginak xehetasunez aztertu beharko ditu» Ingurumen

Zuzendaritza Nagusiak. Dokumentu horretan oinarrituta, Zelenak dagokion Ingurumen Eraginaren Azterketa egin edo ez erabaki beharko du.

Jose Maria Aierdi Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria eta Ana Bretaña Ingurumeneko zuzendari nagusia Doneztebeko, Sunbillako, Iturengo, Zubietako, Beintza-Labaiengo, Eratsungo, Oizko, Saldiasko, Etxalarko, Igantziko eta Arantzako udal ordezkariak bildu ziren apirilaren 23an, alkateek hala eskatuta. Momentuko egoera zein den jakinarazi zuten kontseilariak, eta eskual-

deko udal ordezkariak Azkua eta Irakurri proiektuek «ingurumenean izanen litzatekeen kalte larriekin kezkatuak» daudela jakinarazi zioten. Hasierako txosten horren arabera, Azkua proiektuaren barrenean 12 eta Irakurri 11 aerosorgailu eraiki nahi dituzte.

Konexio gatazka

Irakurri eta Azkua makroproiektuak egin nahi dituen Zelena enpresaren eta enpresa banatzailearen (Iberdrola) artean sortutako konexio gatazka ebazti eta bi aste eskasera etorri zen berria. Proiektuek aitzinera egitekotan, egin beharko liratekeen inbertsioek sortu zuten gatazka. Zelena enpresak Iberdrolarena den Doneztebeko azpiestazioa erabiltzea proposatu zuen, baina Iberdrolak erantzun zion ez zuela sarbide horretarako gaitasunik eta azpiestazio berria eraiki beharko luketela eta inbertsio horiek ez litzatekeela bere gain hartuko.

Horrekin ados ez, eta Zelena enpresak helegitea aurkeztu zuen. Helegite hori MLBN (Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala) batzordeak ebazti zuen eta ebazpena Iberdrolaren aldekoa izan zen. Alegia, Zelenaren gain geldituko lirateke

azpiegituren inbertsioak guztiak, tartean, zazpi bat milioi euro kostako litzatekeen azpiestazio berria egitea. Uxue Itoiz Nafarroako Gobernuako Industria, Energia eta Proiektu Estrategikoen Zuzendari Nagusiak ere Zelenaren eskaera ez onartzea ebatzi zuen.

«Eragina xehetasunez»

Baina enpresak ate joka segitzen du, eta hasierako txostena aurkeztu du Ingurumen Departamentuan. Eta aipatutako departamentuak «balizko eraginak xehetasunez» aztertu beharko direla jakinarazi zuen udal ordezkariekin egindako bileran, tartean, «Bidasoa ibaiko Kontserbazio Bereziko Eremua eta hegaztiak, bertan bizi den eta ugaltzen den fauna, ibilbide atlantikoan migraziorako pasabide garrantzitsua dela eta Pirinioen eta Kantauriko mendikatearen artean harrapari handien lotura ekologikoko eremua dela kontuan hartuz». Biodibertsitateari ere erreparatuko diola erran zuen, «bereriki florari: habitatak, arbola eremu handiak...». Horrez gain, «lurzoruaren erabilera tradizionalekin, hau da, oihangintzarekin, ehizarekin edo kulturarekin bateragarria dela bermatu beharko da».

Aurreikusitako proiektuak Natura 2000 Sarearen barrenean ez badaude ere, «sare hori aztertu» behar dela adierazia zuen gobernuak bileran, «erreferentziatzen 10 eta 50 kilometro arteko distantziak hartuta».

ESKUALDEKO 11 UDAL ORDEZKARI BILDU DIRA AIERDI KONTSEILARIAREKIN

Baztan-Bidasoko turismo mapa berria aurkeztu dute

TTIPI-TTAPA

Uraren Bailarak turismo marka osatzen duten 18 tokiko erakundeek turismo mapa berria osatu dute. Bizikletentzako eta oinezkoentzako ibilbide eta bidezidor nagusiak (Bidasoko Bide Berdea, Uraren Bidea, Ederbidea, Eurovelo 1 Europa-

ko ibilbidea, Baztango Donejakue bidea eta GR ibilbideak); eta Nafarroa Ezagutu Sareko guneak bildu dituzte (Bidasoko Bide Berdea, Leurtzako urtegiak, Zubietako errota, Iruritako dorrea, Bizibide BBT ibilbideak Lesakan, Bertizko Natur Parkea eta Zugarramurdiko leizeak).



Martxoaren 20an aurkeztu zuten mapa Donezteben. URAREN BAILARAK



Jendetzak parte hartu zuen pasa den urteko Sagardo Egunean. ARTXIBOA

46. Kultur Aroa maiatzaren 17tik ekainaren 15era

Aurrera Kultur Elkartearen eta herriko eragileen eskutik, kulturaz gozatzeko aukerarik ez da faltako datozen asteetan

TTIPI-TTAPA

KulturAroaren 46. edizioa maiatzaren 17an hasi eta ekainaren 15ean bukatuko da. Beste urte batez, egitarau potoloa osatu dute Aurrera Elkarteak eta herriko eragileek.

Maiatzaren 17an Josebe Blacok idatzitako *Hausnarrean* liburuaren aurkezpena egingen

dute liburutegian eta mokadutxo ere eskainiko dute.

Maiatzaren 18an, *Orreaga 824. gure estatuaren sorrera* erakusketa aurkeztuko dute Peru Harrin. Jeiki Abesbatzak eta Aurrerako dantzariak ere parte hartuko dute ekitaldian.

Maiatzaren 19an Emakume Artzainen Eguna ospatuko dute.

Artzaintzarekin lotutako hainbat ekitaldi izanen dira eta, tartean, Leitzako emakume artzainak omenduko dituzte.

Maiatzaren 20an herri aretoan Eñaut Elorrieta eta Mikel Markezzen eskutik *Baga biga higa* emanaldiaz gozatzeko aukera izanen dute Amazabal Institutuko ikasleek.

Maiatzaren 21ean, 19:30ean *Natura bixiak* hitzaldia eskainiko du Miel Mari Elosegik.

Maiatzaren 23an Palestinako egoerari buruzko hitzaldia eskainiko du Yala elkarteak, 19:30ean Herri Aretoan.

Maiatzaren 25ean, goizean, Nafarroako editoreen azoka egingen dute plazan eta 20:30ean bertso afaria izanen dute Musunzar ostatuan Joanes Illarregi eta Aitor Mendiluzerekin.

Maiatzaren 26an, Eskulangintza Azoka egingen dute eta ekainaren 8an Sagardo Egunearen txanda izanen da.

Ekainaren 15ean bukatuko da KulturAroa. Jeiki Abesbatzak 50. urteurreneko festa ospatuko du plazan eta gonbidatu ugarik parte hartuko dute. Ekitaldiei buruzko informazio gehiago hurrengo aldizkarian izanen duzue. Txartelak liburu denda eta ostatuetan jarriko dituzte salgai.

'Petare: Miren Egigurenen puskak' liburua hizketagai

Hilabeteroko hitzorduekin segitzen dute Leitzako Irakurle Taldeko kideek eta hurrengo juntadizoa heldu den asteazkenean, maiatzaren 8an, egitekoa dute 18:30ean liburutegian. *Petare: Miren Egigurenen puskak* liburua izan da hilabete honetako irakurgai eta irakurleek taldean elkarbanatuko dituzte liburua irakurtzerakoan egin dituzten gogoetak. Gainera, hilabete honetako bilera berezia izanen da; Miren Egiguren liburuaren protagonistak berak ere parte hartuko duelako solasaldian.

Jeiki eta Iruñeko Orfeoia elkarrekin maiatzaren 4an

Jeiki abesbatzaren 50. urteurreneko ekitaldien baitan, Iruñeko Orfeoia kontzertua eskainiko du Elizan 20:00etan. Jeikiko kideek ere lau abesti abestuko dituzte beraiekin. Hainbat ezusteko izanen direla iragarri dute. Sarrera 15 euro ordaindu beharko da.

Zinema, erakusketa eta antzerkia Herri Aretoko agendan

Maiatzeko lehenengo hamabostaldian zinemaz gozatu, erakusketa bat bisitatu eta antzezlan bat ikusteko aukera izanen da Leitzako Herri Aretoan. Maiatzaren 1etik 18ra arte, *Bollologia. EH-ko Bolleren genealogia bisual bat* erakusketa jarriko dute ikusgai. Maiatzaren 4an eta 5ean, *Dragoi jagolea* filma emanen dute 17:00etan eta 19:30ean *Radical* eskainiko dute. Maiatzaren 12an *Putaren bakarriketa eroetxean* antzezlan eskainiko du Laura Penagos aktoreak, 19:00etan.



ENERITZ IRAOLA

Leitzaldean pediatra orain! jartzeko eskaera

Zartariak, panderoak, zintzarriak eta tronpetak hartuta kalera atera ziren apirilaren 12an. 450 herritar inguru elkartu ziren: urte hasieratik bizi duten egoera onartezina dela salatu eta konponbide duin bat emateko eskatuz.



Leitzako Osasun Etxeko langileak. UTZITAKO ARGAZKIA

Euskararen erabilera indartzeko ekimena osasun etxean

Nafarroako Osasun Departamentuaren Hizkuntza Planaren baitan, Elhuyar Aholkularitzarekin batera, egin dute lanketa

TTIPI-TTAPA

Langileen artean euskararen erabilera indartzeko lanketa berezia egin dute Leitzako Osasun Etxean. Nafarroako Osasun Departamentuak duen Hizkuntza Planaren bidez, Elhuyar Aholkularitzarekin batera, erakunde euskara normalizatze-ko aurrerapausoak eman nahi dituzte. Herritarrek euskarazko arreta jasotzeko beharrezko neurriak hartzea, herritarrei ele biko informazio idatzia eskaintzea eta errotulazioa eta hizkuntza-paisaiako informazio-elementuak ele bitan izatea herritarrek artatzeko gune fisikoetan.

2023ko abenduan hasi eta 2024ko martxora bitartean, hamar bat lagunek parte hartu dute egitasmoan (medikuak, erizainak, harreragileak...). Hasiatik helburua oso argi izan dute: barruko barne-harremetan eragitea, euskararen erabilera indartzeko eta euskara lan-hizkuntza izateko.

Dinamikari hasiera emateko, osasun etxeko zuzendaritzarekin eta langileekin hizkuntzen kudeaketa eta jarraipenari buruzko saioa egin zuten. Ondoren, Mintzasarea proiektua jarri

zuten martxan. Mintzasarea langileen arteko euskararen erabilera handitzeko ariketa da. Borondatezkoa da eta bertan parte hartzeko baldintza da euskarazko gutxieneko ulermena izatea. Talde-ikuspegia duen ariketa da; izan ere, Mintzasarean parte-hartu duten 10 bat profesionalekin taldetxoak sortu eta euren arteko harremanetan euskara zenbat erabiltzen den jaso dute. Euskararen erabilera handitzeko eusleak identifikatu dituzte, euskarari eusten dioten pertsonak. Azkenik, partaide bakoitzak 2-3 konpromiso zehaztu ditu, hurrengo asteetan euskaraz gehiago zein lankiderek egin duen jasotzeko.

Guztira, aurrez aurreko hiru saiok osatu dute ariketa sozial hau. Parte-hartzaileek oso ondo baloratu dute Mintzasarea, besteak beste, baliagarri iruditu zaie ohiturak aldatzeko eta norberak egiten duen euskararen erabilera jabetzeko. Dinamika hasi baino lehen, euskaldunen arteko euskararen erabilera (euskaraz eta batez ere euskaraz hitz egiten zutenen kopurua) %64koa zen. Azken fasean, ordea, %86an gelditu da.



MENDIBIL MENDI TALDEA

Mendi Astearen estreinaldi arrakastatsua

Aurrera Mendibil Mendi Taldeak Mendi zikloa antolatu du estreinakoz. Apirilaren 18tik 21era, bi mendi irteera eta hiru proiektzio antolatu dituzte. Antolatzaileek aipatu dute jasotako erantzuna oso ona izan dela: «emanaldietan 60 lagunetik gora bildu dira eta helduen mendi irteera 50 bat mendizale».

Erreloak egin ahal izateko bete beharreko baldintzak jakinarazi ditu udalak

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 31ra arte erreloak egiteko aukera dago, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira. Ehun metroko distantzian landare multzo edo basorik ez badago, erreloak baimenik eskatu gabe egin ahalko dira. Bestela, basozainen baimena behar da. Hala ere, erreketan lanetan hasi baino lehen, Nafarroako Gobernuak argitaratutako sute arriskuaren indizea kontsultatu behar da. Erreketa lanak argitzen duenetik ordu bete pasa arte ezin dira hasi eta sua ilundu baino bi ordu lehenago itzali

beharko da. Hondakin begetalak erretzea baimentzen dute eta erre beharrekoak mordo txikietan pilatu beharko dira. Guztiz debekatuta dago bestelako hondakinak erretzea. Gainera, haizeak kea etxebizitzara errepide edota bide publikoetara eramateko arriskua dagoeanean ezin da erreketarik egin. Erreketa lanak egiten dituen pertsonak gai izan beharko du 112ra deitzeko larrialdiren bat gertatzen bada. Gomendio orokor gisa, konpostatu daitekeen guztia konposatzeko aholkatzen da.

Udalak mendi larreak mantentzeko laguntzak lortu ditu

Azienda zaintzaile lanetan ariko den pertsona bat kontratatu eta larreetan mantentze-lanak eginen dituzte

TTIPI-TTAPA

Mendi larreen kudeaketarako 25.900 euroko dirulaguntza lortu du udalak. Orain arte babestutako eremuetarako bakarrik ematen zuen dirulaguntza hau Nafarroako Gobernuak, baina 2024an Nafarroako eremu guztietara zabaldu dute proiektuak aurkezteko aukera. Dena den, hainbat baldintza bete behar zituzten eskaera aurkezten zutenek; besteak beste, larre plana egina izatea. Udalak bost urterako proiektua aurkeztu zuen eta gobernuaren oniritzia jasota, datozen bost

urteetarako bermatua du laguntza jasotzea.

Azienda zaintzaile lanetan ariko den pertsona bat kontratatu du udalak eta %100 diruz lagundua izanen da. Apirilean hasi eta urrira arte ariko da azienden osasuna eta ongizatea bermatu eta larre bakoitzeko arauak betearazten. Mantentze-lanak ere eginen dituzte: asken mantentze-lanak egin, aska berriak jarri, hesiak konpondu, zakarrak galtzeko lanak egin... mantentze-lan hauek %70ean diruz lagunduko ditu Nafarroako Gobernuak.



143 helduk parte hartu dute lasterketan. ANDREA CASARES

Herri krosaren itzulerak aurreikuspen guztiak hautsi ditu

TTIPI-TTAPA

Lau urteko etenaldiaren ondoren, gogotsu hartu zuten korrikalariak Leitzako Herri Krosaren itzulera. Apirilaren 13an jokatu zuten proba herrikoia eta aurreikuspen guztiak hautsi zituzten parte hartzaile kopuruek. Benjaminetan azkeneko urteetan baino ko-


rrikalari gehiago izan ziren, 67 gaztetxok parte hartu zuten proban eta 143k helduetan. Taldeka parte hartu eta axuria irabazteko erronka ere luzatu zuten antolatzaileek eta izena eman zuten sei taldeek lortu zuten erronka gainditzea. Antolatzaileek «balorazio oso ona» egin dute.

Ibai Azurmendi txirrindulariak bere ibilbide profesionala bukatzea erabaki du

ENERITZ IRAOLA

Sare sozialetan eman du berria Euskaltel Fundazioko txirrindulariak: «bihotzean topatutako alterazio batzuen ondorioz, nire ibilbide profesionala bukatutzat ematea erabaki dut». Galiziako itzulian ezohiko sintomak sumatu zituen, hainbat mediku azterketa egin zizkioten eta bihotzean alterazio batzuk topatu dizkiote. Hauek aztertu ondoren, bere «segurtasuna jokoan» dagoela ikusi dute eta medikuen gomendioak jarraituz, txirrindularitza profesionala uzteko momentua dela erabaki dute.

«Erabaki tristea baina egokia» dela daki. Aitortu du aste zailak izan direla, «azterketak egin ahala, txirrindulari profesionala izaten jarraitzeko nire ametsa itzaltzen ikusi dudalako». Hala ere, harro dago orain arte goza-



27 urterekin hartu du erabakia.

tzeko aukera izan duelako: «pribilegiatu bat sentitzen naiz nire ametsa egia bihurtzeko aukera izan dudalako». Esaldi honekin borobildu du gutuna: «poztasuna bidean dagoela ikasi nuen eta ez hainbeste helmugan. Horregatik, etapa hau ixten dut egunero gozatu dudala jakinda, egun bakoitza azkena balitz bezala». Orain etapa berri bat heldu dela daki, «erronka berriekin, baina ziur nago errepi-deetan ikusiko dugula elkar».



Kabaret emanaldia eskaini zuten hainbat artistek bazkalondoan. IRATI IPARRAGIRRE

Palestinaren aldeko erresistentzia jaialdi borobila egin dute

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 13an Palestinaren aldeko erresistentzia jaialdia egin zuten Atekabeltz gaztetxean. Bertako kideek egun borobila izan zela aipatu dute: «hitzalditik, bazkarira eta kabaretetik gauko ekimenetara. Elkar zaintza eta babesa nabarmen zela joan zen eguna».

Ester Muñoz Askapenako kideak *Zer gertatzen ari da Palestinan?* hitzaldia eskaini zuen eta horrekin batera, kabareta, tekno punk jaialdia eta Djak izan ziren eguneko ekitaldien parte. Gaztetxeko kideek eskerrak eman nahi izan dizkiete gerturatu ziren guztiei.

'Kutsidazu bidea Ixabel' antzezlanaren maiatzaren 12an

Txalo Talo Antzerki Taldeak eskainiko du emanaldia udaletxeko karrapean 18:30ean

ENERITZ IRAOLA

Maiatzaren 12an, igandean, *Kutsidazu bidea Ixabel* antzezlanaren eskainiko du Txalo Talo Antzerki Taldeak. Udaletxeko karrapean jarriko dute oholtza eta 18:30ean hasiko da emanaldia. Haur, gazte zein helduentzako egokia den antzezlanaren da eta sarrera dohainik izanen da.

Ester Povedak zuzenduta, sei aktore igoko dira oholtzara eta tartean izan da Ana Goñi herritarra.

Umorea nagusi

Joxean Sagastibeltzak 1994an argitaratutako eleberri laburra du oinarrian antzezlanak. 1978ko uztailean Juan Martin, donostiar gaztea, Tolosaldeko baserri batera doa euskaltegian ikasitako euskara hobetzera. Umorea handiz, guztiz ezeza-



Ana Goñi herritarra oholtzan ariko da.

guna zaion mundu honetan Juan Martinek dituen arazoak kontatzen ditu: baserriko egunerokotasunari eta hizkuntza arazoei egin beharko die aurre.

Aldez aurretik ere, emanaldia eskaini izan dute herrian Txalo Talo Antzerki Taldekoek. Azkenekoz pasa den urteko irailean eta txiki gelditu zen udaletxeko batzar aretoa. Hori aurreikusita, emanaldia udaletxeko karrapean egitea erabaki dute oraingoa.



NAZABAL ESKOLA

Miren Agur Meabe idazlearen bisita

Liburuaren Nazioarteko Egunaren aitzakian egin zioten idazleari Nazabal Eskolara etortzeko gonbidapena. Azken urteetan argitaratu duen *Katta* liburu bildumari buruz aritu zen solasean eskolako tikienekin eta hauek adi-adi entzun zituzten kontatutakoak.

Jostailu bilketak erantzun bikaina izan du

Guraso elkarteak jostailu bilketa antolatu zuen eta herritar ugarik egin zuten bere ekarpena. Jasotako jostailuak, patinak... Mendialdea Mankomunitatearen esku utzi dituzte eta hauek larrialdi egoeran dauden familiak artatzen dituzten zentrori eramanen dituzte.

Fruta eta barazki kanpaina egiten ari dira eskolan

Haur eta gaztetxoek obesitate maila jaisteko, fruta eta barazki kanpaina egiten ari dira eskolan. Astean hirutan, fruta pieza bana banatzen diete ikasleei. Nafarroako Gobernuak sustatuta, ekainaren 7ra arte egiten duten ekimena da.



JAIONE OLAZABAL

Aresoarrek ere pediatra behar dutela eskatu dute

Apirilaren 12an elkarretaratzea deitua zuten Leitzaldeko hainbat gurasok Areson, Leitzan eta Goizuetan. Herriko berrogeita hamar bat lagunek bat egin zuten Leitzaldean pediatria zerbitzua orain berrezartzeko eskaerarekin.

Baserrien argazkiak eta tresna zaharrak bildu nahi dituzte

Urriaren 13an egingo dute Areson Mendialdeko Azoka Ibiltaria. Oraindik urruti dago hitzordua, baina badituzte pixkanaka prestatzen joan nahi duten kontuak. Azoka eguna baliatuta, herriko baserrien inguruko erakusketa antolatu nahi dute eta garai bateko argazkiekin batera, baserriko tresneria ere jarri nahi dute ikusgai. Erakusketa osatzeko herritarrei eskatu nahi diete laguntza: baliagarriak izan daitezkeen tresnak edo argazkiak dituztenak jar daitezela harremanetan udal taldekoekin.

Eskolan egin beharreko obrak esleitu ditu udalak

Iruñeko IZ4 enpresa arduratuko da lanak egiteaz eta hogeitaste epea izanen dute bukatzeko

TTIPI TTAPA

Eskolako eta jangelako erai-kinean ingurutzaille termikoa jartzeko proiektua aurrera doa. Berriki esleitu dituzte lanak eta Iruñeko IZ4 enpresa arduratuko da. Hogeitaste epea izanen dute lanak bukatzeko. Proiektuak 266.555 euroko kostua du eta hori finantzatzeko 194.435 euroko dirulaguntza eskuratu du dagoeneko udalak. Momentuz, 68.000 euroko kostua izanen luke udalarentzat. Dena den, Hezkuntza Departamentuan dirulaguntza eskaera egiteko asmoa dutela argitu du Unai Miranda alkateak eta hori onartuko balute, obra ia ehuneko ehunean finantzatuta egonen litzateke.

Eraikinean ingurutzaille termikoa jarrita gasaren premia gutxitu eta energia kostua



Energia gastua murriztea da helburua.

gutxienez %30 aurreztea aurreikusten dute.

Pediatraren auzian mozioa

Udalak bat egin du herritarrek eta bereziki haurrak dituzten familiek adierazten duten ezinegon eta kezkaekin. Apirilaren 16an egin zuten ezohiko udal batzarrean mozio bat proposatu zuten Nafarroako Gobernuak arazo honi irtenbide egokia behingoz eman diezaion eskatzeko.



Jose Jabier Etxeberria herritarrak azalpenak eman zituen. ARAINBURU MENDI TALDEA

Hogeitaste lagunek ibilaldia osatu dute Goizuetako errotarren inguruan

TTIPI-TTAPA

Paraje ederrak ikusi eta herriko ondareari buruz ikasteko aukera izan zuen apirilaren 13an bildu zen mendizale kuadrillak. Arainburu Mendi taldeak antolatu zuen irteera eta eguraldi bikaina lagun, ote tarteetan dauden errotarren aztarnak aurkitu eta Jose Jabier Etxeberria herritarrak emandako azalpenak entzuteko parada ederra izan zuten partaideek. Urganbideko Harrira joan ziren, errotarren harrobi izan zen mendira. Harkaitz eta ote artean ezkatututa, baina oraindik ere ongi naba-

riak dira bertan garai bateko harrobiaren arrastoak. Datu historiko interesgarriak eman zituen Etxeberriak, prozesua nola izaten zen azaldu zuen eta nabarmendu zuen «erroten pieza nagusiak diren errotaria lortzea eta garraiatzea lan nekagarria» izan dela beti. Kontatu zuen harginek nola egiten zuten pausoz pauso lana: «Iur zoruko harri egoki bat bilatu, zuloak egin eta ziriak sartuaz harri bloke bat ateratzen zuten. Han bertan zizelaz errotaria bukatu eta gurdi batera kargatu ondoren, errotara eramaten zuten».



ZURIÑE LUJANBIO

Pediatra eskatzeko elkarretaratze jendetsua

130 bat herritar bildu ziren apirilaren 12an Goizuetan ere pediatra behar dutela aldarrikatzeko. Leitzako Osasun Etxeko pediatra zen astean bitan herrira etortzen zena, baina urte hasieratik pediatrarik ez dagoenez, Iruñera joan beharra dute.

Maiatzaren 4an mendi irteera Arainbururen eskutik

Gozain, Urdallu eta Artikutza lotuko dituzte maiatzaren 4an egiten duten ibilaldian. Herriko plazatik abiatuko dira 08:00etan eta Arriurdinetatik Gozain aldera joko dute. Handik Urdallura igo eta Artikutza barna, Unalbidera joan dira Arriurdinetara bueltatzeko. Bost ordu eta erdi inguruko itzulia izanen da eta 13:30erako bukatzea aurreikusten dute. Bakoitzak bere hamaiketako eraman beharko du eta jakinarazi dute Arriurdinetara joateko autoak eramateko boluntarioak beharko direla.



Omenaldi hunkigarria egin zion udalak BKTri apirilaren 13an eta jendetza bildu zen kiroldegian. ONDIKOL

«Baztango ia emakume guztiek probatu dute eskubaloia»

BELEN URRUTIA HUALDE BKT-KO IDAZKARIA ETA KIROL KOORDINATZAILEA

Apirilaren 13an Baztango Udalak eskubaloi taldea omendu zuen, urte luzez emakumeen kirolaren alde egindako lanagatik. Taldearen ibilbideaz mintzatu da Belen Urrutia juntakidea

R. OSKARIZ

Duela 36 urte sortu zen BKT eskubaloi taldea, eta gaur egun emakumeen kirolaren erreferente bihurtu du Baztanen. Taldearen historia eta egungo egoeraz solastatu da Belen Urrutia, jokalaria ohia eta batzordeko kide gaur egun.

Nola sortu zen BKT eskubaloi taldea?

70eko hamarkadan Elkartasuna eskubaloi taldea sortu zen Baztanen, baina mutilak bakarrik aritzen ziren bertan. 1978an neska batzuk hurbildu ziren Iñaki Uriarte eta Jose Miguel Barberena *Xumuxu* entrenatzaileengana, kirola egin nahi zutelaren erranez, eta haiei esker hasi ziren. Orduan

ez zuten izenik ere, eta Baztan Kirol Elkartearekin, futbol taldearendako zen elkarte, eman zituzten lehenbiziko pausoak eskubaloiari. 1988an, berriz, eskubaloiak bere kabuz segitzeko Baztango Kirol Elkartea sortu zuten; lehenbiziko estatutuak idatzi, batzordekideak erabaki, eta maiatzaren 4an hasi zen martxan kluba. Emakumeei kirola egiteko aukera bat ematea zen taldearen helburua.

Hasieran neskek eta mutilak aritzen ziren taldean, ezta?

Bai, kristoren afizioa izan zen garai hartan, eta sekulako lehia izaten zuten Errekarekin. Jendetza hurbiltzen zen partiduak ikustera, mutikoenak

zein neskenak. Elizondoko frontoian aritzen ziren, orain Baztan pilotalekua dena. Hor hasi ginen baztandarrak erakusten lehitzeko gai ginela eta gehiago lortzeko potentziala genuela. Gizonek 1987an utzi zuten baina emakumeek eskubaloiarekin segitu genuen, eta kluba mailaz igo eta haunditu egin zen. Erakutsi genuen emakumeak ere goi mailako kirolean aritzen ahal garela.

Noiz hasi zinen eskubaloiari?

1980an hasi nintzen entrenatzen, 10 urterekin, Elizondoko eskolan. Lehenbiziko egunean ez nuen bakarrik joan nahi eta bizpahiru lagun hasi ginen. Oroitzen naiz maila haundiko

jendea zegoela entrenatzen: Berroetakoak, Erratzukoak, Arizkungoak, Elizondokoak... arras ongi aritzen ziren eta pentsatu nuen haiek bezala jokatu nahi nuela. Atezain bezala paratu nintzen, eta eskolarteko txapelketak egiten genituen bertze herrien kontra; Doneztebe, Lesaka, Bera... Urtez urte kategoriaz igotzen hasi ginen eta dinamika horretan sartu ginen.

Zer eman dizu eskubaloiari?

Nire lagun taldeetik kanpo, kirolaren munduarekin lotutako jende aunitz ezagutzeko aukera. Gaur egun kuadrilla bat baino gehiago dituztela erran dezaket. Bidaiatzeko aukera ere eman zigun; Nafarroako Federazioarekin leku aunitz ikusi genituen eta Euskal Federazioan Gipuzkoa guzia ezagutu genuen. Esperientzia arras aberasgarria izan zen.

Noiz erretiratu zinen?

27 urterekin, 1997an, Elbeteko Posadan hasi nintzen lanean.

Hala ere, taldeko juntan zaude.

Nola sartu zinen?

Jendea behar zen eta laguntzea erabaki nuen. Eskubaloi utzi banuen ere, jokalariek barnean izaten dugu beti har hori eta ez gara inoiz mundu horretatik urruntzen. Paperekin lanean hasi nintzen eta urte mordoan egon nintzen, baita lehendakari izan ere. Azken finean, erakundeek egitura bat eskatzen diete taldeei eta jendea behar da lan horiek aitzinera eramateko.

Urte hauetan gorabehera aunitz izan ditu klubak. Zein izan du momenturik hoberena?

2005etik 2009ra urte arras onak izan genituen. Jokalarien harrobi haundia genuen eta neska pila bat aritu ziren, emakumeek ez baitzuten bertze aukerarik kirola egiteko. Maila ona eman zen garai horretan, liga irabazi zen eta Lehen Maila Nazionalera igo zen taldea. Horrek lan aunitz ekarri zuen; lehia exijentea zen eta astean lau aldiz entrenatzen

ziren. Gainera, partidak Valentzian, Alcobendasen, Kanarietan... izaten ziren. Jende aunitzek ezin zuen edo ez zuen nahi horrelako maila serio eta exijentean aritu, eta kanpoko fitxaketekin bete ziren postu batzuk. Ohorezko Mailara igotzeko aukera ere izan genuen, baina ez genuen lortu. Urte arras onak izan ziren eta maila arras altuan aritu zen taldea.

Eta nola ikusten duzu kluba gaur egun?

Gorabehera aunitz izan ditu, baina ongi dago. Egja da azken urtean, estatuko emakumeen futbol selekzioak munduko txapelketa irabazi zuenean, neska aunitz futboleant hasi zirela. Hala ere, 120-150 jokalaritari inguru izan ditugu beti taldean. Urtero egiten dugu deialdia eskoletan, probatzerara anima daitezten, eta jendea etortzen da. Baztango kirolean gure tokia eginga dugu, eskubaloiak jendea mugitzen du



17 urtez jokatu zuen Belen Urrutiak eskubaloian BKTn. UTZITAKOIA

eta klubak etorkizun ona duela uste dut.

Neskei kirol taldean aritzeko aukera eman die BKTk?

Bai, gu hasi ginenean ez zegoen bertze kirol talderik nesken-

dako. BKT hor egon ez bazen, hemengo hainbertze emakumek ez zuten kirola behar bezala egiteko aukera eduki izanen. Parte hartu dutenen zerrenda begiratuta, Baztan-

go ia emakume guztiak probatu dute eskubaloia.

Eragin sozial handia izan du?

Bai, hori da guk aldarrikatzen duguna. Emakumeei kirola egiteko espazio bat eman die klubak, eta berdintasuna, joko garbia eta errespetua bezalako baloreak transmititu ditu eta transmititzen ditu oraindik. Entrenadore eta jokalarien artean ere harreman polita sortzen da. Gainera, jende pila joaten da emakumeen arteko partidu hauek ikustera. Sozialki, kristoren lana egin da eta garrantzia haundiko kluba izan da.

Udalak kluba omendu du...


Urteetan BKTk emakumeen kirolean izan duen garrantzia goraiatzeak ilusio handia egin digu. Egindako lan guziaz saritzean, konturatu gara kanpotik ere ikusi dela eta balorea ematen zaiola. Ekitaldi polita izan zen, aunitz eskertzen dugu eta lanean ilusioarekin segitzera motibatuta gaitu.



TOTU ITURZAETA BARRO
ARIZKUN

«Lagun pila egin ditut eta aunitz gozatu dut»


16 urtez aritu zen Totu Iturzaeta eskubaloian, baita Ohorezko mailan jokatu ere hiru urtez Oberena taldearekin. «Izugarrizko esperientzia» izan zen, «lagun pila bat egin ditut eta aunitz gozatu dut eskubaloian esker. Baztanekin Ohorezko mailara igotzeko fasea jokatzeko zirraragarria izan zen. Esfortzuak beti badu saria, eta taldekideekin konpartitzea arras polita da. Eskerrak eman nahi dizkiet urte horiek guztiak posible egin zuten. Izan zirelako gara eta izanen gara!».



JONE URIARTE JAIMERENA
ERRATZU

«Ez dut bertze modu batera ezagutu bizitza»

Bederatzi urterekin hasi zen entrenatzen Jone Uriarte, aitari ikusitakoari segituz. 18 urteren ondotik talde nagusiko jokalaria da, «eta oraindik bakarren batzuk gelditzen zaizkit. Ez dut bertze modu batera ezagutu bizitza». Eskubaloia «esperientzia betegarria da; lagunak, bidaiak, lehia, konpromisoa... klubeko kideen borondatea, konpromisoa eta errespetua nabarmendu nahiko nituzke. Bi urtez bertze taldeetan jokatu nuen, baina etxean bezala, inon ez!».



MIREN ARRAZTOA
GARBALENA GARTZAIN

«Entrenatzaile bezala aunitz ikasi dut»

Hamar urtez jokatu du Miren Arraztoa BKTn, eta jubentzetan ari da aurten. «Taldean jokatzeko ikasteaz gain, hainbat herri eta adinetako lagunak egin ditut, eta eskolatik institutura pasatzean, adibidez, lagungarria izan zait». Eskubaloian aritzeaz gain, alebilen entrenatzailea izan zen iaz, eta infantilak entrenatzen ditu gaur egun; «arras aberasgarria izaten ari da, eskubaloia bertze modu batean ikusteko balio izan dit. Ttikiei erakusten diet, baina nik ere aunitz ikasten dut haiekin».



AUZA IPARRAGIRRE
ITURZAETA ELIZONDO

«Giro paregabea izaten dugu taldean»

Bederatzi urte zituenean hasi zen eskubaloian Auza Iparragirre elizondoarra. Zortzi urtez aritu da taldean, «eta arras politak izan dira. Hasi nintzenean ez nekien eskubaloia zer zen ere, baina kirola ezagutzeko denbora izan dut eta taldean dugun giro paregabea esker, urte zoragarriak izan dira. Taldekide guzian artean osatzen dugun harremana da BKTren gauzarik esanguratsuenak, eta horrek partiduetan sortzen den elkartasuna eta giro paregabea eragiten ditu».

Maiatzean ere izanen da zer egin Baztanen

Hilabetero bezala, agenda kulturalak hainbat jarduera ditu herritar guziendako

TTIPI-TTAPA

Solasaldiak, azokak, dantzak... ekitaldi ugari ditu maiatzak.

VI. Izpegiko igoera

Motorzaleek galdu ezineko hitzordua izanen dute hilaren 4an Erratzun. 13:00etan hertsiko dute errepidea eta 14:30ean abiatuko da igoera proba. Sari banaketa 20:00etan Erratzuko plazan izanen da.



Izpegiko igoera izanen da larunbatean.

Azokak Elizondon

Baztango Artisauak eta Zaporeak herriko plazara aterako dira bertze behin, maiatzaren 4an, 11n, 18an eta 25ean, hau da, larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara.

Nerabezaroko aldaketez

Ane Ablanedo prebentzioan adituak mintzaldia emanen du Elizondon maiatzaren 9an, 17:00etan liburutegian, eta nerabezaroa izanen du solasgai. Gizarte Zerbitzuek antolatu dute solasaldia.

Euskararen egoera mintzagai

Iñaki Iurrebaso soziolinguistik euskararen egoerari bu-

ruzko solasaldia emanen du, egungo datuak azalduz, maiatzaren 15ean, 18:30ean, Baztango Liburutegi Publikoan. Udalak eta UEMAK antolatu dute hitzordua.

Bailableak Berroetan

Elizondoko Gaiteroak Berroetako plazan izanen dira maiatzaren 18an, bestetako programaren barnean. Mutxikoak, jotak eta larrain dantzak dantzatzeko aukera izanen da.

Arizkun Rock agurtzeko azken edizioa egingen dute maiatzaren 18an

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko Arizkun Rock jaialdiak azkena izan behar bazuen ere, bertan behera utzi behar izan zuten. Hori dela eta, antolatzaileak festibalaren «azken edizio ttiki bat» prestatzen ari dira maiatzaren 18rako.

Herriko plazan egingen dituzte kontzertuak, eta azaldu dutenez, «jaialdiak formatu ttikiago eta hurbilagoa izanen du; eszenatokirik gabe, ekipo ttiki batekin...». Hurrengo asteetan argitaratuko dute kartela informazio guziaz erekin.



BAZTANGO UDALA

Zokoko bidea konpondu du udalak

Martxoaren 7ko euriteak luizi bat eragin zuen Iruritako Zokoko bidean, hamaika baserritara doana. Udalak berehala abiatu zituen konponketa lanak; 41.415,96 euroko kostua izan dute, Martin Mindegiak zuzendu ditu eta Javier Alzugaray indusketa enpresak gauzatu ditu.

MUGARKI
12
asteko
erronka!

APIRILAREN 8tik
EKAINAREN 28ra

12 ASTEKO ENTRENAMENDUAK MUGARKIKO LANTALDEAREN ETA VITXORI JUANIKOTENA NUTRIZIONISTAREN ESKUTIK

- PLANIFIKATUTAKO ENTRENAMENDUAK EGIN
- ZURE OHITURETARA ETA ORDUTEGIETARA EGOKITUTAKO ELIKADURA PLANA LANDU
- HOBETU ZURE EGOERA FISIKOA
- HOBETU ZURE ELIKADURA OHITURAK
- HOBETU ZURE SENTITU

622 903 055 · kaixo@mugarki.com · Ordoki poligonoa, ARIZKUN · @mugarki_ · www.mugarki.com



Podiuma osatu zuten lasterkariak. MAITE URIARTE



Eguraldi ederra izan zuten lasterketan. MAIALEN IANTZI

Giro ezin hobea Berroetako mendi lasterketan

Eguraldia lagun, jendetza bildu zen apirilaren 21eko goizean eta 155 lasterkarik parte hartu zuten

TTIPI-TTAPA

Bi ibilbide egiteko aukera izan zen. Lasterketa luzean, 21,6 kilometro eta 1.275 metroko desnibelarekin, Aitor Blanco izan zen lehendabizikoa ailegatzen eta, beraz, Nafarroako mendi lasterketetako txapel-duna bihurtu da. Emakumeei dagokionez, Ainara Alkuaz izan zen irabazle eta Nafarroako titulua lortu zuen. Gizonezkoetan Xabier Macias eta Imañol Kañamares izan ziren bigarren eta hirugarren. Emakumezkoetan, berriz, Olatz Azazetak eta Ane Elzaundiak osatu zuten podiuma. Laster-

keta akitzen lehendabiziko baztandarra Unai Iantzi aniztarra izan zen.

Ibilbide motzean, 15 kilometro eta 737 metroko desnibelarekin, Markel Barrio eta Maialen San Sebastian izan ziren txapeldun. Bigarrenak, berriz, Yelko Pardiñas eta Nerea Huarte izan ziren, eta hirugarren postuan Kevin Alves eta Miren Juantorena.

Antolatzaileek balorazio positiboa egin dute, herritarren auzolana nabarmenduz. Eguna borobiltzeko, 50 lagunetik goiti bildu ziren herri bazkarian.



Txapeldunak helmugara ailegatu zireneko momentua. MAITE URIARTE



Herri bazkari jendetsua egin zuten eguna ongi akitzeko. MAIALEN IANTZI

Ohariz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
BERRIKANTABILKETA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

ANZABAL
INMOBILIARIA
ZURICH ASEGUURAK

www.anzabal.com

Santiago, 15 ELIZONDO
+34 948 580 804



Hitzarmen propioa da langileen aldarrikapen nagusia. R. OSKARIZ

Lozy'seko langileak bi hilabete baino gehiago greban

Enpresaren aldetik «negoziatzeko borondate errealaren falta» salatu dute langileek

TTIPI-TTAPA

400 pertsona inguru bildu ziren apirilaren 19an Elizondon, ELAK deitutako mobilizazioan, Lozy's Pharmaceuticals enpresako langileek bi hilabete eginen zituztelarik greban. Hitzarmen propioa lortzea da langileen eskari nagusia, eta «negoziatzeko borondate errealaren falta» salatu dute.

Langileen batzordea enpresarekin negoziatzera eseri bada ere, «harrigarria da zein naturaltasunarekin erraten diguten enpresa ez dela gure etxea eta erabakiak beraiek hartzen dituztela. Lotsagarria iruditzen



400 bat lagun bildu ziren Elizondon.

zaigu enpresaren jarrera, baina indarra ematen digu aitzinera segitzeko». Hori dela eta, mobilizazioekin segituko dute langileek, eta maiatzaren 1ean Iruñean izan ziren.

Asteburu feminista eginen dute maiatzaren 4an eta 5ean

TTIPI-TTAPA

Baztango Talde Feministak egitarau berezia prestatu du maiatzaren lehenbiziko astebururako, 'Asteburu feminista' izenpean.

Larunbatean, maiatzaren 4an, bertso bazkari feminista eginen dute Anizko elkar-

tean 14:30ean. Alazne Untxalo eta Maddi Ane Txopereña izanen dira kantari.

Biharamunean, hilaren 5ean, Mejillon Tigre kolektiboaren ikuskizuna izanen da Amaiurren. Otsondo gelan 19:00etan izanen da emanaldia.



ELIZONDO LANBIDE ESKOLA

Etxetxoa Arizkungo Eskolarendako

Elizondo Lanbide Eskolako ikasleek etxetxo bat eraiki dute Arizkungo Eskolarendako, Zerbitzu Solidarioaren parte izan den proiektu batean. Oinarritzko Mailako bigarren mailako ikasleek parte hartu dute projektuan, Elementu Metalikoen Fabrikaziokoek eta Informatikakoek elkarlanean.

ELEKBERRI

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

EGUZKI PANELEN INSTALAZIOA

- Proiektu pertsonalizatu, baimen eta diru laguntzen gestioa
- Amortizazio planen azterketa
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen instalazioa
- Finantziazio aukera

646854825 / 616898065 · elekberri@gmail.com · Elizondo (Baztan)

Aldarrikapena eta besta Erdiz Bizirik egunean

«Hogei urteotako ibilbidea oroitu eta txalotzeko eguna» izan zen apirilaren 20a eta jendetza bildu zen Merkatuko plazan

TTIPI-TTAPA

Egun osoko egitaraua prestatu zuen plataformak Elizondon. Goizean haurrendako tailerra eta Magnari Kaka zozketa egin zituzten. Aziendek kaka egin zuten lekuek erabaki zituzten irabazleak eta Baztango komertzio, ostatu eta zerbitzuetan erabiltzeko hiru sari zozketatu zituzten.

Behi kakak erabaki zuen **lehen saria**, 1.000 eurokoa, **2.751** zenbakiarendako izan zena. Behorrek eman zuten **bigarren saria**, 300 eurokoa, **196** zenbakiarendako. Azkenik, ardi kakak **hirugarren saria** erabaki zuen, 200 eurokoa, eta **2.697** zenbakia izan zen irabazle. Irabazleek 15 egun izan behar dituzte sariak eskatzeko, bertzeala, berriz ere zozketatuko dituzte.

Egitarauak eguerdiko bazkariarekin izan zuen segida, eta ondotik Elektrotxorngok girotu zuen arratsaldeko poteoa. Iluntzean Bizphiru Pelau taldearen kontzertua izan zuten, eta Djek borobildu zuten eguna. Antolatzaileek eskerrak eman diete hurbildutako guztiei eta «eguna posible egiteko buru-belarri lanean aritu ziren boluntarioei, beti gure ondoan egoteagatik eta beren babes zintzoa emateagatik. Ez dugu etsiko, gure lurrak eta bizimodua defendatzen segituko dugu».

4.000 sinadura inguru

Meategiaren kontrako sinadurak bildu ditu plataformak, eta apirilaren 12an aurkeztu zituzten alegazioak Iruñean. Guztira 3.939 sinadura lortu dituzte, eta eskerrak eman dizkiete «gurekin bat egin duen pertsona guztiei».

Salatu dutenez, «herritarrei iritzia ematea hiru aldiz galazti ondotik, Nafarroako Gobernua proiektua UGEP gisa inposatu nahi du». Hori dela eta, «gure baliabide propioak erabili behar ditugu inposizio horiei aurre egiteko».

EH Bildu proiektuaren kontra Nafarroako EH Bilduk ere proiektuaren kontrako alegazioak aurkeztu zituen apirilaren 10ean, Nafarroako Industria eta Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuan.

UGEPak «udal autonomiaren printzipioa urratzen duela» salatu zuten, eta proiektuak «Erdiz inguruko balio ekologikoari, paisaiari eta naturagune babestu baten osotasunari» eraginen liokeela.

MEATEGIAREN KONTRAKO 3.939 SINADURA BILDU DITU PLATAFORMAK



'Maganari kaka egiten' ospatu zuten eguna. R. OSKARIZ

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

INGURUNE BERRI BAT ZURE IRIBARREARENTZAT
astelehenetik ortziralera
08:00-13:00
15:00-20:00
larunbatetan goizez

Iturrunzubiko plaza. 9-10 • 31770 LESAKA
Tel. **722 662 478** | lidera@hortzklina.es
@liderahortzklina



Baserrietako postontziak, udalarena eta desfibriladorea. MARIFA ETA KORO

Herriko Etxeko gorapean hiru zerbitzu berri

Hor eman dituzte herriko etxeko buzoia, baserrietako postontziak eta, berrikiagoa, desfibriladorea ere

MARIFA ETA KORO

Herriko Etxean oraindik ere berrikuntzetan ari dira: gorapea izigarri ongi baliatu da hiru zerbitzu emateko: han eman baitituzte buzoia, baserrietako postontziak, eta berriki desfibriladore bat ere paratu dute.

Postontziei dagokienez, baserriarrak Herriko Etxetik biltzen ahal dituzte gakoak.

Desfibriladorea erabiltzen jakiteko, herritarrendako ikastaro bat emanen da. Horretarako, interesa daukatenek izena Herriko Etxean eman behar dute, eta ondotik jaki-

naraziko zaie interesatuei noiz emanen den.

Garraio proposamena

Herriko Etxeak jakinarazi du eskualderako garraio proposamen bat badela. Bezperatik abisatu beharko zen eta, Zugarramurditik abiatuz, bideko herrietako jendea hartuko luke, Iruñera edo Donostira eramateko. Oraindik proposamena bertzerik ez da, baina jendeak ilusioz hartu du. 1992 urtera arte Zugarramurditik Elizondorako autobus linea izan zen. Azken txoferra Juan Bautista Mentaberri izan zen.

Liztor asiatiakoaren kontrako arteak lan ona

Berriki paratu zituzten liztor beltzen kontrako arteak eman dute emaitza. Batzuk haizeak eraman zituen, baina gehienak liztorrez bete eta bigarren aldiz prestatu dituzte. Arte gehiago jartzera animatu dute.



MARIFA ETA KORO



Karpa muntatzen aritu zirenen gosaria. ARANTXA ETA IRAIA

Gazte eta helduek egindako lanari esker Salbatore bestak ospatzeko prest

ARANTXA ETA IRAIA

Heldu den maiatzaren 8an hasiko dira Urdazubiko Salbatore bestak eta asteazkeneko txupinazoarekin batera besta giro ederra nagusituko da herrian igandera arte, maiatzaren 12ra arte. Egitarauaren berri gehigarri berezian duzue. Halere, egun horren aitzinetik lan ederra egin dute herriko gazte eta helduek. Lehenik, herriko besten inguruko bilerak hasi ziren, gero herritar guztien laguntza izan zen karpa muntatzeko eta txosna pintatu berriaren paratzeko. Horretaz gain, herriko gazte

eta haurrek txartel andana saldu zituzten zortea banatuz eta herriko bestak laguntzeagatik eta, azkenik, herriko bestetan lan egiteko txanden bilera ere egin eta lanak ongi banatuak gelditu ziren. Apirilaren 20an eta 21ean, herriko bestetako otorduen sarrerak ere saldu zituzten herriko plazan. Herrian jadanik besten aitzineko urduritasuna eta alaitasuna zabaldu da eta laguntza hau guztia eskertuz eta baliatuz, besta onak pasatzea bertzerik ez da falta. Beraz, gora Xalbatore, Gora Urdazubi eta ongi pasa bestak!



ARANTXA ETA IRAIA

Film laburra grabatzen lezean

Ekaitz Bertiz zinemagile gaztearen eta Bartzelonako bere taldearen *Erreka zoko hortan* film laburrerako irudiak hartu zituzten Ikaburuko lezean apiril hondarrean. Bere gradu amaierako lanaren baitako proiektu honek, mugako kontrabandoa eta mitologia jorratzen ditu.



Txaranga iazko Bildotsaren Egunean. ARTXIBOKOA

Bildotsaren Eguna maiatzaren lehen iganderako prest

Tokiko produktuen azokak eta animazioek beteko dituzte karririk programa mamitsua duen ospakizunean

JL BESSONART

Maiatzaren 5an, igande osoan, Bildotsaren Egunaren kariatartat, tokiko produktuen azokak eta animazioek beteko dituzte karririk nagusia, pilota plaza, baita Xan Iturria plaza ere, oihalezko-etxe erraldoiaren pean iraganen den bazkari bikainarekin. Koka eta Pintxo lehiaketa (10:00-11:00); bi sukaldari maixuen (Pascal Berrotarran senpertarra eta Xabier Zabaleta Kortazar donostiarra) errezetak aurkeztuak bildotsaren inguruan (10:30-11:30); Artzain xakur lanaren erakusketa Nicolas Dokhe-

lar-ekin (12:00), Joaldunen desfilea (12:30); bazkari animatua, Les Joyeux bandarekin (13:00); ardi-gasnaren fabrikatze erakustaldia Beñat eta Mirentxu Ezcurrarekin (15:30); Ur begi tanborrada (16:00); dantza ikusgarria Zirikatzeekin (17:00). Jarraian Kolpez Blai Donostiako perkusio taldearen emanaldia.

Egun osoan, baserrietako tresneria eta traktore zaharrak ikusgai baita gurdi-zaldiak, haur-jokoaren xokoa eta inguruko artzainen presentzia ere. Horra zer programa mamitsua eskainia den.

'Ortzadarra' lemarekin 41. Herri Urrats maiatzaren 12an ospatuko da aintziran

Nehorkez du ahantzi, nola iaz zer euri erauntsiek jo zuten herria bai bezperan baita Herri-Urrats egunean ere. Zorionez, horrelako ekaitzek sortzen dute baretzearekin ortzadarrik ederrena, esperantzazko kolorez jantzia. *Ortzadarra* lemarekin, milaka euskalzale

bilduko gira aintzira inguruan maiatzaren 12an, besta giroan dirulaguntza ekarri nahizik Seaskari. Aurtengo irabaziak, Beskoitzeko Ikastolari joanen dira. Neomak taldeak gonbidatzen gaitu aintzira ingurura bere kantuarekin, huts ezina.



SPUC

SPUC Akitania Berriko finalera

Akitania-Berriko finalerdian, berriz ere SPUC errugbi taldeak partida zaila irabazi dio Uztaritzeri, 20-13, apirilaren 21ean Azkainen. Eraitza honekin finalera Saint Jean d'Angely-ren aurkako finalera ailegatu da. SPUC eta Uztaritze sartuko dira Frantziako txapelketan, esperantzaz beterik.



JL BESSONART

Iraupen lasterketa zaldiz

Euskal Team Endurance zaldiketa taldeak antolatua zituen apirilaren 20an eta 21ean bi lasterkaldi 65 kilometrokoak, aintziran abiatzea baita itzultzea ere. Zaldiketa inguruko zale anitz bildu dira aintziran, ikusmin polita sorturik. Horrelako eginahalen ondotik zaldien ureztatzea nahitaezkoa da.



Musikak ez du hutsik eginen.

Mendiko autoen 46. Lapurdiko Rallyan Barthe garaile

Aurtengo edizioa, Louis Dronde zuberotarraren (iazko irabazlea) istripu latz batekin abiatu zen. Lehiaketa bezperan min harturik larrialdira eraman zuten. Stepan Barthe jantzi du txapela. Benoit Bersansek eta Vincent Ponceletok osatu dute podiuma.



Beti Gazte elkarteok ederki bazkaldu zuten Lur Berri gelan. GANEX

Urteko biltzarra eta bazkaria egin du Beti Gazte elkarteak

Kontuak positiboan dituzte eta hurrengo elgarretaratzea eginen dute ereiarioaren 8an Baratxartea jatetxean

GANEX

Beti Gazte erretretatuen elkarteak apirilaren 13an egin zuen bere biltzar nagusia eta bazkaria Lur Berri gelan. 60 kide baziren elkarretaratuak, bazkari eder baten aitzinean, Haragitegiko Mariane eta Tristan Sagek egina.

Jeannot Etxeberrigarailhendakariak denei ongietorria eman eta hor izatea eskertu zien, «zeren kiderik gabe ez da elkarerik eta bulegoa kontent da zeren bisaia berri batzuk baziren etorriak gurekin egun goxo baten pasatzerat». Eskerrak eman zizkion uda-

lari ere, gela eder hori prestatzeagatik eta herriko enplegua-tuak gela horrela emateagatik.

Bertze elgarretaratzea eginen dute ereiarioaren 8an Baratxarte jatetxean. Michel Ferraz diruzainak eman zituen kontuak. Herriaren subentzioarekin, baita Azkaingo Larrun Kanta koralak ematen duenarekin, kontuak positiboak dituztela aipatu zuen. Lehendakariaren azken hitzean pentsamendua izan zuen mundu honetatik joanak direnentzat. Bazkaria Ttote musikariak ongi airostu zuen, euskal kantu ederrak emanez.

Olhain ikastolako 'Apatx' aldizkaria argitaratu dute

Aurten ere Olhain ikastolako ikasleek, *Apatx* beraien aldizkaria argitara eman dute. Erakasleek lagundurik, gela bakoitzak artikuluak, jokoak, edota dokumentalak sortzen ditu. Aurtengoa hirugarren edizioa da, 2022an hasi baitziren aldizkaria argitaratzen.



Martxoko aldizkariko azala.



Irisarrin nagusitu eta maiatzaren 11ko Senpereko finalean izanen da Aizpurua.

Hernandorena bertso sariketako finalean kantatuko du Haira Aizpurua

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 20an jokatu zuten Irisarriko Gure Doia ostatuan Hernandorena gazteen bertso sariketako lehenengo kanporaketa. Eskualdeko bi bertsolari aritu ziren bertan: Haira Aizpurua saratarra eta Josu Txoperena lesakarra. Saioa irabazita, finalerako txartela lortu zuen Aizpurua.

Hain zuzen, 131 puntu lortuta lehen postua eskuratu zuen Irisarriko saioan Haira Aizpurua saratarrak. Haren gibeletik sailkatu ziren Danel Herrarte 123 punturekin, Madi Agirre 119 punturekin, Josu

Txoperena lesakarra 119 punturekin, Beñat Astiz 115,5 punturekin eta Aiantza Lannes 100,5 punturekin. Joan den larunbatean jokatzekoa zuten bigarren kanporaketa Hendaiako Baleak elkartearen.

Finalerako bi saioetako irabazleak, eta puntuazio altuena duten lau bertsolariak sailkatuko dira, eta beraz, oraindik finalean kantatzeko aukerekin da Txoperena.

Finala Herri Urratsen bezperan, maiatzaren 11n jokatuko dute Senpereko Larralde etxean. Zortetik onena opa diogu Hairari.



SARAKO IZARRA

Basurdeak Frantziako txapelketan

Akitania Berriko hirugarren mailako finala Azkaineren kontra galdu ondotik, Frantziako *Barrage* txapelketan hasia da Sarako Izarrako gizonezkoen errugbi taldea. Roqueforti irabazi zioten Animainean (23-10) eta hurrengo partida maiatzeko lehen asteburuan jokatuko dute.

«Saltzeko produktuak berriz prest izan arte hilabeteak joanen dira»

KATALIN ANTZIA ABASOLO MODA DISEINATZAILEA

Diseinatzailearen Sarako atelierrean lapurrak sartu ziren duela aste batzuk eta «sorkuntza lan guztiak» eta «lanerako materiala» ebatsi zizkieten. Horri buelta eman nahian kanpaina hasi du

G. PIKABEA

Egoerari buelta eman nahian ari da Katalin Antxia Abasolo moda diseinatzailea, berak dioen bezala, «kanpaina kudeatzen, atelierra txukuntzen eta berriz lanean hasteko pausoak ematen». Kolpe handia hartu zuen duela aste batzuk Saran duen atelierrean lapurreta egin ziotenean, baina konbentziturik dago bere lanak «salbatuko» duela eta horretan ari da buru-belarri.

2013tik jantzigintzan

Aretxebaletakoa (Gipuzkoa) da sortzez, eta Bilbo, Trieste (Italia), Bordele (Frantzia) eta Poitiers (Frantzia) hirietan ibili ondok, duela bost urte lur hartu zuen Saran. Hantxe bizi da geroztik, eta lanerako txoko kuttuna ere hortxe erai ki du. Komunikazio eta moda ikasketak egindakoan, kazetaritzan, kulturgintzan eta irakaskuntzan aritu zen lanean, eta 2013an jantzigintzan murgildu zen, hori baita «nire pasioa». Modu Bat markarekin hamar urteko ibilbidea egin zuen hastapenean, eta Athora Manthara sortu zuen ondok: «Athora gizezkoen alkandora da eta manthara emakumezkoena. Gure kulturarekin arrunt lotuak dauden jantziak izaki, klasizismotik moda garaikideago batera egindako saiakera dira nire diseinuak». Kontatu duenez, «oihal naturalak» erabiltzen ditu eta «irauteko sortzen di-



Katalin Antxia Sarako atelierrean.

tut jantziak. Niretako baitezpadako baldintzak dira».

Galera handia

Martxoaren 21ean, hankaz goiti utzi zioten proiektua: «Hainbat lapurreta egin zituzten Saran, eta tartean, nire atelierrean». Kolpe handia izan zen: «Aste Saindurako ateprestatuak nituen atelierrean. Jende aunitz etortzen zait garai horretan Hegoaldetik, eta justu bezperan, etike-

taldietan saltzeko izaten ditudan makinak... Horiek ere hartu zituzten». Antxiak aitortu du «galera handia» izan dela eta zenbakiak ere eman ditu: «20.000 euro jantzien salmenta prezioa eta lanerako materiala kontuan hartuta».

Diru bilketa

Hala ere, ez dago geldirik egiteko, eta aitzinera egiteko kanpaina bat prestatu du. «Gertaeratik burua altxatu nuenean garbi ikusi nuen lanak salbatuko ninduela». Eta hala, diru bilketa kanpaina hasi du laguntza bonuen edo opari txartelen bitartez. «Bonu horiek niretzat etorkizuneko lana dira», aipatu du.

25, 50 eta 100 euroko bonuak prestatu ditu eta *athoramanthara.com* atarian paratu ditu eskura. Eta horiekin zer? Bada «orain ordaintzen dutena hurrengo erosketan edo atelierrean ematen ditudan ikastaldietan deskontatuko diet». Gaineratu duenez, «aitzindutako diru poltsa horrek berriz ere materiala erosi eta hilabeteetako gastuei aurre egiteko balioko dit. Eskulana ez baita egun batetik bertzerara egiten. Hilabeteak beharko ditut berriz ere saltzeko produktuak prest eduki arte».

Bide batez, bere lanak berak bakarrik saltzen dituela ere nabarmendu du: «Athora Manthararen salmenta puntu bakarra ni naiz. Norbaitek nire jantziak bertze lekuren batean salgai ikusten baditu, garrantzitsua litzateke abisatzea. Ez niri egin didatenagatik bakarrik, baita etorkizuneko ebasaketak saihesteko ere».

Kanpaina esku artean «bonuak erosi dituen jende guzitari athora edo manthara egitea» izanen du ondoko hilabeteetako erronka Antxiak. Horrez gain, uztailean Aretxebaletan ikastaldiak antolatze-ko asmoa duela ere adierazi du, baina horren gainetik, «sortua dudana komunitateari erakusten didan berotasuna itzuli» nahi die.

ta eta guzi finituak, saltzeko prest nituen 60 bat pieza ebatsi zizkidaten». Gehiago ere bai: «Diseinurako erabiltzen dudana ordenagailu pertsonala, patroiak, argazkiak, ikas-

«GARBI IKUSI NUEN NIRE LANAK SALBATUKO NINDUELA»



Goikoetxea VI.a eta Jabalera kontent, beraien lehen txapelarekin. MAIALEN ANDRES

Aimar Jabalera Berria txapelketa irabazi du

Doneztebarrak eta Goikoetxea VI.ak finala irabazi zioten Gurrutxagari eta Aiestaran VI.ari apirilaren 20an Galarretan

TTIPI-TTAPA

Aimar Jabalera doneztebarra eta Goikoetxea VI dira Berria Erremonte Txapelketako txapelak, apirilaren 20ko Galarretako finalean Gurrutxaga eta Aiestaran VI.a gainditu eta gero. Jabalera izan da protagonista nagusia lehenengo eta hirugarren jokoan eta bere maila bikainari esker 1-2 lortu dute garaipena 4-15, 15-12 eta 1-8ko markagailuarekin.


Berria Erremonte Txapelketak talentu berrien erakusle izateko balio du aunitzetan eta aurtengo edizioa Jabalera agerpenarengatik gogoratu da. Kolpe eta joko bereziak ditu, onenekin lehia-tzeko gai dela erakutsi du txapelketa guztian, baita finalean ere. Goikoetxearentzat profesioaletan debuta izan da eta ez dago ibilbidea hobe hasterik.

Baigibelean eta bai aitzinean hobeak izan ziren zestoarra eta doneztebarra. Jabalera 20 tantorekin eta hiru pilota galduta akitu zuen finala. Goikoetxea VI.ak bederatzi tanto, horietatik lau sakez, lortu zituen eta bi akats bakarrik egin

ditu. Galtzailetan Gurrutxagak hamaika tanto eta hiru akats egin zituen, eta Aiestaran atzelariak bost tantorekin eta hiru akatsekin akitu zuen finala.

«Partidarik galdu gabe akitu dugu txapelketa»

Ordu beteko iraupena izan zuen finalak, jendez gainezka zegoen Galarreta batean. Zale gazte aunitz hurbildu zen Hernaniko frontoira, horietako aunitz Malerrekakoak, eta giro ederra bizi izan zen. Partida akitu eta berehala garaileek zaletuen animoak eskertu zituzten eta pozez gainezka agertu ziren. Aimar Jabalera kolpeak diferentziak egin ditu jokoan. Doneztebarraren erranetan, «bizitasun hori dut, goiko posturan gehiago kostatzen zait, baina min handia egin dut». Motibazio handia da bientzat. «Arras gustura akitu dugu, partidarik galdu gabe». Aimar Jabalera estelarretan jokatzeko aukerak gero eta gertuago ikusten ditu. «Entrenatzen eta hobetzen jarraitu behar da horretarako», adierazi zuen.



Udaberriko erremonte txapelketaren aurkezpena Elgorriagan. UTZITAKOIA

Udaberriko erremonte txapelketaren finala Doneztebeko bestetan jokatu dute

TTIPI-TTAPA

Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioak antolatutako Udaberriko erremonte txapelketaren aurkezpena egin zuten apirilaren 20an Elgorriagako balnearioan. ADANO elkar-tearen aldeko txapelketa izanen da eta Mariezkurrena eraikuntza enpresa da babesle nagusia. Bortz bikote lehian hasi dira eta bortzetan ari dira eskualdeko erremontistak. Finala ekainaren 28an jokatu dute Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan.

Final laurdenetako ligaxkan, denak denek kontra jokatzeko hasi diren bortz bikoteak hauek dira: Zeberio II.a eta Aimar Saldias oiztarra, Xanti Uterga doneztebarra eta Barricart, Eloi Otxandorena eta David Mitxeo doneztebarrak, Xuban Iturregi iruritarra eta Otano; eta Jon Sagaseta iruritarra eta

Ion. Ligaxkako lehen partida apirilaren 27an jokatu dute Zubirin Zeberio II.ak eta Saldiasek, Sagasetaren eta Ionen kontra. Ondotik, Oibarren (maiatzaren 5ean), Iruritan (maiatzaren 9an), Lizarran (maiatzaren 11n), Berriobeitin (maiatzaren 12an), Tafallan (maiatzaren 26an), Atarrabian (ekainaren 1ean), Uhartan (ekainaren 8an), Agoitzen (ekainaren 14an) eta Peraltan (ekainaren 21ean) jokatu dituzte partidak. Ligaxkako lehen bikotea Donezteben ekainaren 28an jokatu den finalerako zuzenean sailkatuko da. Aitzinetik, ligaxkan bigarren eta hirugarren izan diren bikoteek, berri, finalerdia jokatu dute ekainaren 24an Burlatan. Finalerdiko irabazleek finala jokatu dute ligaxkako lehenbizikoaren kontra.

122 pilotari ariko dira Benito Taintaren omenezko pilota txapelketan

TTIPI-TTAPA LESAKA

Igande honetan hasi da Lesakako Arkupe pilota elkarteak Benito Tainta zenaren omenez lehen aldiz antolatutako lau eta erdiko pilota txapelketa. 122 pilotari ariko dira lehian: 48 mutiko kadete mailan (igandean Donezteben), 32na ju-

benil (igandean Lesakan) eta senior mailan (ortzegun arratsaldetan Lesakan, maiatzaren 2tik aitzinera) eta 10 nesken mailan (igandean Sunbillan, ekainaren 9tik aitzinera). Kategoria guztietako finalak uztailearen 9an jokatu dituzte Lesakan.



Iñaki Olano eta Maddalen Jimenez lehenengo aldiz nagusitu dira Berako mendi maratoi erdian. AINHOA LARRETXEKA

Olano eta Jimenez garaile Berako 18. mendi lasterketan

Aitzoko eta Berako korrikalariak lehenengoz nagusitu dira Manttalek antolatutako mendi maratoi erdian

TTIPI-TTAPA BERA

Beroa protagonista zela egin zuten Beran apirilaren 14an Manttalek antolatutako Mendi Maratoi Erdiaren 18. edizioa. Gizezkoetan lehen parte hartzea zuen Iñaki Olano altxotarra nagusitu zen. Emakumezkoetan, berriz, lehenengoz beratar batek irabazi zuen, Maddalen Jimenez Andresek.

Iñaki Olanok 1.44.53ko denbora egin zuen, 2014an Ariznabarretak egin zuen errekorretik urruti (1.37.30). Bigarren postuan Damien San Martin hendaiarra sailkatu zen bi minutu eta hamar segundora (1.46.33) eta hirugarren postuan Iruñeko Xabier Macias (1.47.20). Hodei Lujanbio goizuetarra gelditu zen laugarren postuan (1.49.46), eta Idiazabalgo Josu Urrestarazu borzgarren postuan (1.51.52).

Damien San Martin lehen postuan iritsi zen Manttalaria, eta ondotik lehen hiru lasterkariak segundo guttiren aldearekin ailegatu ziren Larhongo kaskora. Hala, jaitsieran erabaki zen irabazlea zein izanen zen.

Emakumezkoetan, berriz, lehenengoz beratar bat gailendu zen: Hiru Herri taldeko Maddalen Jimenez Andres. 2.12.17 behar izan zituen ibilbidea osatzeko. Bigarren postuan Itxaro Zabaleta leizarra ailegatu zen (2.14.09), eta hirugarren postuan Urruñako Maud Combarieu (2.16.09).

IBARDINETIK PASATZEN LEHENA DAMIEN SAINT MARTIN IZAN ZEN

Irene Artazcoz izan zen laugarrena (2.17.59) eta borzgarrena, berriz, Latane Arrospide (2.22.06).

150 euroko saria zuen Ibar-dingo tarteko helmugan pasatzen lehena Damien San Martin izan zen eta taldeka Hiru Herri taldea gailendu zen, Idiazabalen aitzinetik. Beteranoetan, sailkapen orokorrean hamazazpigarren izan zen Alberto Barberena leka-roztarra gailendu zen gizezkoetan (1.58.35), Sergio Serrano eta Luis Lasaren aitzinetik eta Maud Combarieu emakumezkoetan, Nerea Amilibia eta Nuria Mendibi gibelean utzita.

Markel Barrio, Iker Sanchez eta Lide Lizeaga gazteetan

Gazte Trailean, Markel Barriok irabazi zuen proba Oihan Pikabea beratarraren eta Xabier Azconaren aitzinetik, 17 eta 18 urteko kategorian. Ibilbide bereko 14 eta 16 urte bitarteko kategorian, gizezkoetan Iker Sánchezek eta emakumezkoetan Lide Lizeagak irabazi zuten. Gazte Trailen aurren lehenengoz 9 kilometro eta erdiko ibilbidea osatu zuten gazteek, eta amaierako zatia maratoi erdiko berbera izan zen.

BERAKO MM ERDIA

4.Hodei Lujanbio-Goizueta	1.49.46
8.Aimar Otxoteko-Lesaka	1.53.38
9.Ibon Erdozain-Bera	1.54.38
17.Alberto Barberena-Baztan	1.58.35
18.Julen Errandonea-Bera	1.58.36
21.Mattin Gonzalez-Lesaka	1.59.26
24.Aitor Erdozain-Bera	2.01.21
25.Dani Iparragirre-Arantza	2.03.01
28.Aitor Aizkorbe-Goizueta	2.03.46
36.Beñat Saralegi-Lesaka	2.05.43
40.Mikel Unanua-Gartzain	2.07.41
42.Unai Iantzi-Aniz	2.07.53
44.Gorka Urtaun-Irurita	2.08.03
46.Julen Oskoz-Arantza	2.08.29
59.Maddalen Jimenez-Bera	2.12.17
62.Mikel Elzaurdia-Bera	2.12.49
69.Julen Lizarraza-Leitza	2.13.39
70.Eneko Zabaleta-Leitza	2.13.49
71.Joseba Lasarte-Bera	2.13.52
74.Itxaro Zabaleta-Leitza	2.14.09
77.Mahieu Gachen-Sara	2.14.34
84.Gorka Bermejo-Leitza	2.15.48
85.Beñat Saralegi-Leitza	2.15.50
87.Endika Eugi-Baztan	2.15.53
90.Adur Iantzi-Igantzi	2.16.12
94.Xabier Telletxea-Igantzi	2.16.47
97.Igor Agesta-Sunbilla	2.17.20
98.Iñigo Arrieta-Sunbilla	2.17.55
104.Asier Irazoki-Bera	2.18.24
105.Iker Telletxea-Lesaka	2.18.35
112.Iker Gonzalez-Igantzi	2.20.44
122.Asier Olabe-Elizondo	2.22.03
128.Imanol Moreno-Bera	2.23.49
129.Joel Oronoz-Lesaka	2.24.11
138.Iker Zubillaga-Leitza	2.25.19
145.Josu Zabaleta-Leitza	2.26.01
166.Ainhoa Etxegarai-Bera	2.28.49
180.Aitor Mitxelena-Lesaka	2.30.33
186.Xan Lahetjuzan-Sara	2.31.20
190.Andoni Martinez-Bera	2.31.55
193.Josema Iriarte-Bera	2.32.05
200.Julen Pikabea-Bera	2.32.51
203.Felix Alzate-Elizondo	2.33.06
206.Jabier Iparragirre-Arantza	2.34.00
216.Jon Otxoteko-Lesaka	2.35.11
217.Aitor Cerezo-Bera	2.35.19
218.Ane Elzaurdia-Bera	2.35.46
219.Juan M ^a Indakoetxea	2.35.46
233.Joxan Arruti-Lesaka	2.37.37
236.Egoitz Zubiri-Goizueta	2.38.05
251.Estibaliz Golenetxe-Bera	2.39.34
254.Gonzalo Errandonea-Sunb.	2.40.03
275.Jone Olaetxea-Bera	2.43.36
303.Joseba Zabaleta-Bera	2.47.24
318.Iker Osua-Bera	2.52.46
319.Mikel Almandoz-Lekaroz	2.53.05
322.Ander Bereau-Lesaka	2.53.17
339.Jose Luis Tapia-Lesaka	2.56.33
346.Alvaro Napal-Bera	2.58.13
352.Xanti Dendarrieta-Erratzu	2.58.43
352.Garai Dendarrieta-Irurita	2.58.43
373.Mikel Saenz-Leitza	3.02.43
377.Ainara Mendiburu	3.03.19
378.Mirentxu Lanz-Bera	3.03.20
379.Nahia Fagoaga-Bera	3.03.23
391.Mikel Leiza-Lesaka	3.05.49
406.Mikel Azpiroz-Leitza	3.08.33
408.Idoia Martinez-Bera	3.08.39
409.Teresa Igoa-Bera	3.08.50
430.JM Erregerena-Irurita	3.15.57
431.Miguel Azkarraga-Irurita	3.15.57
433.Iban Etxarte-Irurita	3.17.27
438.Julene Etxeberri-Pacheco	3.18.42



Larunbatean Lesakako karriketan ibiliko dira txirrindulariak. SAIZ PHOTOS

II. Bizibide enduro lasterketa Lesakan maiatzaren 11-12an

Larunbatean herriko karriketan ibiliko dira txirrindulariak eta igande goizean Bizibide ibilbideetako lau zatitan

TTIPI-TTAPA LESAKA

Maiatzaren 11-12ko asteburuan, Lesakan, II. Bizibide Enduro Lasterketa jokatuko dute. Iaz bezala, larunbatean sailkapen saioa izanen da herriko karriketan barna eta igande goizean lasterketa Bizibideko ibilbideetako lau zati kronometratuekin. Lasterke-

tan parte hartzeko inskripzioak ireki dituzte eta nahi duenak izena eman dezake hurrengo estekan, maiatzaren 8ra bitarte: <https://www.rockthesport.com/es/evento/bizibide-enduro-lasterketa>

Igandeko ibilbidearen track-a, kategoriak, prezioa, araudia, eta informazio gehia-

go ere kontsulta daiteke web-gune horretan.

Bizibide Enduro Lasterketa, II. Sustrails Open Enduro BTT txapelketarako puntuagarria izanen da. Txapelketa honek, Euskal Herriko sei enduro lasterketa hartzen ditu bere gain: Bizibide-Lesakakoa maiatzaren 11n eta 12an, Larra-Belagua ekainaren 1ean eta 2an, Arrasate ekainaren 29an eta 30ean, Eremua irailaren 7an eta 8an, Basaburua irailaren 28an eta 29an eta Irrisarri Landurriaren 19an eta 20an. Izena ematean, aukera dago Lesakako lasterketaz gain, Sustrails-eko pack-a eskuratzeko. Modu honetan, sei lasterketarako izen-ematea lortzen da, prezio berezi batean. Pack hau erosteko esteka hurrengoa da: <https://www.rockthesport.com/es/evento/open-sustrails-enduro-btt-pack-circuito>

Lesakako Udalak, enduro lasterketaren aitzineko astean eta hurrengoan publiko guztientzako bizikletaren inguruko jarduerak antolatuko ditu herrian. Datak hurbildu ahal, informazio guztia helaraziko dute sare sozialetan, prentsan, webgunean eta kartelen bitartez.

IX. Goizutrail mendi lasterketa maiatzaren 18rako prest Goizuetan

TTIPI-TTAPA GOIZUETA

Maiatzaren 18an egingen dute Goizutrail lasterketaren bederatzigarren edizioa. Izen-emateko epea oraindik zabalik dago eta interesa duenak herrikrosa.eus atarian sartu beharko du.

Lasterketan parte hartzeko bi ibilbide jarri dituzte aukeran: ibilbide motza eta luzea. Ibilbide motzak 10,6 kilometro izanen ditu eta bakarka edo bikoteka parte hartzeko aukera eman dute (bietako bat emakumea izan behar du). Ibilbide luzea egitea aukeratzan dutenek, Artikutzan barrena egin beharko dute lasterketa aurtegoan eta 25,6 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Orain arte ibilbide laburra egin eta herrira bueltatuta, Mandoegirako bidea hartzen zuten bigarren itzuli bat egiteko. Aurten, Enekolorritik aurrera segiko dute, Arainburuko tontorra zapaldu, Beltzuntzara joan eta plazan bukatuko dute itzulia.



POTRONKO

Betia Gazte txapeldun, Amaiur bigarren

Nafarroako launakako sokatira txapelketako lehen txapelak banatu zituzten apirilaren 20an Barasoainen. Emakumeetan (255 kilo), Betia Gazte txapeldun izan zen, Amaiur txapeldunorde eta Txantrea hirugarren. Gizonezkoetan (320 kilo), Betia Gazte txapeldunorde, Berriozarren gibeletik.



EDU AGIRRE

Nahia Bertiz promozio mailan txapeldun

Ados pilota elkartearen eskuz binakako txapelketen finalak apirilaren 20an jokatu zituzten Antzuolan. Promozio mailan, Ibarrolak eta Nahia Bertiz sunbildarrak 22-18 irabazi zieten Aranburu eta Arrastiari eta lehen mailan, Ruiz de Infantek eta Galeanok 22-17 irabazi zieten Barrokak eta Agirreri.



Oizen jokatu zituzten iaz finalak eta aurten Arraiozen jokatuko dituzte. ONDIKOL

Zortzi taldek abiatu dute Nafarroako 44. Laxoa Txapelketa

Iazko formatua mantendu da eta finalak Arraiozen jokatuko dituzte, txikia uztailaren 27an eta handia abuztuaren 3an

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 20-21eko asteburuan abiatu zen Laxoa Elkarteak berrogeita laugarren urtez antolatutako Nafarroako Laxoa Txapelketa. Aurtengoan, laxoa txapelketako finala Arraiozen jokatu da. Iazko formatua mantenduko da, hau da, final txikia eta final handia izanen dira. Final txikia uztailaren 27an jokatu da eta final handia, berriz, abuztuaren 3an, baita hirugarren posturako lehia ere.

Parte hartzen hasi diren taldeei dagokionez, aurtengoan zortzi talde dira. Irurritako eta Arraiozko bana, Oizko bi eta Doneztebeko lau. Aipatzeko, aurtengoan 2 talde berri daudela: Doneztebe Mendixuri eta Oiz B.

Denak multzo bakarrean ari dira, denak denen kontra. Ligaxkako lehen bi sailkatuak zuzenean final handiko finalerdietarako sailkatuko dira. Hirugarren eta seigarren postuen artean sailkatutakoek final laurdenak jokatu dituzte, hirugarrenak seigarrenaren kontra eta laugarrenak bosgarrenaren kontra. Final

laurden hauetako irabazleek final handiko finalerdietarako sailkatuko dira eta galtzaileak final txikiko finalerdietara, zazpigarren eta zortzigarrenaren kontra jokatzeko.

Zortzi taldeak

Arraioz Sagardia: Mikel Mingegia, Abi Bengotxea, Ion Gamio eta Miguel Maritorea
Irurita Migelene: Xabi Barberena, Iñigo Dendarieta, Oinatz Jauntsarats eta Migel Sagaseta.

Oiz A: Ioritz Zelaieta, Iker Breau, Laurendi Zelaieta eta Ugutz Zelaieta.

Oiz B: Xuban Ilarregia, Mikel Mikelarena, Zorion Zelaieta eta Markel Leatxe.

Doneztebe Apeztegia: Jon Apeztegia, Ramontxo Etxebeste, Iban Santesteban eta Joseba Juanena.

Doneztebe Mendixuri: Goio Mingegia, Eneko Maylin, Asier Arozena eta Javi Apeztegia.

Doneztebe The Moment: Julen San Miguel, Pascual Bertiz, Javier Bertiz eta Koldo Legarra.

Doneztebe Titi: Eloy Garcia, David Mitxeo, Erik Garcia eta Imanol de Rueda.



Proban parte hartu zuten igantzarrak. ANA ETA ITZIAR

151 kirolarik parte hartu dute apirilaren 21eko Igantziko V. Mendi Duatloian

ANA ETA ITZIAR IGANTZI

Joan den apirilaren 21ean egin zen Igantziko V. Mendi Duatloia. Biltoki Elkarteak Igantziko Udalaren eta, nola ez, herritar aunitzen laguntzarekin antolatutako ekitaldi hau hagitx jendetsua izan zen. Eguraldia ere lagun izan zuten eta partaidetza ere aipagarria. Helduetan 101 lagunek eman zuten izena eta haurrak berriz 53 izan ziren izen eman zutenak. Herritarren partehartzea ere aipagarria izan da urtero bezala.

Esfortzuaren ondotik indarberritzeko hamaiketako ederra izan zuten frontoian bertan, baita sari batzuk eskuratzeko aukera ere. Sailkapenak honela gelditu ziren:

Emakumeak bakarka, bik hartu zuten parte bakarkako sailean baina bat erretiratu zen. Txapelduna: Ainhoa Lopez Martin, 3.01.57

Gizonezkoak bakarka, Josu Urrestarazu Garcia nagusitu zen (1.37.47), Eneko Gurrutxaga (1.41.42) eta Endika Manteconen (1.43.26) aitzinetik.

Erreleboka Koldo Herrera sunbildarra eta Dani Iparragirre aranztarra gailendu ziren (1.34.15); Joseba Mutuberria/Josu Elola bigarren (1.41.51) eta Mikel Telletxea /Unai Telletxea hirugarren (1.41.59).

Lerro hauen bitartez Biltoki Elkarteak eskerrak eman nahi



Gizonezkoen podiuma.



Ainhoa Lopez garaile.



Erreleboka aritu zirenen podiuma.

dizkie modu batean edo bertzean ekitaldi hau aitzinerara ateratzen lagundu duten enpresa, erakunde, laguntzaile eta boluntario guztiei, baita parte-hartzaileei ere.

MAIATZAK 2 - 16

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ALICIA DEL CASTILLO

DONEZTEBE Udaberriko feria eta XV. Ahari Lehiaketa

Azienda erakusketa, artisaauk eta bestetako kartel lehiaketako erakusketa Herrigunean.
Maiatzaren 10ean, ahari lehiaketa 10:00etan hasiko da eta sari banaketa 13:00etan izanen da.

SOLASALDIAK

BERA

'Deja de escribir al tiempo' liburuaren aurkezpena

Rosa Diez-Urrestarazurekin.
Liburutegian, maiatzaren 3an, 18:00etan.

'Ni ez naiz Mikel Laboa' komikiaren aurkezpena

Joseba Larratxerekin.
Beralandetan, maiatzaren 9an, 18:30ean.

ELIZONDO

'Nerabazaroko aldaketak'

Ane Ablanedorekin.
Liburutegian, maiatzaren 9an, 17:00etan.

'Euskararen egoera gaur'

Iñaki Iurrebasorekin.
Liburutegian, maiatzaren 15ean, 18:30ean.

LESAKA

'Gaitasun handiak'

Liburutegian, maiatzaren 9an, 18:30ean.

'Genozidioa Palestinan: gatazkaren gakoak'

Lidon Sorianorekin.
Udal Pleno Aretoan, maiatzaren 10ean, 18:30ean.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisaauk eta Zaporeak

Plazan, maiatzaren 4an eta 11n, 10:00etatik 14:00etara.

BERA

Bertako ekoizleen merkatua

Beralandetan, maiatzaren 11n, 10:30etik 13:30era.

ERAKUSKETAK

BERA

'Euskal irudigileak 20 urte'

Kultur Etxean, maiatzaren 10ean eta 17an 16:30etik 18:30era eta 11n eta 18an 11:00etatik 13:00etara.

'Splash'

Telletxean maiatzaren 11n eta 12an eta Labiagan astebururo, 16:00etatik 20:00etara.

LEITZA

'Bollologia: EHko bollerren genealogia bisual bat'

Herri Aretoan, maiatzaren 1etik 18ra.

IKUSKIZUNAK

AMAIUR

Mejillon Tigre kolektiboaren ikuskizuna

Otsondo gelan, maiatzaren 5ean, 19:00etan.

LEITZA

Zinema

Herri Aretoan, maiatzaren 4an eta 5ean, 17:00etan 'Dragoi jagolea' eta 19:30ean 'Radical'.

'Putaren bakarrizketa eroetxean'

Laura Penagosekin.
Herri Aretoan, maiatzaren 12an, 19:00etan.

ARESO

'Kutsidazu bidea Ixabel' antzezlan

Txalo Talo Antzerki Taldearekin.
Udaletxeko karrapean, maiatzaren 12an, 18:30ean.

MUSIKA

ANIZ

Bertso bazkari feminista

Alazne Untxalo eta Maddi Ane Txoperenarekin.
Elkartean, maiatzaren 4an, 14:30ean.

LEITZA

Jeiki Abesbatza eta Iruñeko Orfeoia

Elizan, maiatzaren 4an, 20:00etan. Sarrerak 15 eurotan.

BERA

Mutxikoak

Toki Onako estalpean, maiatzaren 11n, 18:30ean.

JARDUNALDIAK

ERRATZU

VI. Izpegiko igoera

Maiatzaren 4an.

SEMPERE

Bildotsaren Eguna

Maiatzaren 5ean.

41. Herri Urrats

Maiatzaren 12an.

DONEZTEBE

Udaberriko feria

Maiatzaren 10ean.

«Antzezten ari naizenean aske sentitzen naiz eta bizipoza da niretzat»

ANA GOÑI ONDARRETXE ARESON BIZI DEN ANTZERKI ZALEA



Oholtzara igo eta fokuen argipean gozatzen duen horietakoa da Ana Goñi. Argi dio: «askatasun handia ematen dit antzerkian aritzeak». Txikitatik izan du gustuko, «eskolan ere lehena izaten omen nintzen neure burua antzeztan baterako aurkezten». Askatasuna eman soilik ez, tresna baliagarria ere izan da beretzat: «bizitza honetan askok dugu gure puzzlearen fitxa baten falta, nik ere badut». Hutsune hori osatzeko bidea eman dio: «antzerkiak asko lagundu dit, lotsa pixka bat kentzen, irekitzen... eta, garrantzitsuena, ni neu banaizela sinisten, nahiz eta ez jakin nondik heldu naizen. Besteren alaba, emaztea edo ama bakarrik ez naizela sentitzen, alegia».

Oholtzaren gainean ikusten duenak nekez pentsatuko du lotsatia denik, baina antzerkiak duen magiaren parte omen da

hori: «oholtzaren gainean nagoe-nean ez naiz ni. Beste pertsonaia baten barruan sartuta nago, nire eguneroko bizitzatik at». Teloia irekitzen denean, «urduritasuna bai, baina aske sentitzen naiz. Plazer bat da niretzat, bizipoza eman eta primeran pasatzen dut. Noizbait sentsazio hori galtzen badut, ez du zentzurik izango afizio honekin jarraitzeak».

Bidean ere asko gozatzen du: «urte hauetan dozenaren bat pertsonaia egingo nituen, desberdinak denak, eta pertsonaia garatu bitartean jolas-teko aukera izatea bikaina da». Aitortu du batzuetan zaila izaten dela Ana beraren eta pertsonaiaren muga non dagoen jakitea: «kuri osoa da batzuetan pertsonaia batzuei zuretik ematen diezula eta beste batzuetan, nahigabe, pertsonaiaren gauza batzuk zureganatu ere egiten dituzula».

Aresoko antzerki taldea

Sortzez gipuzkoarra da Ana, baina urteak daramatza Areson bizitzen eta bertan izan zuen duela hamabi urte bere afizioa garatzeko aukera: «Areson antzerki taldetxo bat osatu genuen. Hiru urtez aritu ginen herrirako lanak sortu eta eskaintzen». Inguruko herrietara ere joateko aukera izan zuten: «bost antzeztan sortzera iritsi ginen eta azken emanaldia 2015eko festetan egin genuen. Nekatu egin ginen azkenerako». Dena den, ofizialki taldea ez zen desegin eta taldearen itzulera posible batez galdetuta barre artean erantzun du: «baliteke oraindik sorpresaren bat ematea. Nork dakil!».

Harra barruan sartua

Aresoko taldearen martxa eten zen, baina ordurako barruraino sartua zuen harra eta ezin izan zuen antzerkiaren mundutik aldentu: «2015ean Berrobin antzerki tailerra martxan jarri zuten eta udazkenean izena eman nuen. Ester Poveda, Berrobin bizi zen aktorea, genuen irakasle lanetan. Antzeztan bat prestatu zigan jendearen aurrean eskaintzeko, gustatu eta hortxe jarraitzen dut». Segidan sortu zuten Povedaren zuzendaritzapean Txalo Talo Antzerki Taldea: «urtero emanaldi bat prestatzen saiatzen gara eta prestatutakoari zukua ateratzeko, inguruko herrietan eta Euskal Herrian izaten diren lehiaketa edo jaialdietara aurkezten gara».

Maiatzaren 12an Areson

Maiatzaren 12an emanaldia dute Areson eta herrian aritzea plazer bat dela dio: «oso ondo erantzuten du jendeak». Konpromisoa ere bada, ordea, «oso exigentea naiz neure buruarekin eta herrian antzeztu behar dudanean are urduriago egoten naiz». *Kutsidazu bidea Ixabel* antzeztanaren moldaketa bat eskainiko dute eta Ixabelen paperean ariko da bera: «ikaragarri gustuko dut bere alaitasuna, trans-

mititzen duen freskura hori. Inozentzia puntua du, baina aldi berean pentsatzen duen hori esateko arazorik ez du».

Umorerik ez da falta izan inoiz beraien obretan: «inguruko herrietan aritzen gara normalean, ezagunen artean. Nahikoa albis-te txar izaten ditugu bestela ere egunerokoan. Zer politagorik ordubetxeko batean, jendeari minutu batzuek behintzat, barre egiteko aukera eskaintzea baino?». Dena den, saiatzen dira antzeztanekin mezuren bat zabaltzen: «jendeari zer pentsatua ematen, baina pretentsio handiegirik gabe. Ez gara profesionalak, talde amateur bat gara eta badakigu gure mugak non dauden».

Emitza borobila izateko, gogotik lan egin behar izaten dute: «astelehenero elkartzen gara, iluntzetan ordu eta erdi inguru. Irailetik ekainera. Emanaldia dugun astean edo aurrekoan bi bider ere bai». Eguneko hogeita lau orduak ongi zukutu behar izaten ditu, baina argi dio: «gustuko tokian aldarrik ez da izaten. Lana goizetan egiten dut, bost seme-alaba ditut eta gidoiak ikasteko tartea gaez hartu behar izaten dut, oheratzen direnean edo bazkalostean». Batzuetan esku bat ere botatzen diote: «beraiek ere jartzen ditut, nere amak esaten duen bezala *lezioa* hartzen. Gogoia dagoenean denetara moldatzeko aukera topatzen da».

Antzerkiaren gain, idaztea, argazkilaritza eta sukaldaritza maite ditu eta bere bizitza euskararen bueltan osatua du: «jeikitzen naizenetik oheratzen naizen arte. Ez dut besterik egiten. Euskaraz hitz egin, bai familian baita lagunartean ere, euskarazko hedabide batean administrari lanak egiten ditut. Herriko Panpanoziri aldizkarian ere parte hartzen dut eta herriko euskara taldeari ere ordu ugari eskaini dizkiot. Fokuen argipean batzuetan, itzalpeko inurri lanetan besteetan; baina pasio handiz guztietan».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

MALERREKAN, BAZTANEN EDO BORTZIRIETAN errentan hartzeko etxe bila. Emakume euskalduna, lan finkoarekin, 600 euroren truke, fidantza edo abala jartzeko ere prest, luzerako alokatzeko edota erosteko. ☎686 84 03 80.

MALERREKA, BAZTAN EDO BORTZIRIAK. Emakume euskalduna, lan finkoa duena, alokairuko etxebizitza, lokala edo antzekoa bila. Lurrarekin baratzerako, ahal dela hutsik edo altzari gutxiarekin, egonaldi luzeetarako. Egoera ezin hobean ez badago, ez dio axola, lana egitea aztertuko litzateke. ☎618 95 26 30.

SALGAI

ELIZONDO. Baztanberrin apartamentua salgai, garajea eta trastelekua rekin. ☎658 99 83 40.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN HARTZEKO

ORONÓZ-MUGAIRI inguruan auto-karabana gordetzeko garajea, lokala edo lokal zatia nahi dute. ☎677 36 70 07.

LANA

ESKARIAK

Emakume bat lan bila. Laneko erreferentziakin. ☎641 17 86 51.

Emakume bat interna lanean ariko litzateke. ☎646 40 89 22.

Lan bila. ☎619 80 87 23.

ELIZONDO. Emakume bat interna ariko litzateke. ☎682 68 41 35.

16 urteko gazteak udan Doneztebe aldean haurrak zainduko litzuzke. ☎659 05 74 54.

BERA. Emakume bat interna ariko litzateke lanean. ☎662 02 33 96.

BORTZIRIETAN emakumezkoa garbiketara eta haurrak edo adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Esperientziarekin. ☎623 57 52 44.

ESKAINTZAK

DONEZTEBE. Talleres Santesteban enpresan (Renault) txapa edo pintura lanetan aritzeko langile bila ari dira. Interesa duenak 948 45 02 82 telefonora deitu edo info@talleres-santesteban.com idatz dezake. ☎948 45 02 82 / 638 10 30 21.

SUNBILLA. Espelosen Eraikuntzak enpresak langileak behar ditu. ☎619 41 69 59.

ELIZONDO. Erizain bat behar dute Elizondoko zahar egoitzan lan egiteko. Lehenbailehen hasteko, lanpos-

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

tu finkoa. Goizez eta arratsaldez lan egiteko. Bidali curriculumak: maraz@zibaztan.com.

ELIZONDO. Auxiliar bat behar dute Elizondoko zahar egoitzan lan egiteko. Lehenbailehen hasteko. Goizez, arratsaldez eta gauzez lan egiteko. Bidali curriculumak: maraz@zibaztan.com.

BERA. Ibardingo BENTA PEIOn saltzaileak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travailleza-vecnous@ventapeio.com.

URDAZUBI. Dantxarineko BENTA PEIOn saltzaileak eta zerbitzariak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travailleza-vecnous@ventapeio.com.

LUZAIDE. Luzaideko BENTA PEIOn saltzaileak eta zerbitzariak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travailleza-vecnous@ventapeio.com.

BERA. Lizuniagako ostatu-jatetxean sukaldari laguntzailea eta zerbitzari laguntzailea behar dituzte. Interesatu idatzi Whatsappez. ☎657 47 20 24.

ARIZKUN. Berro Bide enpresan soldatzaile bat behar dute. ☎690 94 18 01. info@berrobide.com.

ANIMALIAK

SALGAI

BERA. Border Collie arrazako zakurkumeak salgai. ☎678 33 53 01.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,39 €
- 1.koa 5,27 €
- 2.koa 5,15 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,51 €
- 1.koa 5,45 €
- 2.koa 5,22 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 150,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,49/5,59 €
- Zaldi-behorrak 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,00/8,10 €
- 8-10 kilokoak: 8,10/8,80 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 92 €

Zerri gizona 1,800 €

Zerramak 0,950€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua apirilaren 12tik 19ra bitarteko prezioak)

OPARITZEKO



ETXALAR. Zakur bat, 5 urtekoa eta bizi-bizia, opari emateko. ☎627 01 98 26.

DENETARIK

SALEROSKETAK



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



E-bike salgai. Focus Jam2 6.8. M neurria. Bosch motorra 650w, 85 nm. 2.250 km. Berrikusia, kate berria. 3.000 euro. ☎618 41 11 14.



Haurrentzako osagarriak salgai. ☎677 65 33 84.

GALDU-AURKITUAK



BERA. Altzateko Plazan bizikleta hau agertu da. Berako Herriko Etxean dago.

MOTORRAK**SALGAI**

Vespa motorra salgai, 125 cc. Garajejan egon da luze ibili gabe. Orain

momentuan ez da arrankatzen, konpontzeko. ☎669 57 26 64.

SORTZEAK

- **Izadi Goyheneix Bean,** Sarakoa, martxoaren 28an.

URTEBETETZEAK

Arantzako **Laurendi Ordoki Velezek** urte bat beteko du maiatzaren 12an. Zorionak eta aunitz urtez familia guziaren partez. Muxu haundi bat!



Doneztebeko **Ainhize Arnedo Mitxelena** gure etxeko neskatxak 10 urte bete ditu apirilaren 26an! Zorionak eta aunitz urtez! Segi bixkor!



Leitzako **Garazi Barandarin Aranaldek** 9 urte beteko ditu maiatzaren 13an. Zorionak eta muxu pottolo bat Aresotik! Lehengusua festa egingo dugu!

KONTATU KONTUAK

Pentsiodunak Lesakan. Baztan-Bidasoko Pentsiodunen Mugimenduko kideek Lesakan egin zuten apirilko hitzordua eta 32 lagun bildu ziren. Eskualdeko eta Euskal Herriko bertze hainbat txokotako borrokez oroitzen ziren.

Herencias y Gestión

**Nork har dezake herentzia bat eta nork ez?**

Sortu ondok 24 orduz bizirik dagoen sortuberri orok har dezake herentzia bat. Pertsona juridikoei dagokienez, guztiak izan daitezke onuradun, legeak baimentzen ez dituen elkarte edo korporazioak izan ezik.

Alabaina, badaude kasu batzuk ezin dutenak herentzia baten onuradun izan:

- Seme-slabak abandonatu edo galbideratzen dituzten gurasoak.
- Mehatuen edo indarkeriaren bidez bertze pertsona bat testamentua aldatzera behartzen duena.
- Hildakoari delitu larria egin izana modu faltuan leporatu dion oinordekoa.
- Kausatzailearen edo haren familiako bizitzaren aurkako atentatua egiteagatik epaiketan kondenatua izan den oinordekoa.
- Gainera, testamentu bidez oinordeko izateko debeku bereziak daude kausatzailearen azken gaboalkian haren konfessore izan denarentzat, bai eta tutorearentzat eta testamentua baimentzen duen notarioarentzat ere.

Dena den, iraina edo ekintza sumingarria jasan duenak gertatutakoa barkatu ahal izanen du.

Nola onartzen da herentzia bat eta nola egiten zaio uko?

Oinordoko izateko, beharrezkoa da herentzia onartzea. Onarpen hori esanbidezkoa edo taktikoa izan daiteke, hutsa edo inbentarioaren onuran egindakoa. Nolanahi ere, behin herentzia onartuta, ezeztatzina eta zati-zati izan da, eta ezin izan da zati bat onartu eta bertzea baztertu.

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

Mendaur Motor

Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak

SUZUKI VITARA
3 ATE | JLX 1.6 | 16 BALBULA



NISSAN TERRANO II
3 ATE | 2.7 TD INTERCOOLER | 125 CV.



www.mendaurmotor.com

**SANTESTEBAN TAILERRAK**

RENAULT TALISMAN
SPORT TOURER
1.5 DCI - 110 CV
41.500 KM | 15.900 €

www.taileressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282
info@taileressantesteban.com



744 484 361

ttipi-ttapa

HILBERRIAK

- **Jose Miguel Beraza Zubillaga**, Leitzakoa, apirilaren 10ean, 86 urte zituela.
- **Juan Barrenetxe Galainena**, Elizondokoa, apirilaren 11n, 86 urte zituela.
- **Agustín Satrustegi Narbaez**, Elizondokoa, apirilaren 13an, 94 urte zituela.
- **Rosa Braña Igoa**, Almandozkoa, apirilaren 13an, 88 urte zituela.
- **Angel Juanenea Aizega**, Eratsungoa, apirilaren 14an, 93 urte zituela.
- **Pantxi Elneta Azanza**, Elizondokoa, apirilaren 18an, 62 urte zituela.
- **Ines Maria Ferreras Garmendia**, Berakoa, apirilaren 18an, 90 urte zituela
- **Valentina Altamira Goizueta**, Goizuetakoa, apirilaren 18an, 100 urte zituela.
- **Jose Arraztoa Arraztoa**, Iuritakoa, apirilaren 19an, 84 urte zituela.
- **Gilbert Crussol**, Beran, apirilaren 19an.
- **Martin Jose Ansa Saizar**, Aranokoa, apirilaren 20an.
- **Maritxu Larretxea Bereau**, Arantzakoa, apirilaren 22an, 93 urte zituela.

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduek aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidad
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

OROIGARRIA

Pantxi ERNETA AZANZA

Apirilaren 18an hil zen, 62 urterekin



*Sorgin haize zurrumbilo batean agertu zinen,
Pantxi, txistu doinuz eta alaitasunez inguratua.
Harat eta hunat ibili ginen elkarrekin,
sua saltatzen, eta dantza eta zalapartetan.
Orain bertze haize zurrumbilo batean
arras urrun partitu zara,
baina han ere zure musika
eta alaitasuna eskaintzen imajinatzen zaitugu.*

SORGIN HAIZEA ANTZERKI TALDEKO ZURE LAGUNAK

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es



IZARRA
HERRI, ZURE ONDOAN
ANIMA ETZAN

Gure harra,
gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

Baztan Bidasoa | Ehorzketak

**BAZTAN
ELIZONDO** - Santiago Kalea, 79
**MALERREKA
DONEZTEBE** - Aparan ind. 1-3

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere.

24 ORDU | 365 EGUN | **948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

HITZ GEZIDUNAK

	Bikuna, botzarts	Bizkako udalerria	Erabateko abegia	Deitura	Ondariz emez dena
	Ginekologi aditua	Zer tokibatik?	Suari daria	Abegia	Bokalk gabeko gaina
	Lomak zain-lizon dituenak				
	Muskoko herribar				
Albogarriak	Su etena			Kubidemaren hasierak	Potasioa
• izena	Nabarrak, pikartak			Miazur	Gizon izena
				Luzera unitate	
				Sugezerra	
Bizkako udalerria			Balo handiko apingarrak		
Ergel, kaku			Lastoaren errauts		
		Hoguzien aholagaria		Ergelbeteen letrak	Zuen, baina haiei
		Ezurak		Baracki heriotzak	
Arku, satal		Aie neuri zaharra			Lohena eta zokema
Gubiria		Bokalk gabeko izulia			Igar EHA, abere talde
			Basapizta mota		
			Abi		
Arasen bidez antolatua				Ospel	
Dardara				Azikmeko letra	
		Nituen, baina hari			

◆ Gure lurraldeko musikaria eta abeslaria

GOITIBEHERA

1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									
11									

Goiti eta beheti letra bat gubiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Pluralean, nazio baten ikurtzat erabiltzen den ehun zatia.
- [2] Emazteak, emakumeak.
- [3] Lesakako auzoa.
- [4] Gizon izena.
- [5] Arraza.
- [6] Emakume izena.
- [7] Momentua.
- [8] Azalez eta gainaldez mintzatuz, koskorrik edo zimurrik ez duena.
- [9] Lurrazpian egiten den igarobidea.
- [10] Baratze alorra.
- [11] Galtasun berezia.

ERANTZUNAK

N	O	I	X	Z	I	N	I	Y	R	Y	K	I
E	O	I	V	V	U	I	R	Y	R	V	A	R
I	V	Z	V	Z	V	Z	L	O	R	I	R	I
Z	V	V	V	V	V	O	X	V	M	V	O	S
K	V	O	I	K	I	O	S	V	O	S	V	O
V	I	X	I	B	I	V	A	R	V	O	S	V
O	R	I	R	E	M	O	R	D	O	L	E	R
K	E	K	E	V	A	N	I	A	M	E	L	E
V	N	I	V	Z	V	L	O	R	E	Z	V	O
O	S	O	L	O	K	O	L	E	N	I	S	O
D	O	P	O	D	O	P	O	D	O	P	O	D

B
A
N
D
E
R
A
K

A
N
D
R
E
A
K

E
N
D
A
R
A

A
N
D
E
R

E
N
D
A

A
N
E

U
N
E
A

L
E
U
N
A

T
U
N
E
L
A

T
A
U
L
E
N
A

T
A
L
E
N
T
U
A

LABIRINTOA

Pelloziriren laguna harrokeriatan aritu da: sua piztu du! San Juan bezpea dela uste du? Suaren gainean jauzi egin duen batean, puzkertxo batek ihes egin dio, eta brokoli asko jan ostean izan denez, gaseoso samarra atera zaio gizajoari, eta, jakina, su hartu dio... Zein da bere itzal zuzena?

ZORIONAK!

URKI LARRALDE AROTZENA

852. aldizkariko irabazlea zara!



Marrakizak: Garbille Ubeda (Aizarn)

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin,
Ttipi-Ttapako Whatspera: (0034) 774 48 43 61
zure izen-abizenak jarrita.
Ondoa duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!




ALDEA DAGO

QHQAMWWWA,
YVAMWWWAYV!
WWWUSQHQTE DUTWWW
SYVEKUQHQLAKOYV
AURWWWKIKLUNYVTZA
EGIYVNGO
DUQHQDALAWWW
QHQGALRWWW

WWWGALRYVKO
QHQUMEWWWEK
YVEZ DAKIYVTEQHQ
ZER YVASMAQHQTU
NAGUWWWSIEN
ARQHQRETA
BEREQHQGA-
NATZEWWWKO

Gure aspaldiko arbaseok ez zuten guk bezala hitz egiten, ez horixel Baina bada truku bat ama-alaba hauek esaten ari direna ulertzeko. Ezaba itzazu **WWW**, **YV** eta **QHQ** guztiak eta hortxe agertuko zaizkizu esaldiak.



SUDOKUA

Bete hutsuneak, EROA hitza osatzen duten hizkiak (E, R, O eta A) dagokien tokian jarritz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

A			E
		R	
	E		
O			

INTERNETEN ERE BAI!



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eu/kioskoa/soluzioak

<http://plazanbazan.eu/>

Ttipi Txartelaarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Kontaktatu bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

852 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Maite Ibarrola Manterola | DONEZTEBE
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Fco. Juanena Elizondo | DONAMARIA
Hara Bi - Poltsa bat eta botila bat
Jose Miguel Azkarraga Zubiri | ELBETE
BKZ Abentura - Sarrera bat
Miguel Iraola Antxorena | ALMANDOZ
Izar Park - Sarrera bat
Olatz Oiartzabal Bertiz | OIARTZUN
La Rhune - Sarrera bat
Agustin Burlada Etxebeste | LESAKA
Maite moda - Kamiseta bat
M^a Jose Errandonea | BERA
Garbi - Saski bat
Esti Lertxundi Beñaran | LEITZA
Tarttalo - Bi liburu
Clemente Suhaz Sansifena | UROAZUBI

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumos.com



Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Katila bat

EZKEXA
www.ezkexa.com



Kamiseta bat

IRRISARRI LAND
www.irisarriand.com



Sarrera bat

BIDASOIL
N-121A errepidea 74. Km. Beldibia/Irun




30 €ko opari txartela

WOW PARK
www.wowpark.fr



Sarrera bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozagarramundi.com



Sarrera bat

LIRAIN
Elbarre, 34 - Leitza



Jertsu bat

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGIALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipi Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttipi Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.

MUSIKA

Hiru CD



Deskontuak eta zozketa: Ttipi-Ttapa aldizkari
guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

baga-biga
www.baga-biga.eus